JUANJO OLASAGARRE

Ezinezko maletak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2004 Juanjo Olasagarre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2004ko martxoa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

«Gure ama arrain bat da».

As I Lay Dying, WILLIAM FAULKNER

«Eskukada bat. Bi eskukada. Bi eskukada baino ez ziren gelditzen. Diot:– Adio Jack».

Last Orders, GRAHAM SWIFT

Mikel Fernandezi

eskerrik asko iradokizunengatik:
Jon Alonso, Iban Zaldua, Xabier Martinez,
Garbiñe Petriati, Alberto Urkia, Osio,
Patxi Larrion, Eva Elvira.

Fermin

«He died last night».

Fermin Donostiako bulegoan zegoen pazientе baten txostenari nondik heldu hausnartzen telefonoak jo zuenean. Alizia emaztea zelakoan, beti hots egiten baitzion goizeko hamaikak inguruan, ezaxola antzean jaso zuen aurikularra begiak oraindik letren artean josirik.

«Bai, esan».

«Hello, my name is Marck», erantzun zuen bestaldeko ahotsak Ferminen larritasuna piztuz, «I was a friend of Carlos Urretabizkaia».

Carlos Urretabizkaia, Carlos Urretabizkaia arakatu zuen Ferminek oroimenean, izena ezagutu beharko zuelako susmoa indartzen zitzaiola. Beheko ezpaina hozkatu zuen begiak bulegoan galdu zitzaizkion bitartean. Aliziak aukeratutako sofa urdina, Aliziak erositako alfonbra garestia, ezkonberritan Hego Afrikan Aliziak aurkitutako maskara hieratikoak, Aliziaren amak oparitutako kristalezko hautsontzi erraldoia. Ezer ez zen berea han. Carlos Urretabizkaia. Kristala

ukitu zuen. Hotzikara bat igo zitzaion lokietaraino.

Bazter, joder, Bazterren izena Carlos Urretabizkaia duk, amaz kanpo inork hala hots egiten ez bazion ere.

«I was a friend of Carlos Urretabizkaia», errepikatu zuen ahotsak luzetsirik, nonbait. «Carlos Urretabizkaia», gehitu zuen Bazterren izenaren errepikapenak ulertzen lagunduko ziolakoan.

«Yes» esateko moldatu zen Fermin, ulertu zuela aditzera emateko.

Eta orduan entzun zituen zur eta lur utzi zuten hitzak: «He died last night». Atzo hil zen.

Hasieran ez zituen lotu «Carlos» eta «he» hori, ingelesez ari zenean maiz gertatzen zitzaion bezala, baina halako batean burua berera etorriz ulertu zuen: Bazter hil egin duk.

Urrutitik bezala aditu zituen ondokoak: Carlosen agendan aurkitu zuela Ferminen zenbakia, bi egun barru izanen zela hileta, arratsaldeko 6etan, ea etorriko ziren.

Hautsiapur apuntatu zuen helbidea paper mutur batean eta good bye bat marmaratuz zintzilikatu zuen.

Joder, Bazter hilik! Bazter herriko laguna, gaztetako adiskidea, mundua gazte zitzaienean irauli eta hobeago bat ezarri nahian, «nahianedo» ñabardura egin zuen Ferminek bere baitarako, gogoan Alizia emaztearen bisaia trufaria ageri zitzaiola, ondoan izan zuen konpañeroa. Zein inuxenteak izan ziren! Gero ere aurpegiratuko zion Aliziak: «Erdipurdiko heroi exkaxak, zuen gaztaroa denon gaztaroa uste izan eta bazterrak nahasi baino ez zenutenak egin». Aurikularra jasorik bizitzako une zalantzagarri orotan egiten zuena egitera deliberatu zela ohartu zen Fermin. Ez. Aliziak ez lioke ulertuko barrenetan zebilkion antsia, Aliziak ez baitzizkion entzun ere nahi izaten metalezko zilbor-heste baten modura Lekunberri Aranazera eta iraganera kateatzen zuen lotura, Aliziarenez, endogamiko hari buruzkoak. Arkatza hartu zuen. Errua borborrean ari zitzaion, Bazterren heriotzarekin zerikusirik balu bezalako errua. Arkatzaren muturra laztandu zuen egurraren beroa sentitzearren. Arnasa sakon hartzen saiatu zen. Lasai. Begiak jaso zituen: sofa urdina, alfonbra garestia, Afrikako maskara atseginak, kristalezko hautsontzi erral-

doia. Orube bat bezala agertu zitzaion iragana. Horma erori batzuk, laharra franko, hondarrak, dena erresuminak eta gorrotoak errerik. Oraina hobe zegoela erabakitzeko agindu zion bere buruari, iraganaren orubea atzean, oso atzean utzi nahian. Bazter hil duk.

Harakini hots eginen zion. Telefonoa hartu eta Esti eta Harakinen etxeko zenbakia markatu zuen eskumuturreko erloju dotoreari, Aliziaren aukera, begiratzen zion bitartean; hamaika eta erdiak. Harakin lanean arituko zen gurasoen harategian, baina Esti beharbada etxean izanen zen eta emanen zion harategiko zenbakia. Urduri entzun zituen etxean inor ez zela adierazi zioten soinu erritmiko luzeegiak. Inor ez. «Beti bezala, behar denean ez zegok».

Bulegoko leiho zabaletik Amarako zeru goibela ikusi zuen, aspaldiko partez euria ari zuen beroegi zihoan udazken hartan. Leihoagatik alokatu zuen bulegoa, zerua ikusteko eta, pazienteen kasuak aztertzen ari zela, gero eta gehiagotan behar zuen bakea zigarroaren kean nola kiribiltzen zen dastatzeko esan zion Aliziari, metaforak ekar zitzakeen onurak bulegoaren alokairua-

ren garestia ahantzaraziko ziolakoan, Alizia baitzen etxeko diru kontuak kudeatzen zituena, zorrotz kudeatu ere.

Eguna jai hartu eta Herrira abiatzea erabaki zuen. Aurikular urdina belarriratu eta Aliziari hots egin zion; etxean egonen zen Maialen eta Eneko eskolan utzi eta azokatik bueltan.

«Aizu, Alizia, ez naiz bazkaltzera joanen, paziente baten emazteak hots egin dit eta bazkaltzeko gelditu gara. Zein? Arazo sexualak zituela aipatu nizun hura. Bai, Anoetakoa, bai. Andreak hots egin dit, oso kezkaturik dago eta bazkaltzeko gelditzea bururatu zait, badakizu, horrela konfiantza emanen diot, psikologoa baino gehiago laguna naizela adieraziko diot, eta gehiago inplika daiteke gizonaren sendabidean. Akordatu zer azpimarratzen zigun Psikopatologiako irakasleak, sendatzea konfiantza kontua da eta...». Isildu egin zen aitzakia korapilatzeak Aliziaren susmoa piztuko zuelakoan. «Bai, gauean ikusiko dugu elkar. Bai, nik eramanen dut Eneko igeriketa ikastarora. Adio, maitea».

Arratsaldeko bostetan zeukan paziente bakarrarekin hitzordua bertan behera utzi ondoren al-

txatu eta Aliziak oparitu zion gaban berdea harturik, «Ez duzu gustuko izanen baina garaia da zarena bezala janzten hasteko» bota zion oparitzerakoan, kalera atera zen. Bere buruaren erraina eskaparateetan islaturik ikusten zuenetan iruditzen zitzaion lotsarazten ez zuen dotoreziaz ageri zitzaiola kristaleko hura, gehienetan, ordea, jantziegi, bereaz bestelako antzerkia antzezten ari zela, ez zena ordezkatzen zuela erabaki beharra zuen; eta hala ere ez zion kontrarik egiten Aliziari, «iragan gorri merkea», emaztearen hitzak ziren, gainditzeko irrika zuelakoz, beharbada.

Euri tanta bat irristatu zitzaion kolkoan barna. Hotza nabaritu zuen. Keinu azkar batez jaso zituen lepokoak. Bazterri duela bi urte inguru egindako bisitaz akordatu zen. Orduan ez zirudien gaizki zegoenik, zaharrago ikusi zuen eta soilduago; denei gertatzen ari zitzaien, zaharrago ziren eta, gainera, uste orokorraren kontra, ez-jakintsuago. Elkarrekiko ardura eta xamurtasun gutxiago zeukaten, bestela jakinen zuen Bazter gaixorik zegoela. Jakinen zuten, izan ere, seguru zegoen ez Bazterrek, ez Estik, ez Jexus

Marik ez zekitela ezer. Bazterren heriotzak barrunbeetan eragindakoak sentitzen saiatu zen. Orubea baino ez zitzaion agertu. Horma eroriak, laharra franko, hondarrak.

«Hirian bizi haizenetik ez zeukaagu hire berririk», trufatzen zitzaion Harakin betiko zapuzkeriarekin gurasoak ikustera Lekunberrin azaltzen zen aldi bakanetan; baina ongi zekien kontua ez zela espazioa, baizik eta denbora. Haien artekoa, Harakin, Jexus Mari, Esti, Bazterren artekoa, hondarrak ziren, eta hondarrak hondar dira beti. Ageri ziren han-hemenka oroitzapen..., adjektiboaren bila aritu zen Fermin, oroitzapen polit batzuk; eta hala ere, Donostiara etorri zenetik Harakinekikoak hondakinak baino ez izateagatik, niri eskerrik gustuko zuen esatea Aliziak, poztu zen behin baino gehiagotan.

Mugimendu berezi batez eragin zion autoa irekitzeko gailuari. Hura ere Aliziaren erabakia izan zen. «Audi 4 bat erosiko dugu» bota zion konforme ote zegoen esateko aukera eman gabe. «Audi 4» errepikatu zion erabakita zegoela aditzera emanez. Ez zuen dirua aipatu, izan ere, pazienteengandik lortzen zuen soldata bale-

koarekin nahikoa zaila suertatuko zitzaien Audi 4 bat pagatzea, baina bazekien Aliziaren familiak ezkondu ondorenean ere hilero-hilero kontu korrontea loditzen segitzen zuela. Solterotan naturaltasunez hartu zituen Aliziaren familiak egiten zizkien opari, afari eta abarrak, behin ezkondutakoan, ordea, kontu korrontean dirua sartzen zietelako sumindurik gurasoengandik diru gehiago ez onartzeko agindu zion; Aliziak, jakina, ez zion kasu piperrik egin, gehienetan bezala; pixkanaka isiltzen joan zitzaizkion izan zitzakeen kontzientzia karguak, oharturik Aliziarekin borrokatzerik ez zegoela.

Harakin bezain auto garestien zale sekula izan ez bazen ere, gogoz sakatu zion azeleradoreari Andoainen Nafarroako autobidean sartu zenean. Ama poztu eginen zitzaion seguru. Baziren bi hilabete ez zela Lekunberrin izan; amari astero hots egiten zion, baina bakanetan joaten zen amaren marmarrerako. Aita etorri zitzaion gero, anaiaren galdera bezain azkar aienarazi zuen mozkor nazkagarria hitzak baino sorrarazten ez zizkion figura haren gomuta.

Bazkaltzera zihoala esateko ez zuela hots egin akordatu zen. Sakelakoa atera eta teklaz markatuz amari hots egin zion autoak ehun eta laurogei egiten zituen bitartean.

Nahiago zuen ez pentsatu; zenbait psikologoren arabera, heltzea ordura arte ezin kokatuz kili-kolo izandako gatazkei lekua eta interpretazio bakarra aurkitzean datza. Familia behintzat kokatu zuen, kokatu zuenez: urruntasunean maitasuna izatera iristen ez zen xamurtasunez estaliz, tokia aurkitu zion sentimenduen geografian. Beno hori amari eta anaiari zegokionez, aitaren kasuan urruntzearekin gelditu baitzen, xamurtasunaren ezinean. Horretan ere Aliziak lagundu zion, nahiz eta gero eta maizago bere artean galdetu laguntza horrengatik prezio garestiegia pagatzen ez ote zen ari; pentsamendu hau uxatu egin zuen betaurretik kea kenduko lukeenaren keinuaz. Eta adiskideak? Adiskideek zein leku hartzen ote zuten geografia hartan? Harakin, esaterako, urruneko figura mugimendu gabekoa ote zen ala harat-honata zebilkion, oraindik ere, ardaila, urduritasuna, gorrotoa sortuz? Eta Bazter?, hil berri zitzaien, beharbada zitzaion esan

beharko luke, edo hobe, besterik gabe, zen, oldoztu zuen Ferminek; Bazter hura, Ingalaterran desagertuagatik, paisaiaren parte bazen; zer leku hartu zuen?, urruneko figura hark ere ardaila egiten zion?

Barrankan sartu zenean bihotza zabaldu egin zitzaion; lehenago Beriain eta Aralarren arteko korridorean barna abiatzen zenean ez zitzaion ederra iruditzen, Kontxako Badia izan zuen beti paisaia kutunetarako. Baina Londresen Bazterrek bertan bizitzean mentsena zuena Barrankako paisaia zela esan zionetik, erreparatzeari ekin zion, eta Bazter Londresa joan zenetik etorritako aldi bakanetan sentitutakoa sentitzen ari zela otu zitzaion.

Lehor zegoen dena, eder, ordea. Beriain aldea soildurik zegoen; Aralar aldean, aldiz, kolore arre eta berdea tartekatzen zen, harkaitzen urdinarekin batera. Autoak aurrera nola egiten zuen nabaritu zuen. Ezpaina hozkatu zuen. Distira busti bat geratu zitzaiola ikusi zuen ispilu erretrobisorean. Ahaltsu sentitu zen une batean, han autobidean barna ehun eta hirurogei orduko abiaduran.

Esperoan zuen ama berdura platera mahai gainean, bai baitzekien berdura zuela gustuko, Bazter eta biak, hemeretzi urteak inguruan, barazkijaleak egin zirenetik, aitaren ernegurako, eta etxean behar ziren baino pelea gehiago sortzeko, aitari, marikoikeria galanta iruditu baitzitzaion haragirik jan nahi ez izate hura. «Zuekin, zuekin zer egin daiteke, zuekin» esaten zuen, harekin zerbait egin ahal izan balitz bezala, ama torturaraino hilduratu duen mozkor nazkagarri horrekin.

Amari muxu emanez uxatu zituen pentsamendu haiek guztiak, zeharka aita han zenetz begiratzen zuen bitartean. Amak nonbait nabaritu egin zion, eta «Ez dago etxean» esan zion buruarekin gaitzespen keinua eginez. Ferminek ez zion ezer erantzun agerian harrapatua izanaz lotsaturik; eseri egin zen, ama, zutik, galdezka ari zitzaiola.

«Zer moduz zaudek Eneko eta Maialen?».

«Ongi, eskolan izanen dira orain».

«Eta zuek, zer moduz zaudete zuek?», esan zion amak erretorikarako zuen joera nabarmenduz.

«Ongi. Dena ongi, betiko moduan. Bazter hil da», bota zuen deblauki.

«Nor da Bazter?».

«Bazter, ama, Bazterretxeko Carlos».

«Jesus, Maria eta Jose», egin zuen amak aitaren.

Harakin

Lan handia zuelako aitzakiarekin gurasoen etxean bazkalduko zuela esan zion Harakinek Estiri, haien artean ez baitzen giro aspaldi hartan.

Aita, begiak hegaztien dokumentalean iltzaturik, isil-isilik jaten ari zen, inguruan suma zitekeen tentsioaz ezer jakin nahi ez zuela. Ama sukalde inguruan zebilen. Eseri zenean hegaztiengan ezarri nahi izan zuen arreta, baina Estirekin aurreko gauean izandako liskarrak, azken aldian ia egunerokoak, gogoa asaldatu zion ezeri arretarik ez emateko gauza ere ez zela utziz. Amak nolanahi bota zion platera mahai gainean. Platera jiraka ibili zen une batez. Esti eta haren artean gertatzen ari zenarekin, «ustez gertatzen ari zenarekin» pentsatu zuen Harakinek, batere konforme ez zegoela aditzera eman nahi zion amak azken egunetako zakarkeriarekin. Ez hori bakarrik, neroni nauka errudunetarako. Harakinek zeharka begiratu zuen amaren aldera. Pañueloa atera eta suspirioak zintzatu zituen. Platera

hartu eta sutondoan eseri zen, aita eta Harakin zeuden mahaian eseri beharrean.

Irentsi egin zuen Harakinek janaria dokumentaleko ahotsari isiltasuna urratzeagatik eskerrak emanez.

Justu-justu adio esan eta kafe hartzera atera zen Bazterretxera, gaztaroa eman zuten taberna berera. Felipe eta Manolo musean aritzeko espera zeuzkan, baina denborarik ez zuela esan zien, gogorik ez zuela ez esateagatik, eta barran eseri zen bakar-bakarrik. Hutsa eskatu zion kamarero gazteari; Bazterrek saldu eta Londresera alde egin zuenetik bazen laugarren jabe aldia edo, eta hala ere zabalik iraun zuen tabernak hamabi urte hauetan, «gu bezain itxi gaitz» pentsatu zuen Harakinek, harrotasun ziztadak bularra betetzen ziola. Semea etorri zitzaion burura eta, uxatu nahi izan bazuen ere, zergatika hasi zitzaion gogoa, zergatik egokitu zitzaien haiei desgrazia hura, zer egin zuten bada. Bolada txarra pasatzen ari ziren; estuegi hartzen zuen Estik, baina berak denbora behar zuen.

Fermin atetik barna sartzen ikusteak harritu egin zuen aste eguna eta eguerdiz. Zerbait ger-

tatuko zitzaion aitari, etorri zitzaion burura, ‘mozkorrari’ zuzendu zuen berehala.

«Zer, utzi duk hire Ñoñosti hori» bota zion trufaka, baina berehala nabaritu zuen, horrenbesteraino ezagutzen zuten elkar, ez zeudela bazterrak berriketarako.

«Zer pasatzen duk» galdetu zuen tabernan zeudenek aditzeko moduan.

Ferminek Manoloren eta Feliperen aldera begiratu zuen. Harakini Ferminen ezpainetan mespretxu ia nabari ezin bat ikustea iruditu zitzaion. Gero bizkarra emanik Harakinengana jiratu eta ahotsa jaisteko keinua egin zion Manolo eta Felipe seinalatuz.

«Bazter hil duk».

«Zer!».

«Bazter hil dela, joder» altxatu zuen ahotsa.

Telebistaren marmarra ezarri zen bien artean. «El presidente español ha declarado que el problema vasco no existe».

Harakinek Fermin jiratzen ikusi zuen muslariek zer edo zer aditu ote zuten jakin nahian. Harakini burua hutsik gelditu zitzaion. Barne kulunka bat nabaritu zuen. Semearen gomuta etorri

zitzaion. Sehaska. Kafe kikarak barra gainean marraztutako zirkulu marroiari erreparatu zion.

«Zer nahi duk» galdetu zion Harakinek Fermini.

Ferminen begi harrituak so ikusi zituen; zerbait murduskatu zuela ohartu zen, baina ez adituarena egin zion.

«Zer hartuko duk?» tematu zitzaion berriz ere Harakin.

«Kafesnea kafe gutxirekin eta esne epelarekin» erantzun zuen Ferminek ahots sendoegiz.

Bazter hil duk eta honek oraindik kafesnea kafe gutxirekin eta esne epelarekin hartzen dik otordu ondoren. Bazter hil duk harilkatu zitzaion gero, eta sorturik gelditu zen kamareroa aurrean zuen bitartean.

Ferminen ahotsak, kamareroari kafesnea eskatzen lurrerarazi zuen.

«Nola dakik» bota zion Fermini erronka antzean.

«Marck delako lagun batek hots egin zidak duela lau ordu edo, eta dudarik ez zegok, hori baldin bahaiz zalantzan jartzen» oldartu zitzaion Fermin.

Jode, Bazter.

«Zer joanen gaituk, ezta?» Harakinek.

«Bai, joan beharko diagu».

«Nola beharko?!».

«Beno, hark ez dik gehiegi egin guk ezer jakiteko».

«Adiskideak adiskide dituk, motel, jakin ala ez jakin!» erabaki zuen Harakinek.

Fermin, beti bezala, kaka esplikatzen ari zela entzutean ernegatu zen, baina eutsi egin zion Estirekin aurreko gauean izandako liskarrarekin okaturik.

«Bazter, dagoenean dagoela, gutarra duk» esan zion tonu xuabean.

«Gutarra?! Zer duk gutarra izatea?» harrotu zitzaion Fermin, hitza entzutearekin begiak sutan.

Harakin muslarien aldera itzuli zen, ez zuen eztabaidatu nahi, ez Ferminekin; adiskidetarako bazuen ere ez zuen ulertzen eta ez zuen ulertuko gauzarik ñimiñoenagatik erasorako zeukan jarrera hura. Ez zen unea, Bazter hila eta biak zirrimizkeriatan hasteko.

Berriz ere Ferminengana jiratu zen. Kafesne katilua ezpainetan zuen. Telebista ezarri zen haien artean atzera ere. Larkara so egin zion Harakinek Fermini. Muturturik zirudien.

«Gesto por la Paz afirma que con un poco de voluntad...».

Fermini ez begiratzeagatik tabernan herrarazi zuen soa. Lurrean zegoen Chesterfield pakete bati erreparatu zion. Ikurrindun pegatina bat zuen ondoan. «Presoak...» irakurri ahal izan zuen. Egia ote zen Gesto por la Pazekoa zela? Aulkitik zertxobait altxatu eta paketea zapaldu zuen.

«Begirazak» esan zion bere burua Fermini aurrez aurre begiratzera beharturik, «ez gaituk hasiko bakoitzarendako Bazter zer ote zen fi eta fu. Hik ikusiko duk, baina neroni joaten saiatuko nauk, Jexus Mari ere abisatuko diat ea etorri nahi duen».

Eztabaida nahi ez izate hark Fermin lasaitu zuela ohartzean Harakin ere lasaitu zuen. Senetik ateratzen zuen Fermin horrela jartzen zenean.

«Jexus Mari abisatzera joan beharko diagu. Arduratuko haiz herori billeteak lortzeaz? Biharko beharko ditek», galdetu zion ahalik eta laztankorren.

Baiezkoa egin zion Ferminek kafesnea bukatzen zuen bitartean.

Jexus Mari basoan aurkitu zuten egurketan. Harakini iruditu zitzaion berriak ez zuela gehiegi hunkitu, baina halakoa zen beti Jexus Mari, sentimenduak ezkutatzen zekien soldadu aginkorra. Baiezkoa eman zuen, Ferminek adina berriketarik gabe, nahiz eta Fermin eta Bazter, Jexus Mari eta Bazter baino adiskideago izan. Bazter hilik. Semea sehaskan. Ordura arte Ferminen aurrean zaindu zuen agintari sena atera zitzaion. «Fermin, zer edo zer esan beharko diagu entierroan; izanen duk hor nonbait poema egokiren bat edo?!» oldartu zitzaion.

Ferminek tonua batere gustuko izan ez zuela ohartuagatik ez konturatuarena egin zion. «Omenaldi hartan irakurri huena, sustraien hura egokia izan daitekek; akordatzen haiz?».

Begira geratu zitzaion. Harakinek eutsi egin zion Ferminen begiradari. Eskuak izerditan nabaritu zituen. Galtzetan igurtzi zituen lehortu nahian. Jexus Mari biei so zegoela ikusi zuen zeharka; haiek noiz oilartuko espera izanen zen, baina Ferminek atzera egin zuen nahiz eta aurpegian halako keinu mikatz bat gelditu.

«Joseba Sarrionandiarena» esan zuen lehor.

«Hartuko duk, orduan» bukatu zuen Harakinek, negoziazioa hitz horiekin itxiko balu bezala.

Egurketan utzi zuten Jexus Mari eta herrira itzuli ziren. Hazten eta iraultzaile bihurtzen ikusi zituen, gurdi bidean barna autoa binbilin-bonbolonka. Erdi ozpindurik zihoan Harakin Fermin ozpindu zuela iruditzen zitzaiolakoz, eta ozpindurik nabari zuen Fermin berarekin ozpintzen jarraitzen zuelakoz ozpindurik, seguru asko.

Harategi atarian utzi zuen Ferminek.

«Orduan hots eginen didak, billeteak lortu dituan ala ez esateko. Ez erreparatu prezioari. Gero arte orduan».

Nekez emandako «gero artea» entzun ondoren harategian sartu zen, legeak zioena gorabe-

hera, estarbiaren izkina batean atondurik zeukaten hiltegi ilegalean txekorra akabatzeko prest.

Arratsalde osoan, hilketa zela, bezeroak zirela, ez zitzaizkion ez Bazter, ez Esti, ez semea gogora etorri, baina azken bezeroak alde egin ondoren gurasoekin fluoreszentez argitutako harategian gelditu zenean trabatu zitzaizkion eztarrian. Ahulezia nabaritu zuen. Hiltzeko laban odoldua hartu eta kainu azpian jarri zuen odola harraska gainera nola erortzen zen so egiten zuen bitartean. Ur gorria hustubidetik behera zihoan, jira eta bira. Ama kamerak garbitzen ari zen eta noizbehinka zeharka begiratzen zion.

«Pedro, zoaz etxera, Estibalitz esperoan izanen duzu» bota zion hitzez, begiradaz esan nahi izan ziona ulertu nahi ez zuela ikustean; «aitak eta biok garbituko ditugu kamerak».

«Ez, lasai, neronek garbituko ditut. Segi zu etxera afaria prestatzera, zuekin afalduko dut».

Amak aitaren laguntza bilatu zuen begiradarekin, zer edo zer hitz eginak zirelako seinale, baina, beti bezala, aitak ez zuen parte hartu nahi izan.

«Pedro Mari, arazoak ez dira horrela konpontzen» esatean, isiltasuna lehortea bezala hedatu zen gauzak argi ez azaltzera ohiturik zegoen etxe hartan.

Harakinek amantala kendu eta ezer esan gabe atera zen etxetik. Une batez atzera begiratu zuen leihotik, han zeuden: aita kameratan makurturik, garbitzen; ama zutik, atera berria zen ateari so, begiak xor, gomazko goanteekin malko lehor antzeko bat sikatzen saiatzen zen bitartean. Ezin.

Goizaldeko ordu bata inguru abiatu zen etxera, Bazterretxean herriko hamar urte gazteagoekin porroak erre eta zerbezak hartzen egon ondoren, Esti lotan egonen zela seguru zegoenean. Balantzaka igo zituen eskailerak nahi baino zarata gehiago eginez. Semearen logelara jo zuen eta han egon zitzaion begira, buruan alkohola, errua eta amorrua nahasten zitzaiola. Ez zion sekula futbolean ikasiko, ez ziren sekula elkarrekin musean arituko, ez zuen sekula Euskal Herria zer zen ulertuko, ez zuen sekula adiskidantza zer

zen jakinen. Zergatik? Medikuz mediku ibilitako tokiak etorri zitzaizkion gogora: bazela Parisen Down sindromea tratatzen zuen medikua, hara joan ziren haurra eta hirurak; Bilboko beste mediku bat aitatu zieten gero, eta Bilbora jo zuten; Londresen izan zen, bakarrik orduan; eta denek gauza bera errepikatu zieten, ez zegoela medikuntza aldetik ezer egiterik, baina hezkuntza arloa landu egin behar zela, landuz gero asko aurreratzen zutela.

Ohera sartu eta Estiren ondoan etzan zen; ez zuen han aurkitzea espero azken aldi hartan Estik haurraren logelan egiten baitzuen lo, haurrarekin egoteagatik bainoago berarekin lo ez egiteagatik susmatzen zuen Harakinek, eta eskertzen zion, izan ere, nahiago baitzuen bakarrik lo egin eta elkarrekikoak, gauez bazen ere, lasai uztea.

Bazter etorri zitzaion gogora loak ezin harturik; txikitan egindakoak, nola mozten zizkioten buztanak katuei, dotrinara joandako urteak; nola egoten ziren dotrina kanta eta kanta, eta nola behin Bazterrek bi zartako jo zituen eta denek uste izan zuten, Harakinek eta Bazterrek izan

ezik, dotrina bukatua zela, hura baitzen Don Juan Maria apaiz kabroi hark egindako bukaera seinalea, eta nola ateratzen ari zirela, lehendabiziko neska-mutikoa hanka kanzelan jartzen ari zela agertu zen Don Juan Maria, apaiz kabroi hura, eta eduki zituen hiru ordu harik eta zartakoak nork jo zituen aitortu arte; nola, azkenean, hiru orduren buruan, Bazterrek aitortu zuen bera izan zela zartakoak eman zituena, eta azkenean, gaueko hamaikak inguruan Bazter etxera bidali zuen, egiatia izan zelakoz saritzeko, eta nola gainontzekoak utzi zituen hamabiak arte, Bazter ez salatzeagatik zigorturik.

Gogora etorri zitzaizkion, semearen irudia burutik haizea bezala joan-etorrian zebilkiola, Bazterrekin egindako parrandak, militantzia politikoa, Down sindromeari buruz munduan gehien zekien medikuarengana, semearen emaitzak eskuan harturik, lagundu zuen aldia; medikuak, Doctor Kaplanek, oraindik akordatzen da izenarekin, Bazterri azaldu zizkion berak zegoeneko bazekizkien emaitzak, eta gero ea galderarik ba ote zuen itaundu. Harakinek ezezkoa egin ziola gogoratu zuen, etsirik, Londresera joan aurretik

ere bai baitzekien zer emaitza jasoko zituen. Oraindik ere nabari dezake bulegoa utzi aurretik medikuak sorbaldan paratu zion doluminezko esku haren pisu guztia.

Goragaleari ezin eutsiz komunera abiatu zen izkina oro joz. Pazientziaz egin zuen oka, ahotik ateratzen zitzaionari erreparatuz.

Armairuan aritu zen tarte batez zerbaiten bila. «Ez zegok, mekaguenlaputa». Gero besondoarekin ezpainak lehortuz telefonora abiatu zen. Goizeko hirurak irakurri zuen sukaldeko erlojuan. Aurikularra jaso eta Ferminen mezua entzun zuen. «Lortu ditiat billeteak. Etzi arratsaldeko bostetan. Hileta seietan duk. Badiagu nahikoa denbora. Lauretan geldituko gaituk Loiuko aireportuan. Ni nire kabuz joanen nauk Donostiatik. Ez ahaztu karnetak. Gau horretarako hotela ere hartu diat».

Bazter hilik. Hankak dar-dar egin zioten eta zotin antzeko batek inarrosi zion bularra. Eskuetan bildu zuen aurpegia eta sofan eseri zen ez erotzearren. Bazter hilik.

Altxatu eta telefonoa markatu zuen.

«Jexus Mari?».

«...»

«Bai, bazekiat oso berandu dela. Hi, lortu ditik billeteak. Etzi lauretan Bilboko aireportuan. Badaukak ikurrinik?, nirea ez diat aurkitzen».

«...»

«Baduan ikurrinik?».

«...»

«Ez nagok jota, ez».

Jexus Mari

Jexus Marik Fermin taxiraino hurbiltzen ikusi zuen Londresko Heathrow aireportuan, helbidea apuntaturik zeraman papera erakutsi zion taxi gidariari. Baiezkoa egin zuen. Institutuan moldatzeko adina ingeles ikasi bazuen ere, bera behintzat ez zihoan gehiegizko ahaleginik egitera ingelesekin ulertzeko. Ez, ingelesekin ez, gehitu zion garunak gogoari, Harakin ergel horrekin. Ondoan ekarri zuen Bilbotik Londreserako bidaian, isildu gabe, Bazterrekikoak gora eta behera, besteak Bazterren adiskideak ez balira bezala. Eta igual izan ere ez dira, Loiuko aireportuan Harakinek komunera alde egin zuenean Ferminek esan zion moduan.

Ez zekien zergatik zegoen han eta damutzen ari zitzaion, ez Bazterrengatik, ez, Harakinekin bi egun batera pasatu beharragatik baizik. Egonarria eskatu zion bere buruari, Harakinen eta Ferminen artean taxiaren atzeko asentuan eseri zenean.

Susma zezakeen hiriaren bizia adreilu gorriko hormen atzean arnasa hartzen, Urbasa-Andiako erresuma txikia bailitzan, basurde ikaratua, haizea biriketan barneratzen eta ateratzen, barneratzen eta ateratzen.

Iluntzen hasia zen. Karrikak zainak ziruditen trafikoa bideratzen; jende gutxi ageri zen kalean, batzuk-batzuk lepoak jasota etxerako bidean, beste batzuk eskaparateei so errezoan baleude bezala. Emakume beltz bat zerbaiten bila ari zen espaloi ertzean, kumeak galdu zituen zerrama; Harakinek hitz eta pitz jarraitzen zuen ezin aterturik autoek eskaintzen zioten arintasuna pisutuz; Jexus Marik ezkerretara begiratu eta Ferminen silueta leuna ikusi zuen kristalaren kontra leihotik begira Harakinen hitzetatik ihesi. Gero eskubitara eta Harakinen itzala agertu zitzaion, osin iluna hitz alferrez dena estaltzen.

Garai haietaz ari zen, Harakin, Ferminek eta biek ez balekite bezala, garai haietan festak non hara abiatzen ziren. Batean, bada, Harakin eta biak Usurbilgo jaietara abiatu omen ziren; hara ailegaturik, afal garaia zenez, ohartu ziren ez zebilela inor kalean eta sagardotegi batean sartzea

erabaki zuten, Harakin, inoiz ere egona ez zelako; afaldurik zeudenez, postrea bakarrik eskatzea pentsatu zuten: gazta, menbriloa eta intxaurrak; berotu ziren eta txuleta eskatu zuten gero, eta afaltzen ari zirela oharturik, afaria bukatzea pentsatu omen zuten bakailao tortillarekin. Ijili-ajala ari ziren, eta halako batean Bazterrek pagatu gabe alde egitea proposatu zuen; «Ni berehala egon ninduan ados» jarraitu zuen Harakinek.

Adreilu gorriko etxe-baso biziari arnasestua eragin zion Harakinen matrakak. Bera han zegoen, Usurbilen, Harakinek esandako behin hartan, hirurak ziren eta ez Bazter eta Harakin, Harakinek esan bezala, eta berari, Jexus Mariri, bururatu zitzaion sagardotegitik alde egitea, ez zekien zergatik, libertigarria iruditu zitzaion, besterik gabe, proposatu eta Bazterrek berehala eman zuen baiezkoa; Harakin, Harakin izan zen ezezkoan tematu zena, harik eta Bazterrek, batzuetan izaten zuen erradikaltasunarekin alde egiten ez bazuen hark pagatu beharko zuela afaria adierazi zion arte. Harakin izan zen autoa martxan jarri eta besteak sagardotegitik noiz irtengo

zain egon zena. Izerdi tanta bat nabaritu zuen besapetik behera alkandorarainoko bidea egiten. Amorrua hedatu zitzaion bularrean zaldi baten lauhazka bezala, «Honek beti heroi izan behar dik» pentsatu zuen, eta gero gogoeta hori Ferminena litzatekeela bururaturik lotsatu egin zen; Harakinen antzik izan nahi ez bazuen are gutxiago nahi zuen Ferminenik.

«Ergel bat baino ez duk, ergel hutsa».

Egon zen Harakinen matraka unagarriari kontra egitekotan, baina zertarako, erabaki zuen. Auto barneko iluntasun goxoa deserosoa egin zitzaion. «Zertarakoka bota duk bizitza eta igual garaia duk zertarakoak erantzuten hasi eta Harakin ergel horri aurre egiten hasteko», xuxurlatu zion bere baitako ahots ttattarrak.

Zer esanen luke Mirenek? Eta Mariak zer esanen luke amorruak eragin zion gogoeta hari buruz? Arnasa hartu zuen sakon taxiko aire epelegia biriketara barneratuz. Hiriaren gautzeak basotasuna nola hartzen zuen behatzeari ekin zion atzera berriz; zuhaitz eta ilunpeez egindako tunela ziruditen kale gero eta zabalagoek. Auzune erresidentziala. Semaforoan makurturik ikusi

zuen emakumeak abandonu urragarria berritu zion eta beste hiri bateraino, beste gautze bateraino eraman zuen. Autoa hartzera zihoan Iruñetik etxerantz Nafarroako Gobernuko Ingurune Sailak, garai hartan maiztxoegi, antolaturiko bilera batetik bueltan Miren Harakinekin ikusi zuenean. Ezaguna zuen kafetegia, musika lasaiak, jendearen zurrumurru sorrak, argi iragaziek aitortza sakonetara bultzatzen duen Ensancheko kafetegia zen. Beiraduraren ondoan zeuden zigarro bana eskuetan paseanteen begiratuetara adiskide hutsen arteko baino ez zitezkeen keinuetan murgildurik, baina berehala ohartu zen adiskidantza baino zerbait gehiago zegoela buruen elkar hurbiltze hartan. Ez, ez ziren kalean topo egin eta kafe hartzera sartu ziren bi ezagun. Hiria basotasuna galdurik desertu bilakatu zitzaion.

Eutsi egin zion, hala ere, barrunbeek eskatzen zioten bere buruarekiko errukia sentitzeari, aitzitik, gorrotoaren suaren laguntzaz Harakin hartu zuen begitan. Zelatan hasi zitzaion, Harakin kabroia, dena zuen Harakin: Zer egiten zuen Harakinek Mirenekin? Zergatik Miren? Esti eta

Harakinekin Bazterren ostatuan elkartzen zen aldi bakanetan arreta zehatzez erreparatzen zion Estirekiko harremanari, lanari buruzko galderak egiten zizkion, konfirmaziotarako hartu zuen Harakinek lan kontuak omen zirela eta hainbat gau etxetik kanpo egin zituela esan zionean. Miren ez zuen gehiegitan ikusten, noizbehinka Altsasun erosketaren bat egitera joaten zenean, eta orduan gaztetxo bat bezala portatzen zen haren aurrean. Mirenen maitasunaren itzal sai erraldoia. Eta gero Mariarekiko maittaxuna zegoen, kattakume bat bezala, mixmixean.

«Hartuko huen Sarriren poema hura!» bota zion zorrotz Harakinek Fermini.

Ferminek taxitik kanpora jarraitzen zuen adreilu gorrizko etxeen paisaian murgildurik.

Harakinek galdera errepikatu zion mehatxagarri: «Hartuko huen Sarriren poema Bazterren hiletan leitzeko!».

Paisaiatik aldendu zituen begiak Ferminek ez galdera ez tonua gustatzen ez zaionaren bisaiaz.

«This is the place» esan zuen halako batean taxi gidariak atzera bueltaturik.

Hirurak begiratu zuten kanpora: adreilu gorrizko etxe sailak, denak berdinak, tanatorioa izan zitekeen eraikinaren arrastorik ere ez, kalea hutsik eta iluntasunaren harlauza abailtzen.

«Where is the Crematorium?» galdetu zuen Ferminek.

Taxi gidariak kanpora aldera begiratu zuen, gero haiengana.

«Crematorium? This is Honey Road number 21».

«Honey Road...?» galdetu zuen harri eta zur Ferminek.

Animalia lokartua zirudien motorraren durdura entzun zen kale hutsean, taxi-gidariak paperetik bisaietara, bisaietatik paperetara egiten zuen bitartean.

«Tanatorio baten bila ari gara, Hackney kaleko tanatorioaren bila» esan zion Ferminek helbidearen papera eskutik kenduz. «Hackney Road» seinalatu zion Ferminek ia garrasika.

Taxi gidariak OK esan eta taxia abiarazi zuen. Harakinek erlojua seinalatu zion eta berandu gabiltzak esan zuen, haserrea ito nahiak eragin tonu ezaxolegiaz.

Fermin taxi gidariarekin mintzatzen saiatu zen, baina berriz ere OK oihukatu eta bidaiarien eta haren arteko kristala itxi zuen muturra okertuz. OK! Ferminek bi adiskideen elkartasun begirada bilatzen zuela ohatu zen, Jexus Marik kanpoan herrarazi zuen soa, Harakinenak elkartasuna beharrean ogena egotzi zion: «Oraingoan ere egin duk; berandu gabiltzak».

Atzera ere Fermin babes eske ari zitzaiola nabaritu zuen Jexus Marik, baina ezin izan zion ezer eskaini, ez lagun zezakeen ezer, behintzat.

«Nik ongi eman zioat helbidea; galdu izanaren errua nirea izanen duk, beti bezala» erantzun zion Ferminek zital.

Biak isildu ziren kale ilunaren babespean. Hutsik zegoen. Taxi-gidariari erreparatu zion Jexus Marik: lasai zirudien, horrelakoetara, galtzera, aurkitzera, elkar ezin ulertzera, bizitzara, hitz batean erabaki zuen Jexus Marik, erabat ohiturik.

«Badirudi taxi-gidariak badakiela zer egiten ari den» xuxurlatu zuen. Baina hutsean erori zen esandakoa, Fermin eta Harakinek ez baitzioten utzi muturturik zeudeneko keinu nabarmenegiei.

Bost eta erdiak. Ez ziren garaiz ailegatuko. Ordu erdi baino ez zeukaten eta oraindik ez zekiten ez eta non zeuden ere.

«Mandakojones» oihukatu zuen Ferminek.

«Hi arduratu haiz ordu eta lekuekin, eta hemen gabiltzak Londres erdian galdurik».

Auto barnea handitu egin zen Fermin eta Harakinen amorruari leku emateko. Izkina batean zegoen bata, bestean, oso urruti, makina bat baso harantzago, pentsatu zuen Jexus Marik, bestea. Latza zetorrela susmatu zuen eta ez zen kezkatu, aldiz, Harakin eta haren harrokeria, Fermin eta haren ozpinkeriaren kontrako borroka ikuskizuna behatzera prestatu zen libertitu antxean. «Bai, hik agindu besterik ez duk egin. Egintzak hau, egintzak bestea. Dena besteren kontu, eta ongi ateraz geroz hiretako merituak».

«Hara, hasi duk bestea» zuzendu zitzaion Harakin laguntza eske. «Betikoarekin, oraingo gauzei erreparatu beharrean betiko kontuak ateratzen. Orain esanen zidak harroputz hutsa naizela eta ez zekiatnoizgertatutakozerbaitaipatukodik».

Jexus Marik bazekien Ferminek ez zuela gustuko Harakinek norbaitez mintzatzeko beste norbaiti zuzentzeko zuen ohitura, eta amorruaren olatua nabaritu zion auto barne osoa harrapatzen.

«Nitaz ari haizenean hitz egidak niri, kopon» ahoskatu zizkion hitz guztiak Ferminek hotz-hotz.

Ferminek taxi-gidariarengandik banatzen zituen kristala jo zuen. Oihuka mintzatu zitzaion garrasi egiteak ingeles gabeziak berdinduko balitu bezala; taxi-gidariak ero bati bezala begiratu zion, buruarekin baiezko keinuak eginez.

«Hackney, Hackney» errepikatzen zuen taxi-gidariak, Ferminek «We are in hurry»rekin erantzuten zion bitartean. Horrela egon ziren bost bat minutu, harik eta taxi-gidariak ezinegonezko keinu batez kristala kolpe lehor batez itxi zuen arte. Fermin errenditurik etzan zen asentuaren errespaldoaren kontra, iraganeko mamuak bisaian; Harakinen aurrean galtzaile ateratzeak lehertuko ziola pentsatu zuen Jexus Marik.

«Berandu ailegatuko gaituk» esan zuen Harakinek tonu neutroa erabiltzen saiatuz.

Jexus Marik auto barneko oihan gatazkatsua utzi eta ilunpeko kaleen desertu barera egin zuen begiradaz. Zertan okertuko zen Fermin? Honey Road irakurri zuen kalearen bukaeran, eskubi hartu zuten; Moorgate. Erlojuari begiratu zion, seiak hogei gutxi, seietan zen hileta, berandu ailegatuko ziren baina ez zuen ezer aitatu. Honey Road estua Moorgate bilakatua zitzaien. Denden argiek dirdira egiten zuten espaloietan, jendea ikusi zuen hara-honaka; gelditurik zeuden semaforoaren ondoan hiru mutiko elkar joka ari ziren, «txantxetan» pentsatu zuen, kristaletako lurrunak irudia ezabatzen zion bitartean. Txantxetan, zergatik txantxetan? Seguru aski bat edo bat sufritzen ariko zen besteak txantxetan ala seriotan egindakoagatik. Bizitza, nonahi ere, beti da berdin, sufrimenduaren laiotza pozaren erraietan.

«Berandu ailegatuko gaituk» errepikatu zuen berriz ere Harakinek.

Putakumea marmaratzen entzun zuen Fermin, Harakinek ez aditzeko moduan.

«Zer ordutan zuan hileta, Fermin, seietan, ezta?».

Fermin zipitzik erantzutera ere ez zihoala, «Seietan, bai» esan zuen Jexus Marik.

«Ez gaituk ailegatuko» Harakinek.

«Mekaguendios, ez gaituk ailegatuko eta zer? Hik egin duanarengatik balitz oraindik Euskal Herrian egongo gintuzkek putakume halakoa».

Senetik aterata zegoen. Garrasiak entzutean taxi-gidariak balazta egin eta atzera begiratu zuen. Kontua harekin ez zihoala ohartzean aurrera jarraitu zuen. Erantzunaren neurrigabeak unaturik utzi zuen Harakin, eta leihotik begira gelditu zen lehendabizikoz. Ferminek lotsaturik ematen zuen, begiak xor bere baitan bildurik.

Kingsland Road, Sunston Road, Regend`s row, Martello Street, Hackney London Field. Parke bat.

«Hackney» esan zuen taxi-gidariak, «no Honey; the crematorium is inside the park».

Fermini begira gelditu zitzaion taxi-gidaria, esana ulertuagatik ere autotik jaisteko haren baimena beharko balu bezala. Atzetik jaitsi zen Harakin oraindik muturturik. Seiak eta hogei ikusi zuen Mariak oparitu zion erlojuan. Berandu, beharbada hileta bukaturik eta guzti izanen zen.

Parkean bakoitza bere aldetik etorritako hiru ezezagun balira bezala barneratu baziren ere, berehala gelditu eta bilatu zuten elkarren laguntza tanatorioa, crematoriuma taxi-gidariak esan zuen bezala, non ote zitekeen elkarri keinu ia nabariezinez itaunka. Zuhaitzak baino ez ziren ageri, Indi gaztainak eta zumar batzuk.

Bidean abiatu ziren ilunpe eta zumardian barna. Erdi lantegi erdi bulego eraikin itxurako hark behar zuen.

«Eraikin ederra tanatorioa izateko».

«Horrek ezin dik tanatorioa izan» erantzun zion Harakinek. »Seguru leku egokira ekarri gaituela?» bota zuen hitzetik hortzera.

Adreilu gorriz eta beiraz egindako eraikina zen, teilatua laua eta zurajea aluminiozkoa. Mende hasierako lantegia zirudien.

«Honek ezin dik tanatorioa izan; ez gaitik leku egokira ekarri» bota zion Harakinek Jexus Mariri.

Ferminek ez zion kasurik batere egin eta eraikineko kristalezko atetik barneratu zen, atarian zegoen neska bati panfleto bat hartzen ziola.

Harakin buruari eraginez atzetik jarraitu zitzaion. Jexus Mari parkearen oparotasunari so gelditu zen atarian une batez. Haize kirri freskoak birikak garbitu zizkion. Bakarrik zegoen. Iluntzea entzuteak lasaitu egin zuen. Hurre nabaritu zen trafikoaren burrunba sorra. Bazter! Beti izan zen tipo berezia. Bereziegia Herriko bizimodurako.

Atezainaren argibideei jarraiki zortzigarren aretora ailegatu zen. Burdinazko ate herdoildua bultzaturik kristalezko horma zuen aretoan barneratu zen. Asentu lerroak, oholtza bat. Aho zabalik zeuden Fermin eta Harakin, loreak atontzen ari zen trabesti bati begira. Handiegia suduurra, handiegiak ezpainak, handiegiak sorbaldak, handiegiak oinak eta, batez ere, handiegiak lore sortatik sortara zebiltzan eskuak.

«Hello darlings».

«Hello, we are Bazter`s friends».

«Sorry, Carlos».

«Oi basque, basque» esan zuen takoi tzarren gainean kinkilin-kankalan gerturatzen zitzaiela.

Ti-ti-ti egin zion telefonoak sakelan. «Bai» esan zuen Jexus Marik. «A, Maria» esan zuen deiaren desegokia estali ezin zuen tonuan.

Marck

Azken hilabeteetako gorabeherek meheturiko Marck bat sartu zen Crematoriumeko zortzigarren aretoan. Aurpegia zurbiltzen zion zeraman traje beltzak, beltzegiak, beharbada.

Ike, the fucking Ike, ikusi zuen ezagutzen ez zituen hiru lagunekin. «Basque» pentsatu zuen Carlos ezagutu zueneko eguna gogoratuz. Janzkera berdina, jarrera berdina, atzerrian izateak eransten duen halako noraeza berdina. Carlosen lagunak behar zuten.

Altua goapoa zen, zerbait animalia zuen, basa nahi bada; Ikek zioenari arreta paraturik, nabarmen ageri zen munduan ongi kokaturik zegoela, eta Carlosek behin esandakoa etorri zitzaion burura: «Mundua haren neurrira egina dagoela ematen du harakinak», izan ere, akordatzen baitzen Carlosen lagunetako bat harakina zela, txantxa ere egina baitzuten harakinen erotikotasunari buruz. Hura behar zuen harakina, munduaren aurrean egoki kokaturikoa. Beste biak lausoagoak egin zitzaizkion: bata bizkarra

makurtu xamarra, munduaren zama gainean eramatera kondenaturik bailegoen, aurpegi atseginekoa, irribarrez ari zitzaion Ikeri; besteak kanpo zirudien, elkarrizketa harekin zer ikusirik ez zeukala aditzera eman nahiak txundidura eta burlaren arteko keinua eragin zion bisaian.

Eta Ike, jakina, Barbara Cartland putaz trabestiturik. Carlosekin egindako fucking apustua. Baina Ikerekin ezin zen, erabakita bazuen erabakita zuen, eta bost axola hari erabaki horrekin mundua suntsitzen bazen ere. Ike bestea, Ike Carlosen sexualitatea benetan kilikatzen zuena?

«Hello, Marck» altxatu zion besoa Ikek garrasi histrioniko eta emea ahoan. Apustua. Bestea. Hala ere ez zuen apusturik behar izanen horrela janzteko, ia astebururo egiten baitzuen; La Escuelita izeneko pub gay batean kabaret baten antzeko ikuskizuna antzezten zuen, ez horren, ez horren... aritu zen Marck hitzaren bila... ez horren atso, ordea. Beharbada atso xaharko eta cartlandki janzte hura, nahiz eta Marckek ez ulertu nola, apustua irabazi zueneko seinale bainoago amodio frogantza zen, edo biak batera.

«Ni hilko naiz lehendabizi» esan zuen Ikek berez dramatikoa zen egoera espantuka azpimarratuz. Igandero bezala Carlosen pubean zeuden lagun guztiak, Carlos, Ike, Sydney, Sean, larunbatean gertatua, ligeak, larru jotzeak, partyak, Ikeren ikuskizuna La Escuelitan errepasatzen, nahiz eta gero eta gutxiago eduki errepasatzeko, gero eta gutxiago ateratzen zirelako, gero eta gauza gutxiago eskatzen zizkiotelako bizitzari. Aspaldi zen pintarik ez zutela edaten, gehienez ere halfpintak, edo errefreskoak, eta tea, The Lovely Lad, Carlos eta Seanen puba, izanen baitzen tea zerbitzatzen zuen Londresko pub bakarra. Carlos kandela garraren gisa ahitzen hasia zen; Ikek, aldiz, fenix hegaztia zirudien berriro ere, hiesaren errautsetatik hil eta sortu. Horregatik okertu zitzaion muturra Marcki Carlosek apustu ergel hartarako desafioa egin zionean Ikeri, ez apustuak Carlos kilikatzen zuelakoz, baizik eta Marcken kontra bidenabarrean, parean egoteagatik, eta berariaz, pareegian egoteagatik, akaso, mendekatu nahi zuelakoz. Beharbada orduantxe hasi zen haien artekoa, apustuak haien

artean sortuko zuen kidetasun intimo harengatik.

«Neroni hilko nauk lehendabizi» esan zuen Carlosek irribarre ezindua ezpainetan.

Ikeren amore ez eman nahiak are gehiago amorratu zuen Marck, eta Carlosen jolasgura piztu.

«Ez, neroni».

«Ez, Ike, neroni hilko nauk lehendabizi».

Ikek beste oihu histrioniko bat egin zuen, eskua Hollywoodeko izarren gisa bekokira eramanez.

«Apustu bat eginen diagu?» tentatu zuen Carlosek, Marcken erreakzioa zeharka zaintzen zuela. «Lehendabizi hiltzen denak bestearen hiletara trabestiturik joan beharko du».

Marckek gustuko ez zuen egoeretan egin ohi zuena egin zuen, hausten saiatu, alegia, ezer entzun ez balu bezala egin.

«Nork nahi du zerbeza gehiago?».

Carlosek muturra okertu zuen Marcken erreakzio txepelaz etsirik.

«Apustu bat eginen dugu» errepikatu zuen, hitzak ongi ahoskatzearekin bat ingelesez izaten

zuen erdipurdiko azentua hobetuz. «Lehendabizi hiltzen denak bestearen hiletara trabestitutik joan beharko du»

Marckek buruari eraginez barra aldera alde egin zuen, nahiz eta inortxok ere pinta bakarra eskatu ez.

«Zertan dabil» galdetu zion Seanek.

«Ezin dut eraman, senetik ateratzen nau» bota zion Marckek barran bermaturik.

Ike, bere bizitza eta heriotzari buruz besterena balitz bezala modu histrionikoan mintzatzera ohiturik, harri eta zur gelditu zen. Taldetik kanpora paratu zituzten denek begiak, «Laguntza handik etortzea esperatuko balute bezala» horrelakoetan Carlosek esaten zuen bezala. «Definitively, direna direla, espainol ala basque, ez dira gu bezalakoak» pentsatu zuen Marckek hego aldeko herrien dramatikotasun gehiegizkoa gogoan. Isiltasun deseroso batek hartu zituen, izan ere, ohiturik zeuden Ikeren heriotzari buruzko komentario lekuz kanpoko bezain barregarriak entzutera, susmatzen baitzuten sekula ez zela hilko, edo behintzat, ez haiek baino askoz lehenago, baina Carlosi horrelakorik inoiz ez en-

tzun izanak azpimarratu egin zituen larruan, begietan, senean nabaritzen zitzaizkion eritasunaren arrasto goseak.

«OK. Heriotzaren kerida izanen naiz» esan zion Ikek harriduratik bere baitara etorri ostean.

«Zer ergelkeria hileta batera trabestiturik etorri beharra». Gau hartan kristorena izan zuten Carlosek eta biak, Marckek heriotzaz espektakulua egiten ari zela aurpegiratu baitzion, eta Carlosi ez zitzaion batere gustatu; *the evil basque character* sutu zitzaiola egotzi zion Marckek Carlosi.

«Ergelkeriak» egin zion arrapostu Carlosek. «Ez nuke zure sen ingelesari buruz hitz egin nahi».

Horrelakoetan behin baino gehiagotan esandakoa berritzea otu zitzaion Carlosi, alegia, ez zela herriei zegokion senik, senak, izatera, banakoarenak zirela, bizimoduak, paisaiak, gizarteak zizelkatuak baina banakoarenak; hala ere ez zion ezer esan, maiz, haserreen zegoena, bestearekin berriz ere lo eginen ez zuela adierazi nahian edo, gonbidatuen gelako bidea hartu eta danbateko lehorra joz bertan giltzapetzen zen,

kisketa ixteko soinu nabarmenak, nabarmenegiak, eginez.

Marck ohean sartu eta esna egon zen denbora luzean; bazekien Carlos ere berdin egonen zela eritasunarena jakin zutenetik gehiegitan errepikatu zuten posturan, ahoz gora, zurrun, burusi eta maindireak kokospean bildurik; eri zegoela jakin zuten egun hartan ere, akordatuko zen Marck, «the evil basque character» atera zitzaion, laztantzeko-edo inguratu zitzaion aldi orotan errefusatu egin baitzuen, inolako laguntzarik nahi ez balu bezala.

Carlosen lagunak aurrean zituela, jada erremediorik ez zegoenean zetorkion ikasgaia, harena izandako mundua ezagutzea. Behin baino gehiagotan eskatu zion hegazkinez ordubetera zegoen gaztaro, amets, iraultza-nahi, jakin-min pizgarri toki hartara eraman zezan, baina «Zertarako joan nahi duzu hara!?» erantzuten zion. Hasieran gogorra egin zitzaion; ez zuela maite erabaki zuen lehendabizi, gero maite zuela ebatzirik, alegia, bikoteari eskatzen zaizkion ahalegin eta morrontzak ematen zizkiola ikusirik, ezkutatzeko zer edo zer zuela otu zitzaion, konpon-

du gabeko zerbait utzi zuela atzean, konpartitu ezinezko zerbait larria, izugarria, beharbada. Bolada batez eman zion matraka horrekin, baina Carlosek barrea baino ez zion erantzuten. «Ikaragarria» erabakiko zuen Marckek «bikoteen artean dauden komunikazio gabezi eremuak, eta nola ikasten den eremu horien mugetatik hanka puntetan pasatuz elkar bizitzen», Carlosek ezkutatzeko zerbait utzi zuelakoa fantasiatarako joz.

Eta halako batean ahantzi egin zitzaion Carlos Londreskoa ez beste nonbaitekoa izan zitekeenik, salbu eta batzuetan maskor baten antzera hertsi eta euskal sen gaiztoak jotzen zuenean.

Ikek aurkeztu zizkion. «Sorry, ez naiz zuen izenekin akordatzen» barre artean, izenez ez akordatzearekin egundoko bekatua egin balu bezala espantuak eginez. Bostek egin zuten barre. Ikek, berak ematen ez zion umoreaz, eta beharbada bizipozaz, kutsatuko zuela Carlos onartzera behartu behar izan bere burua Marckek.

«Hau Marck da» bukatu zuen Ikek, izenari ezer erantsi gabe. Marckek bere horretan uztea

erabaki zuen, «Carlosen nobioa» ez gehitzea, beharbada, Ikeri buruz, «Carlosen... zera» gehitu beharko zuelakoz atzetik.

Isiltasuna ezarri zitzaien tartean. «Histrionikoa balitz ere, orain beharko genuke Ikeren ergelkerietako bat» pentsatu zuen Marckek, baina Ike ere isilik zegoen leiho handitik harantzago ageri ziren zumar eta Indi gaztainei begira; «Handik zer edo zer esperatuko balute bezala» zeharkatu zion garuna Carlosen esanak Marcki.

«Ikaragarria izan da» bota zuen Ferminek isiltasun harekin asaldaturik.

«O bai!» Ikek Marcki.

Marck nekaturik zegoen, hilabeteak zeramatzan borrokan Carlosen minbiziaren aurka, Carlosen depresio aldien aurka, Carlos beraren aurka, medikuen aurka, bere buruaren aurka, eta atsedena nahi zuen. Ezagutzen ez zituen lagun batzuen deserosotasun aldia arintzeko ahaleginik ez zuen egin nahi; isildu baino ez zuen nahi, ikusle huts izan. Berak ere kanpoaldean bilatu zuen aisia, leihotik harantz, ilunpeetan itzalen modura mugitzen ziren zumarretara. Hilik dago, kitto.

Ondoren suzko erresumina nabaritu zuen erraietan ezezka. Ez dago hilik, ez da kitto.

Begiak taldera bildu zituen. Isiltasunak ezarririk segitzen zuen. Altuenaren hankaren tataka sumatu zuen.

«Zer moduz bidaia?» galdetu zuen, hitz haiekin Ike bera ere aisatzen zela nabarituz. Ike, isiltasunari ikara zion kalakaria, Ike histrionikoa, Ike lapurra, Ike min egin ziona, Ike adiskide zuena.

«Ongi» erantzun zuen harakinak.

Isiltasuna egin zen berriro eta Marcki arnasa eten zitzaion une batez. Hildura nabaritu zuen hanketatik gora igotzen, nekea munduarekiko goragalea egin arte.

«Oso azkarra izan da» gehitu zuen bizkarra zertxobait makurturik zeukanak.

Eskoliosia bururatu zitzaion Marcki, masajista lanbideak aginduta.

«Ordu betean hemen geunden. Zur eta lur gelditu ginen enteratu ginenean. Ez genekien gaixorik zegoela ere».

«Nik bai» esan zuen harakinak.

Hori entzutean eskoliosidunak harriturik begiratu zion eta hirugarrenaren laguntza bilatu

zuen, baina hirugarrenak zumarretara galdu zituen begiak.

«Ez nekian bahekienik».

Marckek zerbait susmatu zuen, zer gertatzen zen oso ongi ez bazekien ere; ordura arte ingurune ezezagunak modu naturalean osatu zuen taldea, hautsita zegoen, bakoitza bere kabuz etorri izan balitz bezala. Gorputzak tenkatzen nabaritu zituen batez ere eskoliosidunarenak eta harakinarenak. Hirugarrena, «Toilets» kartelari begia eman ondoren, komunetara abiatu zen.

«Jakin ala ez jakin» berritu zitzaion Marcki, Carlosi beste norbaitekin ba ote zebilen dardara betean itaundu zionean bezala. Jakin ala ez jakin.

«Hik ez hekien Carlos gaixorik zegoela. Hik ez duk izan Carlosen berririk azkeneko urtetan» ebaki zuen Ferminek hotz ahotsaren bolumena neurtuz.

Marckek Harakin etxeko trapu zikinak etxean garbitu-ez-garbitu susmatu zuen.

«Iaz egondu ninduan Carlosekin, hemen Londresen bertan; ederki asko dakik».

«Bai, egonen hintzen, baina hik ez hekien gaixo zegoela. Ez daukak lagun minak iraun duguneko adarrera eman beharrik. Carlos hona etorri zuan eta harrezkero galdu egin genian kontaktua, nik behintzat bai, eta uste diat hik ere baietz».

Harakinek beste batean argituko zutela aditzera eman nahi zuen keinu iheskor bat egin zuen eskuarekin.

«O basque! Zuek beti borrokan» tentatu zituen Ikek.

Marcki Carlos ezagutu zuenekora itzulipurdikatu zitzaion gogoa, azken boladan sarritan bezala; London Fieldsko Crematorium inguruko hilerri zaharra udako arratsalde hartan, jada hamabost urte, eta Carlos hilik; orduan arratsaldero ateratzen zen zerara, gaztaroa gauza ederra da, ederregia galdu ondoren haren minez ez gelditzeko; bizitzak aldrebes beharko luke, zahar jaio eta haurtzarora hurbildutakoan, ustekabean hil. Kitto. Behin esan zion Carlosi, eta aitatu zion euskaraz bazela horrelakorik modu ironikoan azaltzen zuen atsotitzik: haur jaio eta haur hil. Euskal kulturak argitasun gehiegizkoaren anke-

rrean oinarrituriko kultura beharko zuela egin zion arrapostu, baina Carlosek barre egin zuen, Euskal Herriaz mintzatu nahi zuela sumatzen zionetan egiten zion moduan.

Gizonak ibilian ari ziren edo Indi gaztainen enborren edo harlauza erdi erorien atzean babesten ziren elkarri zelatan. Sekretu-espioitza aireak nabarmen desberdinarazten zituen lehiatsu antzean parkea zeharkatzen zuten paseanteetatik. Ez daki zergatik baina ama bat gogoratzen du auto-kapota arrosa batekin. Beti harritu zuen Londresko parkeetan nola nahasten ziren yard gutxitako tartean likitsa eta aingeruzkoa, edo, Ikek zuzentzen zion bezala, normaltasuna eta normaltasunak ezkutatzen duena, normaltasunaz baliatzen baitziren zeratzera zihoazenak ere.

Hasieran ez zitzaion gustatu. *Country-boytasunak* erakarri zuen batez ere, baina gero, etxerantz abiatu eta sofan larrua jo ondoren hizketan hasi zirenean, bazekien zerbait ukitu ziola, jakinminaren soka esaten zaiona, amodio guztien korapiloa.

«Jakin ala ez jakin, gaixo ala ez gaixo, orain, zoritxarrez, hilik dago» erabaki zuen Ikek, bi eskuak aldaketatik behera jaitsiz.

«Hara gure gizonttoa! Gure emakume tzarra!» seinalatu zuen Ikek aterantz.

Sean, ohi legez leatherrez jantzita, eta Sydney ilajea gorriturik eta beltzez.

«Irakurri duzue panfleto hau?» erakutsi zuen Sydneyk larriturik.

Fermin

Donostian Psikologiako lehendabiziko urtea ikastetik ailegatu eta ordu garreneko kanpoan zen Fermin aitarekin kristorena izan ondoren. Kabrona alaen kabrona. Ezertarako fundamendurik ez duen fatxa nazkagarria. Ferminen aita Paulo ez zegoen konforme, hark esaten zuen bezala, semea «politikan sartu» izanarekin eta liskarraren gainean liskarra zerabilten azken boladan, ama Jexusa negarrez urtzen zen bitartean. Politikan sartu?! Alkoholetan sartuko ez balitz sikiera! Eta Fermini gogora etorri zitzaizkion aita bero-bero eginik agertzen zen aldi guztiak, kanpoan ez zuen itzala eta autoritatea etxean modu zakarrean ezarri nahian. Anaiak eta berak ihes egiten zuten, eta ama uzten zuten bakarrik aitaren haserrearen itu bakar.

Eliza paretik pasatzean erori egin zitzaion koadrilakoei erakutsi nahi zien Hertzainak-en azken kasetea: «Hau dena aldatu nahi nuke», Bazterri-eta aditzeko agindu ziena. «Bihar joko dute hemen».

Plataneroen artetik karrika hutsean behera jaitsi zen Bazterretxea Tabernako bidean.

Han zeuden. Bazter barraren atzealdean, muslari parrokiano bakanei, Manolo, Felipe eta abar, herritar labeldun gorrotagarri bezain ekidinezinak, patarra ateratzen. Harakin eta Jexus Mari, zerbeza eskuan, ezkutuan porroa erretzen. Aitak jakinen balu porroa erretzen zuela! Tontamentean hasi ziren erretzen Altsasuko Institutuan eta orain denek erretzen zuten, baita Ezker Abertzaleko hainbat erakundetan militatzera bultzatu zituzten koadrila adintsuagokoek ere.

Indarrak biltzen aritu zen une batez atarian, beldurraren antzeko bat sortzen zitzaion herriko tabernetan sartzean, jendea, bere lagunengandik hasita, edozein gauza esateko gauza baitzen, «niri edozein gauza esateko gauza, ez beste batzuei». Arnasa hartu eta ateko maratilari eraginez sartu zen Bazterretxea tabernara.

Oharkabean pasa nahiz urratsak axkar-axkar eman zituen. Taberna erdian zegoela, hala ere, atzetik etorri zitzaizkion Manolo nazkantearen hitzak: «Fermin Iraizoz, Malakatenekoa, Fermin Iraizozen semea edo».

Nola zitekeen horrelako tipo nazkagarriarekin militatzen aritzea? Ez zuten bada iraultza egin nahi? Eta iraultza ez ote zen errukitik hasten? Ondoan zeneukan jendearekin hobe izatetik? Zerorren burua aldatzetik?

Herri Batasunaren bilera baten ondoren Manolo aitortzarako gogoz nola inguratu zitzaion akordatu zen Fermin. Andregaiak utzi berria zuen, eta triste zegoela aipatu zion mila zerbeza edan ondoren. Negarra ere egin zion etxeko atarian utzi aurretik. Ferminek ordutik aurrera lagunak izanen zirela uste izan zuen, baina kia, Manolok betikoan jarraitu zuen, aitortza hura inoiz gertatu ez balitz bezala.

Barre algaraka lehertu ziren muslariak eta haien inguruan putreen gisa begira ari zirenak.

Izerdi hotz batek hartu zuen Fermin. Gero lotsari ihes egin nahian arrapaladan egin zituen Harakin eta Jexus Mari bitarteko metro gutxiak.

«Hara hemen diagu gure ñoñostiarra» batekin hartu zuen Harakinek.

«Gabon» erantzun zuen, zamarra kentzeko keinu nabarmenegiekin lotsa ezkutatu nahiko balu bezala.

«Zer berri zegok kapitalean?» eraso zion berriz ere Harakinek burloso.

Fermin ezer ezin esanik gelditu zen eta Jexus Mariri begiratu zion laguntza bila. Jexus Marik haxixaren urruntasunetik egin zion so laguntza ezin eskainirik.

Bazterren bila itzuli zelarik «gure ñoñostiarra» entzun zuen, oraingoan Jexus Mariren ahotik.

«Hi zer haiz, putakumea edo?!» bota zion Jexus Mariri.

Zur gelditu zen Jexus Mari, erantzunaren bortitzari ezin kara emanez.

«Jode, gaizto etorri haiz» ebaki zuen Harakinek. «Gaizto etorri duk gure ñoñostiarra» zuzendu zitzaion Jexus Mariri.

«Zer nahi duk» galdetu zion gero Fermini, «moztua?».

Ferminen erantzuna esperatu gabe Bazterri hots egin eta moztua eskatu zion, Ferminen nahien jakinaren gainean balego edo inportako ez balute bezala.

Lelotu aurpegia paratuz ezkutatu zuen Ferminek barnean irakiten zeukan erresumina. «Ño-

ñostiarra, nazkatzen hasia nago, kuanto delitua egin dudala ikastera joatearekin» esan zuen bere baitarako.

«Moztua ez, kafesnea, mesedez, kafe gutxi eta esne epelarekin» agindu zion xuxurlo batez Bazterri.

«Zein txanda tokatu zaiguk bihar, Harakin?».

Herri Batasunarendako dirua lortzeko jaialdia antolatu zuten Herrian eta barretan txandak egiterakoan elkarrekin egon zitezen eskatu zuen Ferminek aurreko astean..

«Hiri, azkena» barre egin zion Harakinek, «guri azken aurrekoa, eta horrela jaialdia ikusi ahal izanen diagu».

Bazterri eta Jexus Mariri begiratu zien. Irribarrea zuten ahoan.

«Zergatik?».

«Hala suertatu duk».

Kafesnearen dirua utzi eta atarira abiatu zen adiskideak atzean utzirik. Etxeko atarian sakelan nabaritu zuen Hertzainak-en kasetea. Izorra daitezela, putakume alaenak.

Fermin etxeko ganbaratxoan aritu zen goiz osoa pankarta bat egiten. «Seguru inork ez duela gogoan izan». Harritu egin nahi zituen. Aitak hots egin zion behin baino gehiagotan jorrara joateko, baina ez adituarena egin zion.

«Istilua izanen duzue» esan zion amak ganbaratxora igo zenetako aldi batean, »zoaz laguntzera».

Ferminek ez zion kasurik egin, ordea.

«Zertan ari zara?» galdetu zion amak. «Jesus, jesus denak eramanen zaituztete kartzelara» aienatu zitzaion aitarenka.

«Ama ez esan txorakeriarik».

«Bai, ez esan txorakeriarik. Zuen aitona ere horrela eraman nahi izandu zuten».

Ferminek esku keinu batekin uxatu zuen ama eta plastiko zuria margotzen jarraitu zuen.

Bazkaldu ondoren, aurreko egunekoak ahazturik, Bazter Tabernara abiatu zen pankarta poltsa batean sarturik.

Hantxe zeuden gau osoa lekutik mugitu gabe pasa izan balute bezala. Harakin eta Jexus Mari barratik kanpoaldera eta Bazter parrokiano bakanei kafeak ateratzen.

«Zer, pasatu zaik atzokoa?» bota zion ohi bezala burloso Harakinek.

Fermin ez zegoen haserretzeko prest, akaso bazekielako orduan ere galtzaile aterako zela.

Kafesnea eskatu zion Bazterri.

«Noiz gelditu zarete eszenatokia muntatzeko?

«Orain» erantzun zion Jexus Marik nekez bezala.

«Atzokoagatik mindurik dago beharbada». Begiak bilatu zizkion Ferminek Jexus Mariri, baina ihes egin zion begiradari, ustez estalian erretzen ari zen porroaren ke lodiaren atzean ezkutatuz.

Dena begietara ez begiratzeagatik. Aliziak haren koadrilako jendeak elkarri begietara so egiten ez ziola ohartarazi izana errebelazio baten gisakoa iruditu zitzaion. Koadrilako harremanak hobetzeari buruz, ez ziren ari bada iraultza egin nahian?, ez ote zen iraultza banakoaren arteko hartu-emanak hobetzea?, iruzkinak egiten hasten zenean ñoñostiar izenondoari psikollogo abizenak segitzen zion, Harakinen ahotik batez ere.

Isiltzea deliberatu zuen eta kafesneari heldu zion.

Fermin barrakaren barran zegoen Gariren mutilak igo zirenean; bera zen Lekunberri Aranaztik zegoen bakarra. «Ongi ez dakidan zein zigorrengatik». Urrutitik ikusten zuen Gari oholtza gainean mugi eta mugi. Buruz zekizkien kantak, baita azken diskokoak ere, eta erdi zerbitzatu erdi begiratu aritu zen, amorraturik batzuetan, azken txanda tokatu zitzaiola ahazturik bestetan. «Makurrena da nahita egin duela, Harakin kabroi horrek, edo nahita egin dutela Jexus Mari barne. Eta Bazter».

Plaza inguruko etxeetako pertsianak jaitsita zeuden, aldamenek aurrez erabaki gabeko protestaren seinale beharbada; herriko jendeak ez zuen batere ongi hartu jaialdia egitea, Udalak bereak eta bi egin zituen oztopatzeko, baina azkenean ez zen ausartu Guardia Zibilari hots egin eta jaialdia debekatzera; gizonek hilabete osoan erabili zuten gaia tabernetako elkarrizketetan, herria drogadikto, marikoi eta politikeroz beteko zitzaiela eta zerbait egin behar zela eta egin behar zela, azkenean, hala ere, tabernetako

hautsak baino ez zituzten harrotu; emakumeek besterik ez zuten dendetan baina, kontra egitea gizonen kontua zenez, bere horretan utzi zuten, apokalipsia zetorrelako adakerarekin. Honengatik guztiagatik Ferminek inguruko etxeetako pertsianetara begiratzean, lepo eginen zuen pertsianen atzetik begira ari zirela, txutxumutxuan, Fermin bera, Harakin, Bazter, Manolo, Felipe, Esti eta abarren familien autoritate eta fundamentu eza ahotan harturik. Fermin eta Miren Bakaikukoa baino ez zeuden tabernan. Edariak ia agorturik zeuden, ez zegoen koka-kolarik kalimotxoak egiteko, kañetako upelak hutsik zeuden, freskagarriak bukaturik; ardoa eta zenbait pattar baino ez zitzaien gelditzen, eta horixe esaten zioten barra aldera hurbiltzen zen jendeari.

«Aizak, bi zerbeza!» eskatu zion barraren bestaldetik Manolo eta Feliperekin zegoen gizonkote musugorri batek.

Miren asaldaturik etorri zitzaion: «Handi hori ez dakik nor den?!».

«Ezaguna egiten zaidan baina...».

«Azkunde duk, Herri Batasunako mahai nazionalekoa» esan zuen.

Fermin gerturatu eta zerbezarik ez zegoela esan zien.

«Nola ez dagoela zerbezarik?! Izanen duzue baten bat ezkutaturik guretako».

Manolok eta Felipek, lehenago zerbitzatzen egonak zirenez, afera argituko ziotelakoan esperatu zuen Ferminek. Haien begiradak bilatu zituen, baina ihes egin zioten. «Hau laostia duk» pentsatu zuen Ferminek bere baitarako.

«Barkatu» erantzun zion Ferminek barkatu hitza testuinguru hari ez zegokiola oharturik, «ez zaigu ia ezer gelditzen, nahi baduzu pattarra daukazu edo...».

«Mekagoenlaputa» ebaki zuen, «ze ostiaren antolaketa da, dagoeneko dena amaitu baldin bazaizue! Gero ere» zuzendu zitzaion Manolo eta Feliperi «milioiak bilduko dituzue HBrentzat. Notejode».

Buelta hartu eta espantuka alde egin zuen, Fermini zer edo zer gaizki egin zuelako zartakoa gorputz osoan hedatzen zitzaion bitartean. Atzetik jarraitu zitzaizkion besteak Fermini begirada

trixte bat ere eskaini gabe. Miren hurbildu zitzaion gero.

«Zer esan dik, zer esan dik?!» galdetu zion haur bat bailitzan algaraka.

«Mekagoenlaputa» erretxindu zen, «mekagoenlaputa esan zidan zerbezarik ez genuelakoz, eta gero fi eta fu hasi dun».

«Ba, hi beti igual» egin zion arrapostu, eta barraren bestaldera egin zuen zerbezarik eta kalimotxorik ez zutelako azalpenak ematera.

Ferminen garunak ergeldurik zirudien, «hi beti igual, hi beti igual» leloari jira eta bira. Norbaiti egokia ez zen zerbait esaten zion aldiro beste lelorik ez zuen entzuten. Bazirudien hitza bera ere kendua ziotela, horren zuen entzute gutxi. Donostian, ordea, aintzat hartzen zuten, eta ez zen Lekunberrin bezala koadrilako ergela, «Izateko, direna direla, ergel bat behar duten jendearen artean» Aliziak esanen zion bezala.

Jaialdia bukatu zenerako barrara azken hurbildutakoek zabaldua zuten edaririk ez zegoeneko berria; gainontzeko herriko tabernak itxiak zeudenez, berehala Altsasu aldera jo zuen jen-

deak, txupa beltzak eta ile tenteak autoetan desagertuz.

Harakin agertu zen tabernako barran Bazter, Jexus Mari eta Estirekin.

«Ez zegok ezer, gaizki kalkulatu diagu» bota zion Ferminek etorri berriei.

«Ongi atera duk».

«Bai, ba Azkunde horrek kristorenak esan zizkidak» saiatu zen Fermin ahalik eta ahots neutroenez.

«Azkundek?!» harritu zitzaizkion Jexus Mari eta Harakin, «ez diat uste, oso gizon jatorra duk, iruditu egingo zitzaian».

Ferminek ezer gehiago ez esatea deliberatu zuen. «Argi zegok esaten dudana esanda ez didatela sinetsiko».

Barraka jasotzen hasi ziren; Fermin botila hutsak kaxetan sartzen ari zen. Biltzeko, beti bezala, betikoak.

Harakinek aitaren traktorea ekarri zuen oholak, barrak, kaxa hutsak garraiatzeko. Jexus Marik lurreko poltsa gorria seinalatu zuen.

«Eta zer duk hau?».

Denek begiratu zuten Jexus Marik seinalaturikora.

«Nirea duk» hurbildu zen Fermin. «azkenean ezin izandu diat paratu».

«Baina zer duk?» galdetu zion Bazterrek, poltsa gorria eskutik kentzen saiatzen zen bitartean.

«Ezer ez».

«Ez diguk ikusten utziko?» Jexus Marik.

Fermin isilik gelditu zen poltsa gorria tolestua besarkaturik traktore erdi beteari so.

«Tira, mutikoa; gainera bazekiagu zer den, edo zer izan daitekeen, behintzat» Harakinek.

Ferminek amore eman zuen. Poltsa laxatu eta lurrera erori zen hots gor bat eginez.

Harakinek hartu, plastiko zuri bat atera eta zabaltzen hasi zen.

«Pankarta bat!» harritu zen Esti. «Zuk egin duzu?!».

Ferminek baiezko keinua egin zion Estiri.

Harakin eta Bazter pankarta zabaltzen ari ziren lurrean.

«Gora...» irakurri zuen Harakinek, Bazterrek destolesten segitzen zuen bitartean.

«Gora Iraultza...»

«Gora Iraultza Sexuala!».

«Gora iraultza sexuala!».

Bazterri begiratu zion Harakinek, gero Jexus Mariri, eta barrezka hasi ziren.

«Gure ñoñostiarra» bota zuen Harakinek barrezka.

«Ergela alaen ergela» erabaki zuen Bazterrek.

Marck

Gabeziak sortu saminetik gogoratu zuen Marckek Carlos ezagutu zuen gaua. Erosi berria zuen sofa gorrian, gorriegian, eserarazi zuen etxera eraman zuen iluntze hartan. Marcki gorputzak bat-batekotasunez eragiten zion pasioaz gain, Carlosek halako xamurtasun beroa sortu zion, deslai eta bakarrik ikusten zuelakoz, hirian galdutako *country boy*-a, eta *country boy*-ak beti izan zituen gustuko, bereaz bestelako bizimodu hark, beti jende bertsuaren artean egote hark, jakin-mina pizten ziolakoz.

«Eta zu noiz ohartu zinen» galdetu zion Marckek Carlosi, bi homosexualek intimatzen dutenean egin ohi dutena eginez.

«Noiz ohartu nintzen zertaz?».

Erantzunarekin berehala ohartu zen Marck *country boy*-a izateaz gainera armairutik atera gabea ere bazela, eta izutu egin zen, armairutik ateragabekorik ez zuelakoz nahi, halakoxea izan zuelakoz aurreko nobioa eta arazo pila eman zizkiolakoz. Armairuan dagoen batekin maitemin-

tzen baldin bazara, zuk egin behar diozu bere burua onar dezaneko ahalegina, eta behin onartu duelarik, zu burutik egina utzi ondoren, ze orain nahi du baina gero ez du nahi, orain maite zaitu baina gero gorroto, ba hori, behin onartu duelarik ospa egiten dizu, zu erreka jota utzirik.

«Noiz ohartu zinen homosexuala zinela?».

Carlosek sofa gorriaren kontra estatua isil bat zirudiela akordatuko da eta, oraindik ere, Carlos hilik dagoela, desioak min eginen dio, heriotzaren definizio bat horixe izan daitekeela erabakirik: desioak betetzen ez diren lurraldea.

Marck itxi egin zen Carlosen isiltasunaren aurrean, eta orduan Carlos ohartu zen zerbait esan beharra zuela, herrian bizi izanak derrigortu zion isiltasun hura hautsi beharra zuela, lehendabiziko aldiz lotsaren hesia lehertu beharra zuela, hark konprenitzen ez zuen moduren batean, ernegatu egiten zuelakoz ohekide hura.

«Guk herri txiki batean Euskal Herriaren independentzia nahi duen talde politiko baten aldeko jaialdi bat antolatu genuen. Beno, igual lehenago hasi beharko nuke». Eta orduan Carlosek euskaldun jendea bizi zen herri txiki batetik zetorre-

la kontatuko zion, eta herri hartara zuela hamar urte-edo, 80ko urtearen inguruan Frantziako maiatzaren kontu haren azkenetako uhina ailegatu zela, Franco hiltzean euskaldunen independentzia nahiarekin batera halako ezkerreko mugimendu nazionalista bat sortu zela eta hor kokatu zirela bere belaunaldiko asko eta asko, ordura arteko bizimodu tradizionalagoarekin apurtuz... »edo» zehaztu zion Carlosek «izan ere hori azalekoaren azalpena baino ez da, zeren eta horretaz gain bai baitzegoen Iraultza izkinaren bueltan zegoeneko sentsazioa, denok estatuaren errepresioa gorabehera euforian biziarazten gintuena. Dena dela, gazteak ginen, edo, beharbada gazteak ginelakoz» bukatu zuen.

«Bada» jarraituko zuen Carlosek, «nire lagunekin jaialdi hori egin ondoren oholtzak, barrakak, edariak, zaborra biltzen ari ginela, nire lagun batek, Ferminek, hark egindako pankarta zabaldu zuen, zabaltzeak zentzurik ez zuenean, jaialdia bukatua baitzen, eta pankarta hartan zera paratzen zuen: *Gora Iraultza Sexuala.* Adiskide guztiok egin genion barre Fermini, ateraldi xelebreak izaten baitzituen askotan, eta nik,

oraindik akordatzen naiz, esan nion: «Hi ergelduta hago». Gero hura dena bildu eta deskargatu ondoren, etxera joandakoan ohean Ferminek pankartan idatzitakoari buruz pentsatzen aritu nintzen. Orduan ohartu nintzen, edo aitortu nion nire buruari gizonak gustatzen zitzaizkidala».

«Ohartzeko modu berezia» esan zion Marckek. «Homosexual gehienek gizonekiko desioa sentitzen dutenean ohartzen dira homosexualak direla, ez iraultza hitza irakurtzean».

«Ni ez nintzen homosexuala» erantzun zion Carlosek lehor.

«Zer zinen bada?».

Carlos aurrekoaz bestelako isiltasunean murgildu zela ohartu zen Marck. Gotorrago zirudien, armairu barnean hertsiago, urrunago.

Gero elkarrekin bizitzen jarri ziren.

«Country-boytasuna galtzen ari zara» esaten zion Marckek.

Eta Carlosek barre baino ez zuen egiten atzean utzitako hark eragiten ziona algararekin ezkutatu nahiko balu bezala.

«Zergatik ez gara zure herrira oporretara joaten».

«Zer aurkitu nahi duzu han».

«Zure sexualitatea?» arrapostu eginen zion Marckek zirika, Ike gogoan.

Eta Carlosek barre batekin, muxu batekin, zeharkako begirada batekin isilarazten bazuen ere, Marcki beti iruditu izan zitzaion zerbait iluna zegoela iraganari, lur hari buruz mintzatu nahi ez hartan.

«Akordatzen zara ezagutu berritan kontatu nizula, nola eta noiz ohartu nintzen homosexuala nintzela?».

Marckek ezezkoa egin zion, Carlosek hartu behar zituen pilula ugarien kutxan bila ari zela.

«Ez zara akordatzen?».

«Ez, Carlos, ez naiz akordatzen! Ez da batere ona iragana hankaz gora paratzearekin zeure buruari egiten ari zatzaizkiona».

Carlosek keinu uxatzailea egin zuen airean, sofaren gainean etzaten zen bitartean. Nekaturik zegoen, oso nekaturik, eta ez batere prest besteek agintzen ziotena egiteko. Denbora gutxi gelditzen zitzaiola susmatzeak, gizalegeak agindu arreta baino ez zien eskaintzen Marcken iradokizun zein aginduei.

«Gogoratzea ez da ez ona ez txarra. Dena dela, akordatzen ez zarenez, neronek berrituko dizut. Jaialdia bukatutakoan, barrara ondoratu ginen eta han ari ziren Fermin eta Miren lanean, gelditzen zen edari gutxia banatzen. Berehala ohartu nintzen Mirenek nirekin nahi zuela zer edo zer, beharbada niregana hurbiltzeko azkartasuna, edo dena utzi eta braust batean nola gerturatu zitzaidan. Ez ginen ia gu baino gelditzen; barreak egin genituen, nahiz eta hurrengo egunean herri hartan bizitzea erraza ez zitzaigula izan behar susmatu, goizeko bostak izanik, oraindik pertsianen atzetik kukuka egon zitezkeenak zio. Nik ez dakit zer den Iraultza baina, orduan, Iraultza egiten ari ginela uste genuen, uste baino gehiago, sentitu egiten genuen. Maletarik gabe etorkizunerantz bidaiatzea bezalakoa zen, arin gindoazen estrata zabalean barna gure gorputz segailetan. Dena bukatu zenean gurdia zamatzen hasi ginen traktore batean. Nik gogoan dut Miren nuela beti alboan, kaxa batzuk eskura hurbiltzen, edo botila batzuk sartzen laguntzen, edo kamerak husten. Maiatza zen eta gauak epeltzen hasiak ziren. Txiza egitera joan

nintzen kantoi batera, eta halako batean Harakin jarri zitzaidan ondoan txiza egiten. Munduko indar guztia nigan bildu balitz bezalako sentsazioa izan nuen, eta haize epelak ferekatu nindu en Harakin ez dakit zertaz mintzatzen zitzaidala. Zakila gogortzen nabaritu nuen Harakini begiratzen nion bitartean. Zakiletik hasirik urtu eta gau bihurtu nintzen, nire baitan uhalde, mendi, haize, su, baso ertzean begi distirantekin so nituen basahuntz, txindurri, erbi, zuhaitz, haien arnasarekin bat eginik mila atomotan lehertu nintzen oro izanik. Gero Harakinek alde egin zuen eta hantxe gelditu nintzen bakarrik, zakil gogortua eskuan, gizaki bakar berriz ere, Beriain mendiaren itzal erraldoi eta mehatxagarriari so, nire baitakoaz izuturik. Itzuli nintzenean Fermini poltsa gorri bat kendu nahian ari zitzaion Harakin. Kendutakoan zabaldu zuten, eta orduan irakurri genuen: Gora Iraultza Sexuala. Barre egin genuen, baina nire barrea ez zen besteena bezalakoa, nire barrea zerbait aurkitu ondoren ikaragarria dela susmatzeak beldurraren dardaretan ezinean dabilenaren barrea zen. Ergela hots egin nion Fermini, eta areagotu egin ziren

denon barreak. Halako batean begiak altxatu, eta han ikusi nituen Harakin eta Esti, bizkarretik helduta, karrikan behera, nirea zen zerbait kendu eta bazeramatela. Gero hura dena deskargatu behar izan genuen».

Marckek bazekien kontatzen ari zitzaizkionak ez zirela kontu handiak, bazekien ez zutela munduaren jira-biretan garrantzirik, baina jendearen bizitzako une erabakigarriak gertakari hutsalez osaturik daudela, hitz baten, erabaki ezdeus baten gainean oinarriturik zeudela bizitzetako alegrantzia eta tristurak, izateak eta izan nahiak.

«Uste dut erlazio ezkuturen bat dagoela Iraultza, bai soziala bai nazionala, eta Erotikaren artean» bota zion Carlosek irribarre batekin, aurretik esandakoaren tonuarekin hautsiz.

Marck harri eta zur utzi zuten hitz haiek ezkutuko kutsu bat erantsi zioten urteak joan urteak etorri osaturiko Carlosen irudiari. Sofa gorrian lortua zuten tonu intimoa hautsi zuten gainera. Une batzuk egon zen Carlosen tonuak esandakoaren kerak argituko lizkiokeen arrastoen bila, baina ez zuen jakin izan.

«Fuck you» esan zuen.

Eta gero tonua leunduz: «Niri Elisabeth erregina telebistan agertzean zakila tentetzen zait».

«Astoa zara, gero» erantzun zion Carlosek, barrezka.

Harakin

Gau osoa egon zen Harakin Estiren inguruan, zurrunbilo bat balitz bezala. Dudan zeramatzan azken asteak Estirekiko. Herri Batasunako bileretako giro zurruna ez zen egokiena Estirengana hurbiltzen saiatzeko eta, hala ere, bileretan ikusten zuen Harakinek Esti desiragarrien; klandestinitate kutsu hark, zer edo zer aldatzen ari zireneko larritasun hark, eta une oro presente zuten beldurrak, gogoa narritatzen zion eta desioari eragin.

Hanka puntetan bezala gerturatu zitzaion Estiri Hertzainak jotzen ari zirela. Epa esan eta atzean paratu zitzaion Harakin. Ustekabean sorbaldatik heldu zionean Estiren sagar erre usainak haurtzaroraino eraman zuen. Nahikoa izan zen handik aurrera elkarrekin egongo zirela jakiteko. Estik eskua laztandu zion eta, gero, Bazterrek atzera begiratu zuenean askatu, eta ezer ez gertatuarena egin zuten. Jexus Mari zerbezekin etorri zenean, inork ez zuen esanen bata besteaaren aurrean, oholtzari begira zeuden bi haiek bi-

kote bat osatu berri zutela, baina halaxe zen, ezen Harakin karrikan edo izkinatan topatu nahi izate antsiatu hura baretu egin baitzitzaion Estiri Harakinen besoa sorbaldan nabaritzearekin bat, urtura goxoa hedatuz barrenetan.

Harakinek, poz erraldoia nabaritu zuen bularrean etorkizunerantz kolpeka, eta Esti besarkatzeko desioa oldartu zitzaion langile martxa bateko indarrarekin. Eutsi egin zion hala ere, batetik lotsagatik, bestetik jada Euskal Herriaren soldadu, ataundarraren hitzak ziren, izanik hotz eta imintzio gabeko behar zuelakoz, hieratismoaren bidez egin behar iraultzailearen garrantzia azpimarratu nahian-edo.

Jaialdia bukatutakoan, jendea bakantzen hasi zenean, barrara hurbildu ziren Fermin eta Miren lanean ari ziren tokira. Harakinek Herri Batasunako Azkunderen gainean Ferminekin eztabaidan aritu zela gogoratuko zuen hurrengo goizean. Edari kaxa haiek guztiak aurrean, jaialdia arrakasta izugarria izan zela pentsatu zuen Harakinek, ezkutuan Estiren sorbalda ukitzen zuen bitartean.

«Horrela jasoko diagu gure herria!».

Gurdia zamatzen hasi ziren eta, erdi zamaturik zutelarik, Harakinek keinu xume bat egin zion Estiri, eta nahikoa izan zen eskuan zeukatena gurdian utzi eta karrikan behera abiatzeko. Plazatik pasatzerakoan Harakinek sorbaldatik heldu zion, Estik gerrialdera bota zion eskua. Hura zen aspaldi esperatu zutena. Ez zioten elkarri hitzik egin. Harakinek atzera begiratu behar izan zuen, zoriontasun haren protagonistak nahikoa ez eta lekuko beharrean.

Hantxe segitzen zuten gurdia zamatzen. Jexus Mari kaxa batzuk ematen ari zitzaion gurdi gainean zegoen Fermini. Miren eta Bazter kokakola kaxak zamatzen ari ziren. Bazterrek burua altxatu eta karrikan behera begiratu zuela ikusi zuen Harakinek. Aurpegiera nabarmentzeko urruti bazeuden ere, biek, bai Harakinek bai Bazterrek, bazekiten elkar ikusi zutela, bat kokakola kaxa eskuan, bestea Estiren sorbaldatik helduta, karrikan behera. Lasaiago itzuli zen atzerako keinu hura egin ondoren Estirengana, eta orduan esan zizkion gertatzen ari zitzaienari buruzko lehendabiziko hitzak kronika moduan, or-

durako, Bazterren ikuste hartan bien arteko harremanaren onartzea izan balitz bezala.

«Labaderora joanen gara» esan zion proposamena behar zuena baieztapen bihurturik.

Atzetik so zituela jakiteak hatzakor firinkaria eragin zion bizkarrezurrean behera. Eskua bota zuen Estiren ipurdi masailera eta hatzakorrak bultzada bilakatu zitzaizkion. Oso gizon sentitzen zen, oso gizon eta goapo.

«E, zuek, nora zoazte?» Ferminen ahotsa, «oraindik ez dugu bukatu, ez egin ihes».

Harakinek, burua jiratu gabe, eskua jaso zuen agur eginez, eta karrikan behera jarraitu zuten eskuinetako kantoia hartu eta begi-bistatik galdu arte.

Bazter irudikatu zuen berriz ere kaxa eskuan, karrika hutsari begira.

Lekunberri zenera itzulia zen; bukatuak ziren Hertzainak-en zarata eta doinuak, jendearen garrasiak, autoen joan-etorriak. Gaua entzun zuten kilkerren kantuetan. Uhalde bazterretik zihoazen Harakin eta Esti labaderorantz, herriko etxeak eta argiak bukatu eta gurdi bideak hasten ziren eremuetan. Harakinek uxatu egin zuen Bazte-

rren irudia eta Estiren gorputzaren epeltasun freskoa dastatu zuen. Langa pasatutakoan muxu eman zion, bularretara bota zion eskua gero, baina Estik kendu egin zion «Oraindik ez» esaten ziola. Kale argietako azkena atzean utzi zuten. Beraien urratsak baino ez zituzten aditu. Zilarrezko kate eta lauburuaren su zuria nabaritu zuen, lepotik behera zakileraino hedatzen. Bat zen lurrarekin, bat munduarekin, bat Euskal Herriarekin. Esti estutu eta iluntasunean barneratu ziren. Urezko jauregi batek bezala onartu zituen. Labaderora ailegatu zirenean atea zabaldu zion Harakinek Estiri. Kirrinka egin zuen ateak ixterakoan.

«Oso zoriontsuak izanen gara, ikusiko duzu; hau dena aldatuko dugu eta guk seme-alaba asko izanen ditugu» xuxurlatu zion Harakinek Estiri.

Uraren poll-pollak gauaren iluna laztandu zuen.

Jexus Mari

Jexus Marik Harakini eta Mireni erreparatu zien, han zihoazen iluntasunerantz, Harakinen eskua Estiren sorbaldan txantxangorria arramara beza-la igorik.

Jexus Marik Bazter koka-kola kaxa bat zekar-kiola gerturatzen ikusi zuen. Deseginik zekarren.

«Zer gertatzen zaik?».

«Ezer ez».

Bazterrek koka-kola kaxa gurdi gainean utzi eta alde egin zuen, Fermin, Miren eta Jexus Mari bakarrik utziz.

«Eta horri zer gertatzen zaio» Ferminek.

Hontz zuriaren antzera egin zion so Jexus Marik gauari. Pozik zegoen, ez zekien zergatik, baina Bazterrek alde egin izanak Mirenekin ego-teko aukerak ugaritzen zizkiola susmatzen zuen.

Udaletxeko erlojua joka hasi zen tenkor. Don. Jexus Marik ikusi zuen Miren hotzikara batek ze-harkatzen zuela. Don. Ferminek Jexus Mariren-gana jo zuen azalpen baten bila. Don. Jexus Marik eskuak altxatu eta ez zekielako keinua

egin zuen. Don. Mirenek dar-dar jarraitzen zuen. Don. Gauaren hontz zuriak uluka hots egin zion.

«Ni banoa, ongiezik nago» esan zuen Mirenek txupa hartu, jantzi eta karrikan behera abiatzen zen bitartean.

Fermin eta Jexus Mari elkarri begira gelditu ziren ezer ulertzen ez zutela.

«Zer pasatzen duk gaur, denek alde egin behar dute edo zer; lehendabizi Manolo handia, gero beste biak, gero Bazter, eta orain hau. Nork bildu behar dik hau dena» oihukatu zion Ferminek.

Jexus Mariri pixagura egin zitzaion. Karrikan behera zihoan Miren ilunpeetara.

Bere baitan galdurik oharkabean hartu zion Ferminek pasatzen zion kaxa. Besteen gainean pilatu zuen zertan ari zen ohartu gabe. Karrikan behera begiratu zuen berriz ere. Han zihoan txupa janzten, eskubiko besoa mahukan ezin sartuz. Zein ttikia ematen duen plazako plataneroen artean, basoaren iluntasun handian galdutako hontza kume deslaia. Nola joanen ote da Bakaikura?

Ferminen eskuetan pilatzeko zain zeukan kaxa bertan utzi eta jauzi egin zuen gurditik. Ferminek mugimenduak jarraitu zizkion. Txupa hartu eta lasterka abiatu zen.

«Nora hoa?».

Ez zion erantzun. Plazan behera hartu zuen, zegoeneko ilunpeetan desagerturik zen Mirenen atzetik Fermini desenkusa keinutzat-edo bi eskuetako ahurrak erakusten zizkiola.

Ferminek ingurura begiratu eta oraindik zamatzeko kaxa dexente gelditzen zela ikusi zuen.

«Baina nora hoa? Mekaguendios, nork zamatuko dik hau, neronek bakarrik?».

Plaza erdian berriz itzuli zen eta aurrean egindako keinu bera egin zion irribarrea ezpainetan.

«Banoak».

«Harakinek esaten duen moduan» otu zitzaion, «etorkizunerantz, borrokarantz, iraultzarantz, akaso». Arbola baso batean barneratu zen iluntasunean, hala ere.

«Nola joanen zara?» hurbildu zitzaion arnasestuka.

Mirenek malkoak zituen begietan, eta sorbaldak jaso zituen etxeraino ailegatzeak garrantzirik ez balu bezala. Jexus Marik bazekien ibiltzea baino ez zeukala, eta halaxe egin zuen. Errepide nazionalera ailegatzen ari ziren. Elizdorrearen itzal ilunak ilunagoa zirudien Beriain mendiaren itzal mehatxagarrien argitara. Zilarrezkoak karrika bazterretako soro eta etxeak. Bi auto argik gauaren iluna urratu zuten. Burrrunnn.

«Aitari autoa hartu eta eramanen zaitut etxera?».

Mirenek baiezko axolagabea eskaini zion.

«Esperatu hementxe pixka bat, berehalaxe etorriko naiz autoarekin».

Jexus Marik, bihotza kolkoan jauzika, etxera egin zuen aitari baimenik gabe autoa hartzera. Bazekien hurrengo egunean istiluak izanen zituela, baina ez zion axola; «Miren etxera eramanen diat». Aukera urrun bat bezala irudikatu zion gogoak Miren bere besoetan, arbola bihurturik, elkarrekin zutik, gauaren oparotasunean, dena etorkizun, dena haragiaren indar, dena bat. Hurrena bere burua Miren kontsolatzen ikusi zuen, malkoak lehortzen zizkion esku gainaren laztan

batekin, burua ferekatzen zion, eta gero muxu ematen zion eta musutik aitzina aurreko irudiaren toki berera ailegatzen zen, ahotsaren xuxurlo arbuiatzailera.

Hanka puntetan sartu zen gurasoen etxean eta giltzak bilatzen hasi zen. Mekagoenlaputa, ez daude betiko tokian. Aitak izanen ditu galtzetan. Gurasoen gelako atariak kirrinka egin zuen. Itsumustuan hurbildu zen aitaren ohe aldera eta silla gainean hasi zen galtzak bilatzen.

«Zer zabiltza?» esan zuen amak, lotik bat-batean ateratakoaren asaldaduraz.

«Ezer ez, segi lotan».

Amaren marmarrari, zer nahi zuen berehala igarririk, ez adituarena egin zion. Azkenean konkor gogor bat nabaritu zuen galtzaren ehun finean. Eskua poltsikoan sartu eta giltzak hartu zituen. Bizkor alde egin zuen amaren «kontuz ibili» belarrian.

Autoko atea ireki zionean malkoak xukaturik zituela ohartu zen. Sartu zenean bularrei erreparatu zien nahigabean. Gora eta behera egiten zuen. «Mirenen titiak Sakanako titirik politenak» esaten zien Bazterri eta Fermini Institutuan zeu-

denean, Miren gehienez ere goitik beherako begirada batez Jexus Mariri erreparatuz pasillo luzeetatik igarotzen zenean. Bazter eta Ferminek barre egiten zutela ikustean utzi egin zion titien kontu hura aitatzeari, baina Mirenek, Institutua utzi eta luzera, iltzaturik jarraitzen zuen gogoan.

«Buztana jasotzen zidak» zioen bere baitarako Urbasa-Andiako basozain lanetan bidezidor ospel eta ilunetan zebilela Mirenekiko barrunbetan irekitzen nabaritzen zuen desio sumingarri batekin, inori, bestalde, zela lotsaz zela sentitzen zuenaren oldarraren beldurrez aitortzera ausartzen ez zena.

Desioaren sumin harekin bizitzen ikasi zuen Jexus Marik, tontorretan bukatzen ziren gorakada erasokorrei uraren jabalaz aurre egiten, txingar gori baten gisa irauten zuten beherakadei zelatan.

Isilik egin zuten Bakaikurainoko bidea.

«Non utziko zaitut» galdetu zion Jexus Marik Bakaikuko gurutzean desenkusaz.

«Etxean, non utziko nauzu ba?».

Miren Bakaikuko baserri bakarrean bizi zen, herritik aparte. Galipotatu gabeko bidean sartu

ziren tunel beltz batean bezala. Autoaren fokuek bazterreko sasiak argitzen zituzten.

«Mesedez» esan zuen gero Mirenek, aurreko erantzunaren lehorra leundu nahian.

Burrunbaka zebilen Jexus Mariren burua, zer egin, nola egin ezin asmaturik. Autoa gelditu zuen Gorubeko Iturrian. Isiltasuna.

«Miren...».

Mirenek zeharka begiratu zuen, bestaldera jiratu zen, bere buruaren irudia itzuli zion kristalak; harantzago, iluntasuna. «Zertarako gelditu gara hemen» bota zion Mirenek ahots erronkariz.

«Miren, zuk badakizu...». Beldurrak lehentxeago zuen desioa irendu zion. Totelka ari zen. «Badakizu».

Mirenek besoa lepora bota zion. Ohartzerako kanpoan zuen buztana. Mireni gona altxatzen saiatu zen, baina ez zion utzi, hark altxatu zuen zirt-zart batean. Kuleroak jaitsi zituen eta gainean eseri zitzaion buztana aluan barneratzen zuen bitartean. Gora eta behera egin zuen Mirenek, Jexus Mari asentuaren kontra istikatuz. Ez zion mugitzen uzten. Marruka nabaritu zuen be-

larri ondoan. Gora eta behera, gora eta behera; Jexus Mari titi gutiziatsu haiek laztantzen saiatu zen, baina ez zituen aurkitzen, Miren baino ez zuen nabari gainean. Azkartu egin ziren Mirenen marruak eta baita Jexus Marirenak ere. Azken hatsanka bat bota zuen. Gorputza, zama astuna bailitzan, erortzen utzi zuen istant batean, baina berehala egin zen berriz egoeraren jabe. Zakil bustia atera eta kopilotuaren asentuan eseri zen. Kuleroak janzten, gona igotzen ikusi zuen Jexus Marik, hontz kumearen azturak ahantzirik. Esperoan bezala gelditu zen gero, bere burua eta iluntasuna itzultzen zizkion kristalari begira.

Jexus Mari asaldaturik zegoen, eta isuri ondokoagatik bare. Ipurdia altxatu eta galtzak jasoz kolpe bakar batez sartu zuen buztana zorroan. Esperoan gelditu zen. Laztan bat espero zuen, hitz goxoren bat, gertatutakoari buruzko hausnarketaren bat.

«Ez duzu arrankatuko» bota zion Mirenek, sagarrak erosteko bezain tonu neutroz.

Jexus Marik autoa arrankatu zuen. Berriz ere fokuek bide bazterreko laharrak argitu zituzten,

gauaren sakontasuna urratu zuen motorraren burrunbak.

Mirenen etxera ailegatzean ez zion autoa gelditzeko betarik eman. Ezer esan gabe jaitsia zen. Hankak pasatzen ikusi zizkion fokuen argitara. Gero etxeko atarian aldakarainoko irudia egin zitzaion giltzen bila. Sartu aurretik esperantza gorde zuen, eginen zion keinuren bat, beharbada musu bat bidaliko zion; baina ipurdi bat desagertzen baino ez zuen ikusi. Eta gero atea, mutu, ulertezin. Isiltasuna.

Gertatutakoak asaldaduraren gainean beldurra ekarri zion. Adakera arraroa zuen. Andia-Urbasan hontz zuriak muxarra ehizatu ondoren, milikeriaz edo, jan gabe utzi zuen aldi hartaz akordatu zen. Berera etorri zitzaion arnasa autoaren kristal lurrinduak garbitzen zituen bitartean.

22 urte zituzten.

Errepide nazionala hartu zuenean Ferminez akordatu zen.

«Han egonen duk oraindik dena biltzen, ergel hori» lehertu zitzaion gorrotoa ezpainetan.

Marck

Autoa Sakanako paisaia berde-urdinaren artetik zihoan apiril ernatu berrian. Euriak ametsezkoa egiten zuen paisaia: eskubitara Beriain harkaitz handia, zakar, malkortegi, agor, «zemai ilun baten moduan» esanen zion Carlosek Marcki, «itzal erraldoiko basapizti mitologiko beldurgarria»; ezkerretara, Aralar, hegoalde goxora, *locus amoenus*aren gisa gizakioi, leun, magal.

Beriaini so zihoan Bazter kopilotuaren asentuan; gidari Harakin begiak errepidean. Oholtza eta jaialdian lortutako diruen puska bat entregatzera zihoazen Iruñera.

«Ez dakit zergatik utzi diodan Iruñera joateko konbentzitzen» pentsatu zuen bere artean Bazterrek.

Baziren bi egun jaialdia bukatu ondoko irudi hura ikusi zuena: Harakin Estiren besotik helduta karrikan behera. Bi egun malkortegiaren aurreko zorabio antzeko hartan bizi zela. Bi egun aurreko ezinegonaren arrazoiak kuku egiten ziola. Horregatik Harakinek oholtza eta dirua en-

tregatzera lagunduko ote zion galdetu zionean, Harakinen ondoan izatea ez zitzaiola komeni baldin bazekien ere ezin izan zion ezetz esan, Marcki kontatuko zion moduan, «ez Harakini, baizik eta haren ondoan egotea eskatzen zidan nire buruaren zati hari».

Paisaiari erreparatzen zion, baina aldika ezin zituen Harakinen gorputz segailetik begiak apartatu. Besondotik bularrera egiten zuen bidaia, sentitzen zuenak ikaraturik. Atzera berriz, bere burua behartuz, paisaia berde-urdinera lerratzen zituen begiak, barne borroka orekatuko zuen lasaigarriaren bila. Hantxe bukatu zen Beriain mendi lerroa eta Irurtzungo bi Ahizpak ageri zitzaizkion. Larreek berde argitik ilunera egiten zuen. Gorago malkorren urdinkara, griseraino, eta gero, oraindik gorago, zeruaren azul kolorgea, maizturik.

Kasete zaharra izekitzeko besondo mardulak egindako mugimenduagatik, gorputzetik askaturiko besondo alimalekoa iruditu zitzaion Bazterri. Artean ez zekien izenik paratzen Harakinek sortzen zionari, eta beharbada izenik ezak berak are gehiago asaldatzen zuen; «izena ezartzeak

gauzak mugatzen baldin baditu ere aztergarri egiten ditu, eta aztergarri diren neurrian kontrolagarri» argituko zion Marckek, atzerritar edo, besterik gabe, ezberdin izateari buruz mintzatu zitzaionean.

Hertzainak-en *Hau dena aldatu nahi nuke* kantak gain hartu zion R5 zaharraren burrunbari.

«Ongi egondu zuan jaialdia» esan zion Harakinek Irurtzundik barna.

«Bai. Gero hik jai hobea izandu huen, ez?», konplizitate bila.

Harakinek ez zuen ezer esan eta errepidera bildu zituen begiak.

«Esti kristoren atsoa zegok!» ekin zion Bazterrek, aldakak mugituz larru jotzearen keinua eginez.

Mindu egin zuen Estiri buruz modu zakar hartan mintzatzeak, baina mutu jarraitu zuen.

«Nora eraman huen? Kristoren errapeak ditik!» bota zion Bazterrek, Harakinen neskekiko mintzamoldean.

«Hi, mekaguendios, nahikoa diagu» moztu zion Harakinek ozen, ahotsean haserrea nabari zitzaiola.

Bazter zapuzturik gelditu zen besondo erraldoiari begira. Giharrak. Paisaian bilatu zuen salbazioa.

«Urdina eta berdea» azalduko zion Marcki. «Gure bailarako paisaia urdina eta berdea da, larre eta mendien berdea eta malkorren urdina». Iruñerriko lautada agertu zitzaion parabrisaren aurrean. Perdon han urrutian, Aizkorbe gainetik.

«Kristoren neska duk» esan zuen Harakinek, barkamen gisa. Harakin buruzagiak, Harakin sendoak, Harakin nagusiak emetua zirudiela ohartu zen Bazter. Ez zen Harakin bera, neskei buruz halako komentarioak egiten zituena, ez zen hura bera sartuko zioat-martuko zioat-ka aritzen zena. Zer zebilen ba orain?

«Kristoren neska duk» errepikatu zuen.

Bazter Estiren gorputza definituko zuen adjektiboaren espera gelditu zen: kristoren atsoa zegok, edo horiek errapeak, hori ipurdia kasurik hoberenean, eta txarrenean hori zuloa nabari zaiona, hortik sartuko niekek eta abar. Marcken

hitzetan esateko: «Gizon izateko nahiaren ezintasunaren adierazgarri arra».

«Kristoren neska duk!» esan zuen hirugarrenez, irribarrea ezpainetan.

Hau mudaturik zegok. «Zer gertatu zaik?» galdetu zion Bazterrek.

«Nola zer gertatu zaidan? Ezer ez». Atorraren mahuka jaso zuen Harakinek. «Ezer ez».

Besondo gihartsua koadro gorri-berdeetatik sortzen. Ileak urrezko burusi baten modura laztan deika.

Zer gertatu zaik Estirekin? galdetzekotan egon zen Bazter, baina ez zen ausartu, beharbada erantzunak sor zezakeenari, zela lurrikara, zela anabasa, zela etsipena, kara emateko prest ez zegoelako; Marckek esanen zion bezala, jasan dezakeguna jasotzeko baino ez baikara gauza. Izan ere, Bazterrek bere baitako anabasa kiskalgarritik susmatzen zuen Harakini Esti «neska errape handi bat» baino zerbait gehixeago zitzaiola, eta hitza gogoetatzera ez ausartuagatik, bazekien Harakin maitemindu egin zela Estirekin, eta huraxe zuela lehendabiziko maitemina; eta berak, Bazterrek, «beste hura», ezin izenik

eman oraindik, lehendabiziko maitemina zuen bezala. Urteetara, Marcki kontatu zionean, «gizajoa» errukituko zitzaion Marck errukiaren abantailaz, errukia abantailatarako baitzuen Marckek, baliaturik; Carlos eta bere arteko harremanean beste mugarri bat ezarriz.

Zerbait esan beharreko premia baitaratu zitzaion Bazterri. Ordura arte Harakinekiko harremanean ez zuen horrelako premiarik susmatu, ez zen arazorik hitz egiten bazuten ez bazuten, halako lasaitasun bat nabaritzen zuten biek ala biek, haien arteko adiskidantza hitzez haraindi bailegoen; baina hitzik gabeko entendimendu hura hautsirik, gauzak esan beharra zegoeneko garaia iritsia zela iruditu zitzaion Bazterri, eta orduan Ferminek denei egozten zien akusazioa, emeagatik-edo destaina eragiten ziena, «Iraultza arra da beti» argituko zion Marckek, burura etorri zitzaion, alegia, koadrila hartan ez zela hitzik egiten, «ez zegoela komunikaziorik», komunikazioa baitzen Ferminendako, Psikologia ikasten hasi zenetik behintzat, orotarako hitz kakoa.

«Beharbada egia zen, beharbada gauza gehiegi ematen genituen jakintzat» aitatuko zion

Bazterrek Marcki iraganaz, gaztaroaz, iraultzaz, Euskal Herriaz mintzatu zitzaion aldiren batean.

Eta Marckek erantzunen zion beharbada, background bera zutenez usteko zutela berdinak zirela denak, eta neurri batean hala baldin bazen ere, ez zela erabateko egia, edo ez zela zertan erabateko egia izan; eta gero argituko zion horixe zela, hain zuzen ere, *indeed* azpimarratuko zuen Marckek, hiritarrak eta herritarrak bereizten zituena, herritarrei background bera suposatzen zitzaiela eta orduan background horrek berebiziko garrantzia hartzen zuela, bazterketaren irizpide izateraino eta aldiz hirian denek zutela background desberdina, eta horregatik background horrek garrantzia galtzen zuela onargarritasun irizpide gisa.

«Gizajoa» errukituko zitzaion gero, Marckendako berez baitzeuden kontraesanean homosexualitatea eta herrian bizitzea, *bere* eskuetara ailegatu aurretiko Carlos hura babesteko alferrikako nahian.

«Ongi atera zuan jaialdia» bota zuen tentsio unea hausteko.

«Kristoren neska duk», Harakinek.

«Bai ona zegok» arrapostu egin zion Bazterrek.

«Kristoren neska duk» saiatu zen Harakin berriz. «Gehiagotan egoteko gelditu gaituk».

«Nondik atera duk maleta hori» galdetu zion Harakini.

Zaharra zen, telaz forraturik, arrasto urdinkara batzuk zituen erdian, izkinak babesteko ferrak herdoildurik, erdi urraturik larruzko giderra.

«Aitonak erabili omen zian Amerikatik buelta egiteko. Badakik gaztetan han egon zela emigrante, eta gero itzuli egin zela. Estarbian zegoan. Dirua garraiatzeko egokia iruditu zaidak».

Cuatro Vientos paretik zihoazen. Metro batzuk aurrerago Iruñeko alde zaharra ageriko zitzaien, San Cerningo elizaren kanpai dorrea, harresiaren silueta, Katedralaren itzala.

Harakinek beti Udaletxe atzean aparkatzen zuenez, Bazterrek bazekien ezkerretara hartuko zuela harresira ailegatzean. Santo Domingo gora egin zuten.

«Hire andregaia duk?» galdetu zion Bazterrek, ahotseko asaldadura ezin ezkutaturik.

Harakinek erantzun bakartzat aparkatarte librerik bazegoen begira egindako keinua baino ez zion eskaini. Bazterri, bigarren aldiz goiztiri hartan, Fermin etorri zitzaion gogora, Ferminek Harakini harrokeriaz egindako akusazioa, ezen bai baitzirudien Harakin, Bazterren Estirekin gertaturikoa jakin beharra susmaturik, erantzunaren luzamendutan zebilela bere burua beharrestearren.

Lekua ikusi zuen Harakinek eta atzeraka jirarazi zuen autoa.

«Hire andregaia al den» garrasi egin zion Bazterrek.

Harakinek denbora hartu zuen maniobra egiteko, ezker, eskubi, atzera, motorra itzali; giltzak eskuan Bazterri irribarre maltzur antzeko bat bota eta mugimendu geldoez autotik atera zen.

Bakarrik gelditu zen autoan, Harakinek utzitako asentuari begira. Barrunbeak irakiten zituen, susmatzen zuen bizitza aldaraziko zion zerbait jakitera zihoala, betiko deserrotuko zuen zerbait inarroslea.

Bat-batean beldurtu egin zen eta ez zuen auto barnetik jaitsi nahi, babes hartan nahi zuen,

munduarekin zorrak kitaturik zituelako ilusio goxoa kolkoan, bizitzak han pausua hartu zueneko gezurra laztanduz.

Nobioak egin dira, esan zuen bere baitarako. Ahuldu egin zitzaion gorputza. Sumin goria nabaritu zuen. «Nobioak egin ziren» erabakiko zion Marckek, «homosexual guztien destinu petrala herri txiki heterosexual batean. Ergelak garelako onartzen dugun destinu petralegia».

Harakinek atea nola zabaltzen zuen ikusi zuen. Berriz ere gidariaren asentuan eseri zitzaion. Esperantzak hartu zuen, gogoan baino ez kiribildutako mezu ahoskatu gabe hura jaso zuela uste izan zuenean. Atezu alaitsuan paratu zen. Harakinek, esatekoa dakienaren keinu geldoez, zigarro paketea atorraren poltsikotik atera eta eskaini egin zion. Isilik izeki zituzten zigarroak. Bazterrek ke kiribilduen kizkurduretan jarraitzen zuen. Hire andregaia duk? Berriz egin behar ote zuen galdera? Bazekien Harakinek entzun eta ulertu ziola.

Besondoari erreparatu zion. Koadro gorri berdeak, giharrak, ileak. Hankartea hantzen nabaritu zuen Bazterrek.

«ETAn sartu nahi duk?» bota zion Harakinek.

Harakin

«ETAn sartu nahi duk?» bota zion, Emilioren ereduak berari ere emaitza ona emanen ziolako esperantzaz.

Bazterrek bekoz beko begiratu zion. Isilik gelditu zen. «Gu gudariak gaituk» akordatu zen Harakin esan ziola Emiliok aldi hartan, «borroka edozein gauzaren gainetik zegok; eta borrokaren gudari, Euskal Herriaren askatasun sozial eta nazionalaren soldadu izatea merezi behar diagu, ez bakarrik borrokatzeko eragatik, baizik eta gure etikak borroka horren duintasun mailakoa izan behar duelako ere bai; are gehiago, dotoreak ere izan behar diagu, dotoreak eta onberak, errukiorrak nahi baduk».

Zigarroei tiraka jarraitu zuten, askotan bezala hitzak kez itoz.

Auto barnea kez lainotzen ari zen, eta nekez ikus zitekeen Kaputxinoen eliza, non aparkaturik baitzeuden.

«Bai» entzun zion Harakinek Bazterri.

Bai ardailatsua iruditu zitzaion, urduritasunez betea.

Besoa bota zion lepo gainetik, lasaitzeko edo. Egon zen dena ongi aterako zela esatekotan, egon zen irabazi eta Euskal Herri askea lortuko zutela esatekotan, egon zen Estirekin sentitutakoa beste inorekin sentitu ez zuela aitortzekotan, baina isildu egin zen balazta batek galarazi bailuen, harantzago joatea, bai hitzez nola maitasun adierazpenez, eremu arriskutsuetan sartzea zela susmaturik. Hankartean gogortasun goxo bat hantua zitzaiola ohartu zen Harakin. Galtza bakeroen zimur tenkatuei erreparatu zien, urdin ilunetik urdin argira egiten zuten ehunaren gora behera estutuek. Gizon nabaritu zuen gorputza eta epeltasun kilikagarri batek zeharkatu zuen zilarrezko kate-lauburutik bizkarrezur muturreraino. Halako batean zigor batek jota bezala kendu zuen besoa Bazterren lepotik. Batbatean kartzela bezain itogarria bihurtu zitzaion auto barne ketua.

«Goazen, berandutu eginen zaiguk bestela» autotik atera zen, Bazter barnean utzirik.

Maleta zaharra hartu eta Herri Batasunako sedera abiatu ziren. Diruak bainoago maletak pisatzen zuela pentsatu zuen Harakinek.

Sartu ahala ikusi zuten Azkunde, eta sartu ahala ikusi zituen Azkundek.

«Hombre! Zer zatozte, dirua entregatzera!?».

Hala heldu zirela esan zioten, baiezko keinu lotsatiez.

«Ez duzue asko entregatuko. Zer antolaketa txarra! Hiruretarako ez zegoen zerbezarik eta!» esan zuen, sedean hainbat gelatan barreiaturik zeudenek entzuteko moduan. Harakin eta Bazterrek elkarri begiratu ziotenean, Azkunde ohartu zen zuzenegi ez bazen ere ozenegi bai ari zela; eta esan zien konfiantzazko tonuan: «Ongi egon zen jaialdia». Eten bat egin zuen ordura arte iritzitakoa aldatzera balioan, baina «bestela» erantsi zion esaldiari. Barre egin zuen berriz ere.

Eskubiko gelatik elastiko more batekin jantzitako neska bat atera zen. «Ez egin kasurik honi, beti adarra jotzen ari da» saiatu zen Azkunde desenkusatzen.

«Etorri» gidatu zituen Azkundek pasilloan barna, azentu gipuzkoarrarekin.

Harakinek mahai gainean paratu zuen maleta. Han zeuden marra urdinxkak, ferrajeak, herdoila, larruzko giderra.

«Ño, ederra maleta, nondik atera duzue?».

Harakinek ez entzunarena egin zion. Maleta ireki eta barneko plastikozko poltsa seinalatu zion Azkunderi.

Azkundek poltsa hartu eta begira hasi zen. Dirua atera zuen, berriz sartu, gero berriz ere atera. Poltsa eskuan begiak altxatu zituen haiengana.

«Eta kontuak?».

«Zer kontu» esan zion Harakinek.

«Nola zer kontu, jaialdiko kontuak: zenbat gastatu duzuen, zenbat kobratu zuen Hertzainak taldeak, zenbat joan zaizuen edaritan».

«Ez dugu konturik egin. Denei pagatu ondoren hori da gelditu zaiguna, eta hona ekarri dugu, besterik ez».

«Joder, besterik ez, besterik ez! Kontuak egin behar dituk, ondo egin behar dituk gainera . Nola dakigu ez duzuela lapurretarik egin».

Harakinek eta Bazterrek zur eta lur begiratu zioten elkarri. Lapurrak!? Lapurren moduan sen-

titu ziren une batez. Han zegoen, handiz ia baldar, hormako azpildura ilunkara baten kontra, irribarre muzina ezpainetan.

«Hi, gu ez gaituk lapurrak! Guk gure kabuz antolatu genian jaialdia, eta hau duk kontsegitu dugun dirua. Gu ez gaituk lapurrak!» esan zion Azkunderi.

Azkundek Harakinen haserrea eta tonua ikusirik atzera egin zuen koldarturik.

«Igual dik, igual dik» lasaitu zuen Harakin. Eta gero autoritatea azpimarratu nahian gehitu zuen: «Baina hurrengo batean kontuak eginda ekarri».

Bazter tenteldua gelatik kanpo bultzatu zuen Harakinek.

Agur esan zien elastiko moredun neskak.

«Hago espera» esan zuen Harakinek, Azkundek ez aditzeko moduan; «hago espera guk beste jaialdi bat antolatzeko».

Kalerako eskailerak madarikazioka jaitsi zituen Harakinek, Bazter isilik atzean zuela. «Baina horrek nor uste dik dela!» esaten zion Harakinek Bazterri, «erakutsiko zioagu nor garen ergel horri!».

Udaletxeko Plazatik barna zihoazela, lasaiago, askotan jende artean zeudenean haien arteko lotura eta konplizitatea adierazteko begia kliskatu zion Bazterri. «Ez zioagu kasurik eginen ergel horri, funtzionarioa baino ez duk» esan zuen gertatutakoari garrantzia kendu nahian, baina erraietan erresumina eta zapuzketa zebilzkion.

Jarautara jo zuten.

«Nola tratatu gaitik horrela?! Guk ere nola ez diagu konturik egin?, laostia gaituk!¨ Ergel bat baino ez duk!» laburtu zuen Harakinek, bokadilloa eskatzen zuen bitartean.

Bazter isilik zegoen, aldika Harakini so, aldika begiak tabernako atetik harantzako eguzki errainuetan galdurik.

«Inportantea dena zera baino ez duk: nola organizatuko dugun lehen aipatua».

Bazterrek begirada bildu eta mahai gainean iltzatu zuen. Burumakur zirudiela pentsatu zuen Harakinek.

«Zer gertatzen zaik?».

«Ezer ez» erantzun zion.

«Lehen egin diadan galderagatik baldin bada, garaiz hago atzera egiteko».

«Nori gehiago esanen zioagu?».

«Garaiz hagoela atzera egiteko?».

«Nori gehiago esan behar diogun!» oihukatu zion Bazterrek.

Harakin bokadilloen bila altxatu zen, Bazterren jarrerarekin nahasturik baina pozik, une batez uste izan baitzuen Bazterrek atzera eginen zuela, horrek ekar zitzakeen ondorio guztiekin: bazela herrian ETAkoa zela zekien norbait, ez edonor gainera, lagunik minena baizik.

«Ba, nik pentsatu diat Jexus Mariri esatea. Lanean ongi aritzeko lau izan beharko genikek. Ez zaidak laugarrena bururatu» esan zuen Harakinek, bi bokadilloekin eseri bitartean.

«Fermin?».

«Fermin!, alde egin ezak paretik; Ferminekin ez nindukek joanen ezta hemendik horra ere!».

«Nik uste diat Fermin egokia dela; beste bat izanen duk nahi izanen duena, baina nik uste diat Fermin baietz».

«Ez dik nahi izanen, eta ez duk egokia» itxi nahi izan zuen eztabaida Harakinek berak egin

ohi zuen moduan, azken hitza esanik aurrera inork kontra eginen ez ziolakoan.

Bakoitzak bere bokadilloari begiratu zion isilik. Hozka egiteaz batera begiak altxatu zituen Bazterrek sabairantz. Harakin telebistarantz jiratu zen. Osasuna-Real partida botatzen ari ziren asteazken arratsalde hartan; eta azken boladan, amak esaten zion bezala, futbola politikarengatik aldatu, oraindik segitzen zituen partidak-eta; Ferminen desesperaziorako, batzuetan Ferminek ez baitzuen ulertzen Euskal Herria askatu nahi zuen norbait nola kezka zitekeen futbol partida batengatik.

Jiraturik zegoen, «Ba, Fermini esaten ez bazioagu ni ez nauk sartuko» entzun zuenean. Berean gelditu zen une batez, entzundakoa ulertzeko beta hartuz.

«Mekaguendios» bota zuen itzuli bitartean. «Baina zergatik?».

«Zergatik ez?» bota zion Bazterrek.

«Nik, buruzagiak, hala uste dudalakoz».

Bazter, bokadilloa eskuetan, leloturik gelditu zitzaion.

«Gol, gol, goool, goooool» entzun zuten esataria oihuka.

Bazterrek bokadilloa mahai gainean utzi eta aterako bidea hartu zuen.

«Nora hoa!?» garrasi egin zion Harakinek.

Zerbitzariak goitik behera begiratu zituen.

«Nora hoa» altxatu zen Harakin Bazterren bila. Taberna erdiraino ailegatu zen. Gelditu eta berriz mahaian eseri zen. Bokadilloari hozkakoa egin eta telebistarantz jiratu zen.

Ederki hasi gaituk, esan zuen bere baitarako Harakinek, bukaera ez zedin hasiera bezalakoa izan desiratuz.

Fermin

Afaltzeko nahikoa beta hartu gabe, ostiralero bezala, gogo biziz abiatu zen Fermin Bazterretxera adiskideen bila; amari kontu batzuk aipatu, aita kanpoan zegoelakoz batere damurik gabean. Musera jokatzen ari ziren bazterreko mahaian Harakin eta Jexus Mari, Felipe eta Manolo. Bi adiskideek buruarekin halako keinu nabarigaitza egin zioten ongietorritarako; Manolo eta Felipek, aldiz, beste batzuetan ez bezala, ez zioten trufarik eskaini, partidan oso sarturik zeudelako seinale. Barra bukaeraraino joan zen beraien tokira, beti han izaten baitziren, barra bukatu eta atearen sarrera zegoen toki hartantxe.

Jexusa, Bazterren ama zegoen barraren bestaldean, jite errukarria taberna osoan hedatuz.

«Kafesne bat, kafe gutxi eta esne epelarekin, mesedez» eskatu zuen Ferminek Lekunberrin, adarra joko zioten beldurrez, inoiz erabiltzen ez zuen mesedez ahoskatzeko ahotsa jaitsiz.

Jexusak keinu ilauna egin zion aditu zuela adierazteko, eta harrikoaren gainean jarraitu

zuen basoak garbitzen, suspirioa suspirioaren gainean.

«Eta Carlos?».

Jexusak sukaldeko sarrera estaltzen zuen errezela seinalatu zuen buru eragin arin batez. Afaltzen izanen da, pentsatu zuen Ferminek. Jexusa zuzendu eta trapuarekin eskuak garbituz kafeterara hurbildu zen aieneka.

Herriko zaharren bat aldean gertatzen zitzaionetan urduritu egiten zen, zer esan ez zekiela. Jiratu egin zen telebistak isilaldi hura beteko zuelakoan baina itzalirik zegoen. «Eguraldi maskala dugu» bota zion hitz magikoen gisa.

Kafesnea eskuan, kafe gutxi eta esne epelarekin, jiratu zen Jexusa. Kanpoaldera begiratu zuen. Euri itxura zekarren, baina ateri zegoen. Gero Fermini begiratu, harrikora itzuli eta basoak garbitzeari ekin zion.

Fermini kafesnean baitaratu zitzaion gogoa; adiskideez aparte ez zuen Harakinek, Jexus Marik, are Bazterrek berak zuten laxotasuna Herriko jende klase guztiekin aritzeko. Ez zekien nola mintzatu, herratu egiten zen kodigo bila, autoritaterik onartzen zien aldika, baina gero

mespretxatu egiten zituen, Malakatekoa izatea zama zitzaion. «Lekua aurkitu ezinean ibiliko zinen» esanen zion Aliziak, «eta lekurik ez duena edozein ezdeuskeriagatik ateratzen da erroetatik».

Muslarien builak jalgiarazi zuten bere baitatik. Harakin errietaka ari zitzaion Jexus Mariri, handitan jo ez eta partida galtzen ari zirelakoz. «Jexus Mari» pentsatu zuen Ferminek, Psikologia ikasten ari zenetik ohitura, batzuen ustez matraka, bere iritziz lantzearen ondorioz sortutako tema, bihurtzen ari zitzaion nortasunak, alaiki, Bazterrek behin baino gehiagotan konfiantzan aitatu zion moduan, arakatu, aztertu, zehaztu eta definitze beharrari amore emanik, «Jexus Mari Harakinen errietatik betiko irribarre ergelez babesten ari duk».

«Mundua izendatzeko beharra zuela» argituko zion gerora Aliziak, «zure lekua aurkitzeko eta inposatzen zitzaizun botereari kontra botere bat ezartzeko saiakera izango zenuen, seguru aski».

Bazter atera zen ahoa mauka-mauka zuela. Jexusak burua jaso zuenean Bazterren sukaldera sartzeko agindu keinu iheskorra ikusiko zuela

erabaki zuen Ferminek, Jexusa eskuak lehortu eta sukaldeko errezel higatutik harantz desagertu baitzen.

Bazterrek beste buru keinu ahul bat eskaini zion Fermini, eta musika jartzera arrimatu zen hifiraino. «Lekunberri Aranaz keinuen lurraldea» hots egin zion Aliziak, «hitzen izu-ikaraz keinuen erosotasunean egokituriko herria».

«Zer moduz», etorri zitzaion Hertzainak-en lehenbiziko notekin batera.

«Ongi» erantzun zuen Ferminek.

«Zer egin behar duk bihar goizean?».

«Zer ba?».

«Joango gaituk mendira?».

Bai erantzutekotan zegoela, aita ikusi zuen atetik barna sartzen. Berehala ohartu zen, onenera ere, ñabarturik zetorrela.

Gabon ozenegi esan eta balantxaka hurbildu zen barrara.

«Ardo bat» oihukatu zion Bazterri.

Ferminen aitari behatzeko zalantza une batean erori zen mus partida. Felipek buruari eragin zion arbuio moduan, eta Ferminek superiori-

tate irribarrea iruditu zitzaiona ikusi zuen Harakinen ezpainetan.

«Zer, Fermin» mintzatu zitzaion Manolo zakar, «eguneroko ñabarduretan ibiliko haiz?».

Mahai osoak barre egin eta partidak aurrera jarraitu zuen. Fermin semeak, barraren bukaeran, lotsaturik aldika mahairantz begiratzen zuen, aldika barraren bestaldera Bazterren laguntzaren bila. Bazter, hala ere, harrikoaren gainean makurturik zegoen ontziak egiten.

Fermin aita, trufaz ohartu gabe, edo oharkabearena eginez, muslarien mahai ondora gerturatu zen ardoa eskuan eta irribarrea ezpainetan. «Nor ari da irabazten» esan zuen zizaka hitzak ezin ahoskatuz.

«Esanen bagenikek ere ez hintzateke konturatuko» bota zion Felipek.

Algara egin zuen mahai osoak.

Fermin semeak zigarroa piztu zuen masailetako gorridurak eta izerdi hotza ezkutatzeko ahaleginetan.

Fermin aitak, bufoiarena egitera ohiturik bazegoen ere, begiak kliskatu zituen gertatzen ari zena konprenitzea kostatuko balitzaio bezala.

Ez dik aurre egiteko ausardiarik ere, koldarra!, pentsatu zuen Fermin semeak.

«Zuek...» ahoskatu zuen zizaka.

Muslariek begiak kartetatik jaso eta Fermin aitarengana zuzendu zituzten ia desafioz.

«Zuek...». Txuak ihes egin zion ezpain artetik.

«Arranka ezazu, arranka ezazu».

Buruz buru neurtu zuten lau muslariek zutik zegoen gizona.

Luze eutsi zion Fermin aitak isilaldiari, ez erronkan sarturik zegoelakoz, mozkorrak denboraren zentzua nahasi ziolakoz baizik.

Luze iritzi zion Fermin semeak, arrapostuaren eraso gogoz.

«Hire aitonak gerra garaian» seinalatu zuen Fermin aitak Harakin, «jende asko...».

«Hordago» Harakinek.

Denak ijili-ajalaka lehertu ziren.

Mus partidan barneratu ziren berriro, Fermin aitaren han egoteari kasu egin gabean. Tabernaren bakardade eta handitasunean galdutako mozkor deslai baten gisa ageri zitzaion Fermin

semeari aita, bufoi rolaz gabetua. Kanpoan oilo, etxean otso.

Fermin aitak, semeari ez ikusia eginez, dzangada batean ardoa edan eta balantxarik barik alde egin zuen.

Gertatutakoaren ondoren mozkorra pasatuko zitzaion... ko... ko... koldar horri, pentsatu zuen Fermin semeak, bere artean azkeneko hitza ahoskatzeko zituen hesi moral eta maitasunezkoak hautsiz. Koldarra, koldarra, koldarra.

«Bihar bederatzietan, orduan». Bazterrek burua harrikotik altxatu eta baiezkoa egin zion.

Fermin iheslari bat bezala atera zen tabernatik. Harakin putakumea, Jexus Mari putakumea, Felipe putakumea, Manolo putakumea.

Lotsa eta amorrua ezkutatu zituen gauaren babespean.

Lizarragako tuneletik eskubitara hartu zuten laino itxiaren artean. Isilik zihoazen Bazter eta Fermin, bakoitzak esan nahi zuena esateko estrategiak bilatzen.

Fermini zaila egiten zitzaion aurreko gauean gertatutakoa aipatzea ere; gau osoa eman zuen aitarekiko sentitzen zuena aztertzen, baina ikasten ari zen psikologiak gutxi balio zion orduan. Harakinekiko gorrotoa, aldiz, argi zeukan eta hortik lehertu zitzaion Bazterri: «Harakin putakume bat duk!» Nahiz eta Bazter gehiegizko intimitatearen lotsaz isiltasun deseroso batera behartu zuela ohartu Fermin, berean jarraitu zuen. «Jexus Mari ere bai».

Ferminek azalpen luzeago bat emateko gelditzera egin zuen. Bazterrek gelditzeko asmo zirkinik ere egin ez zuela ikusirik, aurrera egin zuen eskuekin imintzioka.

«Jexus Mari ere putakume bat dela esan nahi diat».

Isilunea egin zen. Laino zerratuan zehar zihoazen. Askotan ibiliriko bidea bitan banatzen zen: hegoaldera erromatar galtzadan barna zihoan, Zunbeltzeraino lehendabizi eta gero Irantzuko Monasterioraino, Dulantzi mendian barna; mendebaldekoak, basoan barneratuz, Urbasarantz egiten zuen, San Adriango ermita eskubitan utzirik.

Mendebalderantz jo zuten.

Ferminek gerora Aliziarekin egindako hausnarketen bidez jakindakoa jakin izan balu, esanen zion aita horrela tratatu izana zaharrekiko errespetu gutxia adierazteaz gain, Herrian tradizioak, tradizio izateagatik, egia, urteetan garraiatutako estereotipo, morrontza, ezin ikusi haiekin guztiekin bat bazetorren ere, ez zegoela ongi; Ezker Abertzaleak sortu nahi zuen gizarte berri hartan ez zeukatela lekurik horrelako portaerek; baina orduan Ferminengan hausnarketari amorrua gailentzen zitzaion, eta amorruarekin lotsa, aita horrela iraindua ikusteagatik, lotsa, aita herriko bufoia izateagatik, lotsa, zen aitaren semea izateagatik.

«ETAkoa izan nahi duk?» entzun zuen Bazterren ahotik.

«Zer?».

«Ederki aditu duk esandakoa! Ez diat errepikatuko».

Ferminek ingurura begiratu zuen. Isilik zegoen dena. Irrealak ziruditen zuhaitz enborrek laino artean.

«Uste diat» egin zuen zalantza Bazter atezuan zen bitartean, «uste diat baietz».

«Zer esan nahi dik uste diat horrek?».

«Beno, bai» esan zuen amorruz.

«Heroi-jolasa, tartean hildakoak ez baleude» trufatuko zitzaion Alizia sumindurik.

Marck

Abere izutu baten modura dar-dar barneratu zen Iruñeko Takonera parkeko iluntasunean. Hasieran ez zuen ezer ikusten, baina begiak egin ahala siluetak bereizten hasi zen. Murailaren petrilean eseri zen zer egin ez zekiela. Izerditan zituen eskuak, ahoa lehor, silueta haietarantz bultzatu eta aldi berean balaztatzen zuten bere baitako bi indarren arteko borrokaren ondorio. Muraila behetan zeuden basahuntzen marruek braust batean zutiarazi zuten. Harakinekin jaialdiaren gauean izandako sentsazio berdinak hartu zuen: bat zen zuhaitzekin, bat zen gauarekin, gorputza desegin eta adar haietara zihoakion, zakiletik sortzen zitzaion irrika erraldoi hark tiraka. Gau bihurtu zen, oro estaltzen zuen gaua.

Murailaren petrilari jarraitu zion, urratsak kilikolo. Gizon lodikote bat iruditu zitzaiona eseririk zegoen, bera noiz iragango espera-edo. Hurbildu ahala irrika *gartsua* ahuldu eta izuak hartu zuen berriz ere. Gizonarengana gerturatzean azkartu egin zituen urratsak eta burua jaitsi. Zuzen begi-

ratu zion besteak. Burua jaso zuen Bazterrek, han zeukan potoloa so, bigun, eme. Irrika *gartsua* hustu zitzaion. «Zertara etorri nauk hona?». Jada ez zen arbola, jada ez zen mendi, jada ez zen gau; izaki ziztrin sentitu zuen bere burua.

Alde egitea erabaki zuen. Legarrezko bidea zuri ageri zen iluntasunean. Ia lasterka arbola artetik atera eta bideari heldu zion. Bere burua madarikatu zuen, han beteko zuen zer edo zer aurkituko zuela pentsatzeagatik, eta hala ere, oraindik nabari zituen hankartetik tiratzen zion irrika haren txingar arrastoak.

Harakinez akordatu zen, bila arituko zitzaiola pentsatzeak desioa eta gorrotoaren arteko irrika eragin zion. Argitara atera zen. Autoak ageri ziren aparkaturik. «Marika nazkagarriak!». Iluntasunetik urrundu ahala baretuz zihoakion beldurrak sorturiko askatasun uhin batek hartu zuen porrotaren zapore metalikoarekin batera. Ez zen arakatzeko ere gai izan! Autoen babesa bilatu zuen barnetik zetorkion borrokari ihes egiteko. Citroen Visa bati erreparatu zion. Hautsirik zeukan atzeko pilotua. E-dun ikurrina zeukan itsatsirik pilotuaren ondoren. Handik ihes egite-

ko agintzen zion indarrari kontra eginez begiratu zuen atzera. Auto artetik arbolape ilunerantz zihoan gizon bat ikusi zuen. Gizona begira ari zitzaion. «Hau gizona duk» pentsatu zuen Bazterrek, lehenagoko potoloa gogoan. Mozkotea, bizkar zabala, ile motza, bekain beteak, motxila txiki bat zeraman bizkarrean.

Gizonak arbolapera egin ondoren, itzuli eta erronkari so egin zion argia eta iluntasunak muga egiten zuten lerroan, hankartea igurzten zuen bitartean. Bazterrek dar-dar zeuzkan hankak. Harakin itzulipurdikatu zitzaion gogoan, irrikaren sua garretan pizten zitzaiola. Gizona iluntasunean desagertu zen atzera begira.

Bazter, mengelkeriak alde batera utzi, itzuli eta arbolapera abiatu zen urrats azkarrez. Itsutu egin zuen iluntasunak. «Non nago?». Beldur oldarra nabaritu zuen. Arbola baten kontra bermaturik zegoen. Bazterrek gerturatu ahala nabari zuen desioaren ziztada zakiletik gora.

«Kaixo».

«Kaixo».

«Zerbait eginen dugu?».

Argitara abiatu ziren isilean. Citroen Visa gorria seinalatu zion. Pilotu hautsia, E-dun ikurrina. Autoa irekitzeko giltza sartzen ari zenean, irribarre antzeko bat egin zion gizonak. Orbain ubelkara bat zuen ezpainaren ezkerreko ertzetik kokotserantz. Garrek indar hartu zioten berriz ere Bazterri.

Zimitorio atzera eraman zuen gizonak. Motorra itzali eta motxila hartu zuen atzetik. Nafarroa Oinez, Tafalla 1986. Irudi zuri beltzari erreparatu zion. Puzzle beltz batean urrats baten arrasto zuria. Barraka batean txanda egiten egon zela akordatu zen. Gizonak kondoiak atera zituen.

Bazterrek musu eman eta orbaina laztandu zion.

Fermin

Marckek Sydneyren panfletoari ez ikusiarena eginik zerraldoaren aldera egin zuen.

Sydneyk Ike bilatu zuen. Eskua luzatu eta begi parean paratu zion panfletoa.

«Bi musu lehendabizi» esan zion Ikek.

Poltsan Sydneyren panfleto berdina zuela akordatu zen Fermin. «Tanatopraxist on streak. We ask for better job condition» ageri zen letra larriz. «Zer ote dira Tanatopraxist horiek?».

Ikek eta Sydney elkarri eman zioten besarkadak galarazi zion panfletoko hitz xehea leitzea. Besoak indarrez elkar loturik agertu zitzaizkion, bizkarrak goante morez ferekaturik. Ikeren ordura arteko egiazko keinu bakarra huraxe zela erabaki zuen. Motoristaz jantzi gizonkotea ikusi zuen zeharka, irribarre abegikor bat ezpainetan Sydney eta Ikerengana hurbiltzen.

«Hello, gizonkote!» besarkatu zuen Ikek berriz ere aurreko portaera histrionikoarekin. «Hileta baterako egoki jantzita etorri haiz! Hileta baterako eta beste zerbaiterako ere bai» zehaztu

zuen, larru beltzez eta metalezko iltzez eginiko eskumuturrekoa seinalatzen ziola.

«Hi ez haiz ba desegoki etorri. Soineko polita. Ez dun lumazko exarperik ekarri?».

«Jada ez dituk eramaten. Hik eta hire antzekoek ez bezala, guk moda jarraitzen diagu».

Nor ote ziren horiek barrundatu zuen Ferminek, baina ez zitzaion ezer otu, Aliziaren batzuetan zein motza zaren aditzen zuela.

«Aurkeztuko zaituztet. Non da Marck!? Tira, igoal da. Hauek Carlosen lagunak dira, espainiarrak, eta izenak ahantzi zaizkit».

Karkaila egin zuen.

Sydneyk Jexus Mari aukeratu zuen eskua emateko.

«Sydney».

Gero Harakinengana jo zuen, eta azkenean Ferminengana hurbildu zen. Elkarri begira geldi-tu ziren zer esan ez zekitela.

«Banengoen ba ni. Ez dute izenik!» lehertu zen Ike, «horregatik ahantzi zaizkit».

«Barkatu» aurreratu zen Fermin, buruan Aliziaren irribarre maltzurra entzuten zuela: ‘Beti

gelldituko zaizu, maitea, Lekunberri Aranaz horretan kikilduta bizi izandakotik zerbait'.

«Hori Harakin da, beste hori Jexus Mari, eta ni Fermin»

«Ni Sean» gizonkoteak, eskumuturrekoa ferekatzen zuela.

«Beno, eta orain denok elkar ezagutzen dugula... Baina non sartu da emakume madarikatu hau? Igoal da. Orain denok ezagutzen dugula, esan nahi dizuet hileta moñoño bat egin behar diogula gure lagun Carlosi».

«Ba ez zekinat moñoñoa izanen ote den. Irakurri duzue?» erakutsi zion Ikeri panfletoa. «Tanatopraxilariak greban daude».

Fermin seguru zegoen berak bezala Jexus Marik zein Harakinek ez zekitela zer ziren tanatopraxilariak, eta ez zirela galdetzen ausartuko. Institutuko ingelesarekin moldatu baino egiten ez zirelako aitzakia paraturik, Ferminek galdetu behar izan zuen: «Nor dira Ta...?».

«Ba ez zuten apainduko!» garrasi egin zuen Ikek.

«Greba atzo hasi zen» argitu zuen Seanek.

«Ai jesus, heriotzara zarpail-zarpail eta makillatu gabe abiatu beharra ere!».

«Bai astoa zarela!» bota zion Sydneyk ume mainontziari errieta egiten zaion tonu laztankorrean.

«Carlosengandik ikasi nuen. Tanatopraxilariak hil ondoren apaintzen zaituztenak dira» hasi zen Ike; «bizitzan zehar egin gabeko manikura, lifting, azal garbiketa eta makillajeak eginen dizkizue. Barnean daukazuen emakumea jalgiaraziko dizue; berandu, baina jalgi jalgiko da. Neronek izan nuen behin...».

«Bai» moztu zion Sydneyk, «zuk behin izan zenuen amorante tanatopraxilari bat. Greban izanen da hura ere?».

Ikek keinu uxatzaile bat egin zuela ikusi zuen Ferminek, iragana putz batekin aienatu nahiko balu bezala.

«Zer moduz bidaia?», Sydneyk.

«Ongi», Ikek.

«Nongoak zarete?», Sydneyk.

«Espainolak», Ikek.

Itzal zemaitsu bat bezala osatua zuten zirkuluaren erdirantz nabaritu zuen Ferminek Harakin erraldoitzen.

«Gu ez gara espainolak» bota zuen lehor.

Denak jarraipenaren espera gelditu zirela nabariturik, eta Harakinek ez zuela jarraituko jakinik, ezinegona sortu zitzaion Fermini. «Zu lasai» aholkatzen zion Aliziak.

«Oi, ze primitiboa!» egin zuen kar-kar Ikek. «Baina berdin da bakoitza nongoa den! Ni, esaterako, mundukoa naiz. Mundu marikoikoa, hori bai!. Esaguk, Sean maitea, hi nongoa haiz larru beltz guzti hori soinean? Kontaiguk nolakoa den hire mundua, gela ilun horiekin, larru beltz horrekin, gizonkote horiekin!».

Fermin ohartu zen Seanek lasaitzeko keinu nabari ezin bat egin ziola Ikeri. Zertaz ari dituk? Hainbatetan errepikatutako adar jotzeez, edo apika, Ikeren histrioikeriaren artean zail egiten baitzitzaion bereiztea, liskarrez.

Aliziaren ahots ttattarrak, ordea, burla egin zion: «Baina zer uste duzu, munduko jendea gu bezain kezkaturik dabilela nongokeriekin. Bai

zera! Lekunberri Aranaz ez da mundua, are gehiago ez da mundukoa».

«Barkatu» ahoratu zitzaion Fermini ia oharkabean.

Harakinengan egondako begiak harri zizta-dak bezala nabaritu zituen beregana.

«Ez, dear, lasai; jakinen bazenu!, bizitza osoa liskar batean pasatu dugu. Eta pasatuko dugu, ez baita oraindik jaio ni hemendik eramanen nauenik».

«Baina gu ez gara espainolak...» entzun zuen Harakin esaten.

Txikituko zuen. Ez zuen ba ikusi Bazterren lagun haiekin izugarrizko tentsioa sortu zuela euskaldun izan edo espainol izan bezalako memelokeriekin. Beti igoal. Berea egin behar, berea talde osoarendako onena dela erabakirik.

«Bazterrek azalduko zizuen. Guk independienteak izan nahi dugu».

Seanek onesean arreta ematen ziola iruditu zitzaion Fermini, baina Ikeren bisaian imintzio ironiko ageria ikusi uste izan zuen. Harakinen hitzen atezuan gelditu zen. Orain irain historiko guztiak aipatuko zizkiok, espainolengandik des-

berdintzen gaituzten zerrenda luzea, gure hizkuntzaren antzinakotasuna...

«Bai» laburtu zion Aliziak gogoan, «gutxitu konplexua estaltzeko etnografikeria merke guztiak».

Baina Harakinek askotan izaten zuen egonarriarekin isiltasuna ezarri zuen. Urduritasuna berdindu beharrak mintzatzera bultzatu zuen Fermin, baina Aliziaren ahots leunak bridatu egin zuen Harakinek sorturikoa, Harakinek konpon zezala xuxurlatuz. Jexus Mariren bizkarra bistaratu zitzaion Toilets txartelaren azpian desagertzen. Ikeren soinekoari erreparatzeari ekin zion derrigorrezko lansaio bati ekiten zaion zehaztasunez: goitik behera zen more brillanta, tirante fin batzuek bularraren oparotasuna azpimarratzen zioten, berezkoak edo jarriak ote zituen galdetu zion Ferminek bere buruari, bizkarra agerian, estutu egiten zen gerrialdean, non petrina baten antzera foulard beltz bat zeraman loturik; gona, beherantz egin ahala, zabalduz zihoan bolante handi batean bukatzeko. Egokiago zirudik gau festa baterako hileta baterako baino. Eskuak izerditan hasi zitzaizkion.

«Barkatu» lehertu zen Harakin, «Carlosek azalduko zizuen arazo bat dagoela gure herrian...»

Aliziaren begi burlatiarekin bat, Ike ikusi zuen beregana panpina metaliko bat bezala jiratzen.

«Arazo bat dute!» esan zion Seani.

«They got a problem» hasi zen kantaz erdi dantzan aldakak mugitu eta besoak zabaltzen zituen bitartean, «you got a problem, we got a problem, I, I, I don’t get the problem, so small it is!».

«Akordatzen zarete, Sean eta Sydney, The Crazy Pennis. Zein ongi pasatzen genuen! Laurogeiak zoragarriak izan ziren, benetan zoragarriak. Baita laurogeita hamarrekoak, Carlos etorri zenean. Party haiek, eta egin nahi genituen gauzak: komunetan bizi, iraultza sexuala, amodio askea; Marck ez da izan sekula amodio askearen aldekoa baina. Akordatzen zarete Cournailles-en egin genuen orgiaz? Artean ez genekien hiesa zer zen! Eta zuek zer egiten zenuten laurogeietan? Zuen independentzia horren alde borroka egin?».

Fermini iruditu zitzaion Ikek erakutsi nahi zuena baino gehiago zekiela, eta jakinaren gainean ari zitzaiela adarra jotzen. Inork erantzun ez bazuen ere, Fermin barrunbeek beharturik sentiarazi zuten eta Harakinen bisaia bilatu zuen, hark lehertutako eztandaren ondorioen ardura zegokiola gogoratzeko, begiradari soraio heldurik; baina Harakinek kontuak berarekin ez balihoaz bezalako keinu ergel bat zeukan aurpegian.

«Sozialismoa ere ezarri nahi omen zenuten!» zirikatu zuen Ikek.

Ikeren tonu trufarian halako zitalkeri-ukitu bat nabaritzea uste izan zuen Ferminek, nolabait ordura arteko, hitzaren bila aritu zen Fermin, inplikazio pertsonal batek benetan sentitzera eta esatera beharturik aspaldiko bizipenen baten oroitzapenak edo haren identitatearen antzeztean urratu bat eginez, barrunbeak, barrunbe minduak horratik, pentsatu zuen Ferminek, agerian gelditu balitzaizkio bezala.

Harakin ere sutan izanen duk, pentsatu zuen Ferminek; espero dezagun ez lehertzea, nahiz

ergel hori, hori eta makurragoak egiteko gai izan.

«Beno, ez gara gauza horiez hitz egitera etorri» sartu zen Sydney. «Ike, ongi porta zaitez. Zuek ez egin kasurik. Gainetik gelditzeko edozer gauza egiteko kapaz da».

«I’m a queen» laburtu zuen Ikek.

«A fucking queen!» erabaki zuen Seanek, oholtza erdian goma beltzezko pasarela batean ageri zen zerraldoa seinalatuz.

Jexus Mari

«Hik egintzak zuloa basoan» agindu zion Harakinek Jexus Mariri, komandoko buruzagiaren plantak harturik.

«Nahiz eta agindutakoari buruzko zalantza ugari izan» argituko ziokeen Jexus Marik Mireni noizbait ere aukera izan balu, «basoa oso zabala dun». Ez zion txintik ere atera; burua Bazterrengana jaso, gero Ferminengana, eta bere horretan utzi zuen, kristaletik harantzako arbolen berde izugarriari erreparatzen zion bitartean.

Hirurak Harakinen agindu gehiagoren zain gelditu ziren, zerbezak ezpainetara eramateko mugimenduez estuasuna arindu nahian.

«Nik burdinak estalita zauzkat, baina ez zeudek leku seguruan; hortaz, hik leku seguru batean zuloa egin ondoren hara eramanen ditiagu. Egun osoa basoan habil eta ez duk arazorik izanen. Izan dadila leku erosoa, aldi berean ezkutatua, eta handik ikusten bagaituzte zertan gabiltzan inork ez susmatzekoa. Entenditu duk?».

Baiezkoa betazalak jaitsiz egin zion Jexus Marik.

«Zuek, bitartean, zer ekintza egin dezakegun pentsatzen joan behar duzue. Non jo, informazioa bildu. Esate baterako, Altsasun kuarteletik kanpo bizi diren guardia zibilen zerrenda egin eta haien mugimenduak apuntatu; ondoren ikusiko diagu nora jo».

Fermin amorraturik izanen duk dagoeneko, pentsatu zuen bere artean Jexus Marik Harakinen ustezko buruzagi manerei erreparaturik, Fermin baino gehiago bera izorratzen zutelako gogoeta egitera ailegatu gabean. Andiako zelaietan aztertzen zituen sailetako sai buruzagia zirudien, gorpuaren gaineko nagusitasuna inposatzen.

«Ikastaroa egitera ere joan beharko diagu. Pentsa ezazue zuetako nor joanen den» esan zuen Harakinek, hura behintzat joanen zela argi utziz. «Nik pentsatu diat Jexus Mari eta biok joan gaitezkeela. Behin ikasitakoan, zuei ikastaro azkarra eman. Horrela egiten duk».

Jexus Marik harriturik begiratu zion, uste izan baitzuen Bazterren izena entzunen zuela Haraki-

nengandik, baina ez: Neroni aukeratu naik. Harrotasunaren narrasti beroa nabaritu zuen sabelaldea inurritzen, Andia aldean arratsalde bakartietan binokularrekin behatzen zituen miru gorrien antzean sentitu zen, baketsu, indartsu, Ergoienako bailara osoa menpera balu bezala. Eta arestiko Harakin eta egoerarekiko jarrera ironiko eta utzikeriazkoa faundu zitzaion, eta serioagoedo jarri zen hari zenera.

«Komando bat osatuko diagu, ez duk broma gero!».

Fermin eta Bazterri begiratu zien, garaitzaren eztia haien bisaien zaputz keinuetan hobe dastatzeko. Ez zioten ezer esan, hutsik ematen zuten, Harakinen aho txuloari begira.

«Pixkanaka-pixkanaka hasi beharko diagu» esan zuen Harakinek, «hasieran ekintza txikiak egin, eta gero sar gaitezkek gauza handiagoak egitera».

Baiezkoa egiten ikusi zituen Bazter eta Fermin. Bi txotxongilo dituk.

«Bazekiat non eginen dudan...», ‘dudan’ aditza azpimarratu zuen, «...zuloa!» Miren beti eraman nahi izan zuen zoko batean eginen zuen, Li-

zarragako portuan bertan. Sai sail nagusiak habiak zeuzkaten tokiaren azpian.

Hiru aurpegiak berarengana itzultzen ikusi zituen.

«Ezkutaturik zegok?» galdetu zuen Harakinek.

«Bai. Arazo bat zeukak: urtean behin jendez betetzen dela, baina bestela ezkutuan eta ailegatzeko erraza».

Igande arratsaldean Bazterretxean kafea hartzera agertu zenean, barrara ondoratu eta kafea eskatzerako bazekien Jexusak eta Bazterrek liskarra izan zutela; igande arratsaldea izanik, Bazter barraren atzean gelditu beharrean bazihoalakoz, seguru aski.

Jexus Marik neguko arratsalde eguzkitsurantz begiratu zuen. Estirekin ari zen Harakin eguzki errainutan, Iruñera zihoala ezin azalduz; Estik ez zuen konprenituko Harakinek, zena zela, haiekin joan ezin zueneko aitzakia, eta muturtu eginen zitzaion, Harakinek burutik iraganen zitzaizkion arrazoi andana hartan funtsezkoa irudituko zi-

tzaion bakarra ezin bilatuz, totelka egiten zuen bitartean. «Ez baditugu gauzak ongi egiten, Esti berehala hasiko duk zerbait sumatzen». Xuabetasunak alde batera utzi eta zakarkeriaz erabakitzen ikusi zuen Harakin Jexus Marik.

Estik agurrik gabean alde egin zuen. Mirenek, Estik Harakin ez bezala, konprenitu eginen zuela pentsatu zuen; aitortu ere, aitortu eginen zion komando bat osatu zutela.

Harakin aire suspirio batean sartu zen Bazterretxera.

«Jexusa, hutsa!» oihukatu zion garrasiaren bidez barea etorriko zitzaiolakoan.

Jexusak zeharka begiratu zion. «Hi, niri ez egin garrasirik. Normal hitz eginda ere aditzen diat» erantzun zion lehor, eta sukaldeko errezeletik barna galdu zen.

Harakin hitza ahoan gelditu zen, Jexus Mariri azalpenak eskatuz. Jexus Marik sorbaldak jaso zituen eta zigarroari tiratu zion. Bazter jaitsi zen. Kanpora atera ziren elkarri ezer esan gabe. Fermin karrikan gora zetorren, eta Bazterretxera ailegatzera esperatu gabe autoan sartu, arrankatu eta bidean hartu zuten.

«Hauek presak!»,

Inork ez zion erantzun. Andia aldera jo zuen Jexus Marik. Beriain agertu zitzaien aztore lako hodei bakan batzuen artean. Larreak eta harantzago baso bisutsak malkor griskaren kontra: Andia, lerro iluna eta zeru urdin-zuria. Aurrean, abere lokartu baten antzera, errepide zilarreztatua zuzen-zuzen porturantz. Citroen Visa bat agertu zitzaion Jexus Mariri erretrobisorean. Urduri jarri zen. Tira gizona, auto bat dualako atzetik eta urduri, hori hire burua salatzea duk. Eta hala ere azeleratu eta atzean utzi zuen Citroen Visa gorria. Isilik bazihoazen ere, Jexus Mari Harakinen «Non egin duk zuloa?» galderaren espera zegoen. Dorraoko gurutzea iragana zuten. Negu atzeneko arratsalde hark udaberriaren etorrera aurresaten zuen. Basoak garbitzen hasi beharko zuen astelehenean. Udaberria zen basozaintzan lan gehien egiten zen urtaroa: basoak garbitu, zuhaitz gaixoak ahal zela sendatzen saiatu, udako turistendako bide seinale ezabatuak berriz ere margotu. Lantokia iruditu zitzaion arratsaldea, eta gabiraia eta eskinosoa harmonian behatu zitueneko arratsaldea etorri zitzaion

gogora. Harritu egin zen gabiraiarendako harrapakin ederra baita eskinosoa, basoko hegaztirik ezkutuenetakoa; eta pentsatu zuen, Miren eta bera bezala zirela, bata bestearen harrapakin izan zitezkeen bi, harmonian ez bazen, bata bestearen ondoan. Dena dela, gutxi iraun zuen ikuskizunak, izan ere, gabiraiak zerurantz egin eta amil egin baitzuen eskinosoaren gainean. Ez zuen lortu, binokularrak gorabehera, gero zer gertatu zen ikustea. Harakinek zigarroa eskaini zion. Hartu egin zuen. Sua ematen zion bitartean egin zion zorioneko galdera:

«Non egin duk?».

Fermin eta Bazterren bisaia ikusi zuen galderaren erantzunaren gose.

«Ikusiko duzue» esan zuen irabazlearen pozaz.

Berriz ere Citroen Visa gorria erretrobisorean azaldu zitzaionean poza zapuztu zitzaion. Portuan zihoazen sigi-saga, eta ezin zion lehentxeago bezala azeleragailuari erruz sakatu eta autoa atzean utzi. Autoa pega-pega eginik jarri zen eta bere baitako errezeloa, arrazionalki ergela irudi-

tzen bazitzaion ere, besteei aitortzea baino beste erremediorik ez zuen izan:

«Herritik atera garenetik atzean diagu» esan zuen zertaz ari zen esan beharrik gabean.

Hirurek atzera begiratu zuten.

Citroena balazta eginez atzean gelditu zen.

«Ez duk ezer. Normala duk gu urduri egotea eta edozein tokitan Polizia ikustea» lasaitu zuen Harakinek ibiliaren aholkuz.

Kurba hartu zuenean erretrobisoretik desagertu zitzaion Citroena. Lasaiago nabaritu zituen barrunbeak Jexus Marik. Atzera begiratu eta Ferminen aurpegia ikusi zuen huts. Bazter atzera so zihoan, Citroena bereizi nahian.

«Hasieran gertatuko zaiguk» jarraitu zuen Harakinek segurtasun tonuarekin, «denak gure atzetik dabiltzala, denak poliziak irudituko zaizkiguk, baina gero ikasi eginen diagu».

Portuko iturria iraganik zuten, eta Jexus Marik gelditzeko asmorik ez zuelako harridura keinuz galdetu zion Harakinek; Jexus Marik erantzunetarako aurrera eragin zion buruari, martxari eragiten zion bitartean.

Citroena ikusi zuen berriz ere erretrobisorean, Bazterren buruaz harantzago. Burua aurrera jiratu zuen Bazterrek, ondoren izuturik begiratu zuen erretrobisore aldera Jexus Mariren laguntza bila. «Hara zer paranoia!».

Autoa pega-pega eginda jarri zitzaien berriro. Tunel aurreko azken kurbara ailegatzear zeuden. Kurba utzi eta bazen malkortegi bat. Pasaezina zirudien, baina sasi tartean sartuz gero ia antzeman ezinezko xenda bat ageri zen malkorretan gora, atzean halako lautadatxo txikia osatzen zuten malkorrek, horma antzeko bat eginez. Citroen Visa gorriak aurreratu egin zituen. Barneko gizon gaztea begira gelditu zitzaien. Jexus Marik erretrobisoretik izua ikusi zuen Ferminen eta Bazterren aurpegietan.

«Joan dadila kabroi hori!, ailegatzear garaeta».

Laurak auto gorriari begira gelditu ziren. Kurba ezkerretara hartu zuenean desagertu egin zitzaien une batez. Berriz ere agertu zitzaien, kurba eskubitara hartu baino lehen. Eskubi lagundu zioten laurek batera. Erabat desagertu zitzaien begi-bistatik.

Jexus Marik lehendabizikoa sartu eta aurrera egin zuten. Haiek ere auto gorriak hartu kurbak hartu zituzten: ezkerretara lehendabizi, eskubitara ondoren. Berrehun metrotara aurre-aurrean zegoen tunel aurreko azken kurba. Ailegatu zirenean zuzen jarraitu zuen Jexus Marik asfaltoa utzirik. Arroilatxoan sartu, hautsa harrotuz balazta egin eta motoreak gelditu zituen Jexus Marik.

«Hemen duk».

Autoarendako adina leku zegoen. Ezkerretan malkortegia hedatzen zitzaien oinetara. Eskubitara harrizko ezponda horma bat osatuz.

«Eta autoa?» galdetu zuen Harakinek; «ikusi eginen duk errepidetik etortzen garen aldiro».

«Ez duk ikusten, frogatua diat» erantzun zion Jexus Marik.

Denak atera ziren kurbak egiten zuen lautadatxora. Egia zen, harrizko hormak ezkutaturik gelditzen zen.

«Oso ongi zegok» poztu zen Harakin.

«Ikusten duzue xenda hori» esan zuen Jexus Marik erpuruaz horman gora zihoan xenda seinalatuz, «hortik».

«Goazen» agindu zuen Harakinek. «Non zegok Bazter?».

«Bazter!» oihukatu zuten.

Espera gelditu ziren. Inor ez. Jexus Marik jauzi egin eta errepide aldera jo zuen. Han zegoen Bazter, Citroen Visa joandako errepideari so.

«Bazter!».

Itzuli zenean oso zurbil zegoela ohartu zen Jexus Mari.

«Ez duk ezer, gizona. Hasiberriak gaituk, eta berehala enparanoiatzen gaituk».

Saiak hegaldatzean egin zalaparta aditu zuen.

Marck

Felipe eta Manolo goizeko ordu bata aldera kostata aterarazi ondoren, atea ixtera zihoanean hartu zuen susmo txarra Carlosek. Gauari behatu zion ate bokaletik. Ez zebilen autorik, ez eta arimarik ere, baina bizkarrezurretik hotzikara batek eraso zion. Azken boladan, komandoa osatzea erabaki zutenetik, «ekintzarik», Harakinek esaten zuen bezala, egin ez bazuten ere, paranoia mailak goia joa zion Bazterri; nonahi agertzen zitzaizkion auto susmagarriak, guardia zibilak iruditzen zitzaizkion tabernan agertzen ziren kanpotarrak, soinurik txikiena ere bila zetozeneko irudipenarekin lotzen zuen. Hala ere gau hartan desberdina izan zen, ez zegoen susmatzera bultza zezakeen ezer, baina usain ezezagun baten kera erantsi zitzaion; « Beldurra ote zen?» galdetuko zion Marcki, «esaten dute beldurrak usaina duela; usain hura gozoa zen, likitsa, lodia, are erotikoa ere bazela esanen nuke».

Ohatzera beharrean telebista ikustera eseri zen, gertatzear zegoenari espera; Marckek, ge-

rora, ‘ihesaldi autistan’ bataiatuko zion horretan aritzera. «Oteizak ostrukaren estrategia deitzen zuen horretara; alegia, errealitatea ez balitz bezala jokatu eta mundu propiala sortzera» azalduko zion Marcki, Ikeren arazoa sortu eta noren alde egin behar zuen argitzeko erregutu zionean.

«Ez dakit» erantzun zion Carlosek.

«Ez dakit; potrotaraino nago» oihukatu zion Marckek; «erabaki orain! Ekintzozu zure ihesaldi autistari», mandoa hartu, telebista izeki eta sofa gorrian utzi zuen, atea danbateko batez itxi aurretik. Garai txarrak!, bai. Orduan ere telebistaren aurrean eseri zen Bazterretxeko sukaldeko silla gogorretan, tarteka, beldurrez urturik, karrika hutsera kirika egiten zuela. Noizbehinka jaso, telebistaraino gerturatu, bolumena jaitsi eta gauak ekar ziezazkiokeen hots eta soinu apurrenei adi egoten zen. Ezer ez. Errepide jeneraletik ere ez zebilen inor. Odolaren soinua baino ez zuen entzuten lokietan. Bolumena zertxobait igo eta berriz eseri eginen zen irudien aurrean zozoturik gelditzeko. «Zein film ikusten ari izan nintzen ez baldin banekien ere» esanen zion Marc-

ki, «betiko iltzatu zitzaizkidan ninietan». Are gehiago, batzuetan bat-bateko sukar ilaun batek jota, British Film Institute-ra joan eta filmak arakatzen aritzen zen irudi haien bila. Zuri beltzean, gizon bat ailegatzen da maleta beltz batekin herri batera; gizonak, herrian sartu ahala, jendea etxeetan nola ezkutatzen den nabaritzen du; hasieran uste du hargatik dela, baina, hobeki erreparatu ondoren, maletarengatik dela ohartzen da; maleta lurrean utzi eta itzulika hasiko da; kuzkurtu eta maleta irekitzera doanean, atzera egiten du izuturik, eta horrela behin eta berriz.

Lokartzen ari zela auto baten burrunba entzun zuen karrikan gora. Jaiki eta atzeko aldea ikustea baino ez zuen lortu. Citroen Visa bat, Citroen Visa gorri bat iruditu zitzaion. Telebistaren aurrean eseri zen berriro, bolumena igo gabe oraingoan. Harakin etorri zitzaion burura. Abisatu beharra zuen. Baina zertaz abisatu? Citroen Visa Gorri bat ikustea iruditu zitzaiola esanen zion? Eta zer zeukan horrek arraro, bi-edo baziren herrian bertan; Guardia Zibila ikusi uste zuela esanen zion, baina non ikusi zuen ba? Susmoez mintzatuko zitzaion, baina usteak baino ez

ziren. Paranoia, Harakinek begiratu beharreko indarra bataiatu zuen hura, gain hartzen ari zitzaion, eta ezin zuen errezelo eta uste paranoikoekin Harakinengana joan, baina, bestalde, beste Bazter bat, telebista zegoen tokian eseri, usain gozo hari usnaka egin eta zerbait mehatxagarri gertatzear zegoela abisatzen ari zitzaion dardara betean. Marckek *astonishing* adjektiboa erabiliko zuen kontatzen zion aldiro, gehienetan Marckek berak hala eskaturik, gero zera gehitzeko: «Etorkizuna hori baino ez da, gure buruen isla denboran, eta neurri horretan asma dezakegu nolakoa izanen den isla hori».

Bazterretxeko atzeko atetik atera zen. Atzekotetako bide lokaztuak erabiliz bost minututan Harakinen etxean zegoen. Hesiaren gainetik salto egin eta Harakinen gelako leiho azpian kokatu ondoren, pissska hasi zen. Uluka baleki sikiera!, baina ez zekien eta pissska jarraitu zuen, harik eta harri bat ikusi zuen arte; harriak kaxk egin zuen kristalean, kaxk bigarrenak. Leihoak itxirik jarraitu zuen, eta hala ere zerbaitek esaten zion Harakin leihoaren zirrikitu batetik ari zitzaiola begira. Etsita, hesia gurutzatu eta etxe-

rantz abiatu zen. Ergelkeria iruditzen zitzaion egin zuena. Nola bururatu ote zitzaion, beste arrastorik gabe, zerbait gertatzen ari zela? Noiztik zion konfiantza intuizioari? Paranoia kontrolatu beharra zuela agindu zion bere buruari, hitzak ozen ahoskatuz indar gehiago lortzeko. Beharrik ez zuen Harakinek ireki!, bestela ergel bat bezala sentituko zen. Zerbaitek adakera eman zidak eta zerbait gertatzear dagoela abisatzera etorri nauk goizeko ordu bietan, leihoan harri hotsak eginez. Nola begiratuko zuen Harakinek? Begien bistan egiten du, erpurua lokietara eramanik, hi arras jota hago esaten.

Atzekotak utzirik kantoira egin duenean, distira ezohiko batek asaldatu du bat-batean. Citroen Visa Gorria. Citroen Visa Gorria bi beltzune zituela barnean. Berehala ohartu da sekretak direla. Gero ikusi ditu landrover ilunak zaratarik gabean, kapoetan leinuru iluna, Harakinen etxerantz pasatzen.

Izu-laborriak jota leinuruari begira gelditu da, liluraturik ikuskizun hipnotiko batetik begiak ezin bazterturik bezala beste mundu bat populatzen. Ohartu denerako farolaren argipean zegoen,

begi-bistan ia, ikuskizunak erakarrita. Ikaraturik atzeratu da, eta orduan ohartu zerbait egin beharra zeukala, kapotan leinuru iluna egiten zuten munstro horiek bere bila ere etor daitezkeela. Bihotza jauzika hasi zaio etxera bidean. Zer egin?

Marcki esanen zion gerora, ihes egitea pentsatu zuela lehendabizi, poltsa bat hartu eta arropak sartzen ere hasi zela, baina berehala ohartu zela ez zeukala nora joan. Ohatze gainean eseri zen une batez, bentzuturik. Argia itzali zuen. Citroen Visa gorria etorri zitzaion burura, Lizarragako portuan gora atzetik etorri zitzaien Citroen Visa gorria. Harrapatu gaitiztek! Eta usain likitsa berriz ere, sabeletik gora egiten zion azkura laztankor batekin batera. Sabeleko giharrak ferekatu ditu, hankarteraino eraman du eskua. Beldurra.

Fermin Donostian zegoenez, Jexus Mariri hots egitea bururatu zitzaion, baina telefonoa eskuetan gelditu zen. Seguru guardia zibilak etxean dituela dagoeneko. Iluntasunak irudiak ikusarazi zizkion: Jexus Mari etxeko logelan, seko lo; Harakin lurrean etzanik ostikoka zerabilten bitartean,

guardia zibilak Harakinen etxea arakatzen, Harakinen gurasoak gertatzen ari zena ezin sinetsirik.

Zerbaitek esaten zion ihes egin beharra zeukala, ezin zuela, ez zegoela Euskal Herria, edo zena zenaren alde kinka hura pasatzeko prest, zetorkionak orbainez beterik utziko baitzion bihotza eta herren gogoa. Komisaldegian emanen zizkioten kolpeek, bainerak, poltsak edo umilazioek sortu zioten izu-laborriaz gain, bizitza osoa aldaraziko zuen zerbait izugarriagoa gertatzear zegoela usaindu zuen; jada idatzitako patu bat, harlauza baten gisa gainera.

Burua astindu zuen haluzinazioari ihes egiteko. Titiburuetatik zakileraino kilikatzen zuen usain laztankorra lagun, goizalbaren espera egonen zen. Eta goizalbarekin guardia zibila.

Fermin

Estudiante pisuko atea hautsiz sartu ziren polizia nazionalak Fermin atxilotzera. Furgoian etzanarazi zuten Iruñeko Komandantziako bidea egiteko. Zirrikituetan bilatzen zuen argi gabeziak eragindako arnas-estuasunerako aringarri. Txikitatik izan zion beldurra ilunpeari, birikek haizatzeari uzten zioten eta, hatsa hatsari emanik, ito beharrean jartzen zen.

Zirrikituan paratu zuen begia. Karreterako marra zuriak ikusi zituen, jarraiak batzuk, aldikakoak besteak. Pixka bat lasaituz berera itzuli zitzaion arnasa. Furgoiaren burrunbak aldapan gora zihoazela adierazi zion. Izu-laborria eragin zion Komandantziara ailegatzean zetorkiokeenak. Berriz ere zirrikiturantz etzan zen airea edan nahian. Berdea ikusi uste izan zuen.

Zer gertatu ote da? Komando ederra egina gaudek gu! Ezer egin gabe eta atxilotu gaitiztek.

Alizia ikaratu egin zen pisuko kanpoko atea hautsi eta sartu zirenean. Gero hustasun imintzio batez ezkutatu zuen beldurra. Erdipurdiko

heroiak. «Baina nora zindoazten? Zein Euskal Herri askatu behar zenuten? Esnatu!, Euskal Herriak ez du askapenik behar! Euskal Herriak, zerbait behar izatekotan, Bakearen aldeko erakundeak behar ditu» gehituko zuen ahots oldarkorregiaren garra esku laztan batez leunduz. Sutzen zenean desioa hedatzen zitzaion oldeka, eta askotan bukatu izan zuen Aliziarekin politikaren gaineko eztabaida ohean.

Furgoian, hatsa hatsari emanik, horrela pentsatzen ez bazuen ere, bazekien komandoa osatu zutenetik bertatik, berak ez zuela heroi senik, ez eta Bazterrek ere, Harakin zela heroi sena izan zezakeen bakarra, eta beharbada Jexus Mari; ez bakarrik Harakinek *konbikzio* politiko indartsuagoak zituelakoz, baizik eta berak, eta Bazterrek, eta seguru aski Jexus Marik, heroi izateko inkontzientzia maila txikiegia zutelakoz, edo bestela esanda, burua senari gailentzen zitzaiolakoz.

Non egonen dira besteak. Eta nola? Atxiloturik seguru. Kontuak atera zituen, bera atxilotzera Donostiaraino joan baldin baziren, besteak herrian bertan harrapatu eta harrezkero komi-

saldegian egonen ziren. Argiarekiko izuari zetorkionarekiko izuak gain harturik dar-dar hasi zen; ez zegoen heroitarako egina, esana zion Bazterri ETAn sartu nahi zuen galdetu zionean.

Luze egin zitzaion Iruñeko bidaia, nahiz eta ailegatzeko gogorik ez izan. Burua beherantz, gela ilun batean sartu zuten bultzaka. Muturrez erori zen eskuak bizkarrean esposaturik. Furgonetako zoruan bezala gelditu zen ilunpetan, argi zirrikiturik batere gabe. Arnas-estua egin zitzaion berriz ere. Atera beharra zuen handik, hala edo hola, atera beharra zuen, lehertu eginen zen bestela.

«Aquí tenemos a otro» entzun zuen polizia argia piztu eta gelara sartzen. «¿Qué nombre se habrían puesto si les hubieramos dado tiempo?» esan zion atzetik iritsi zenari.

Fermin sillan eserarazi zuen eskubiarekin zaplazteko bat joz.

«Zer moduz, Fermintxo?» galdetu zion euskaraz, polizia bat euskaraz entzuteak sortuko zion harridura irribarre batekin gozatuz.

Fermin, zaplaztekoaren berotasuna masailean eta soinua belarrian, zur eta lur gelditu zen

polizia euskaraz entzundakoan. Polizia bat euskaraz, Fermin, zer iruditzen zaizu polizia bat euskaraz?

Esaldia bukatu bezain laster ukabilkada jo dio aurpegian. Fermini malkoak etorri zaizkio begietara. Eta malko artean Harakin etorri zaio gogora, egitera zihoazen ekintza guztiak aipatzen.

«Beno eta zer pentsatzen zenuten egitea? Nor hiltzeko asmoa zenuten?». Euskaldun berriaren arretaz mintzatu da, dena argi eta garbi ahoskatuz. «Non duzue maleta?».

Ez dio galderari erantzun itaunari ez adituarena eginez. Burua kolkoan sartu du malkoak estaltzeko.

«Egin, egin negar orain... Galdetu dizut non dagoen maleta, non ezkutatu duzue?».

Lepazaineko eder bat etorri zaio galderarekin batera.

«Nik ez dakit ezer maletari buruz».

«Maleta ez bada azaltzen, ez zarete hemendik aterako».

Beste zaplaztako bat etorri zaio gainera. Fermin negarrez hasi da.

«Ez egin negarrik, ergela! Zure laguntxo Carlos ere negarrez ari da. Goapoa da zure laguntxoa, ezta? Oso gustatzen zaio jendeari?».

Bigarren poliziak barre egin du keinu lizun bat eginez. Giharrak tenkatu ditu berriz ere Ferminek, galderaren ezustekoak ekar diezaiokeenari aurre egiteko prest: buruan kolpe bat?, ostiko bat potroetan?, Bazter salatzea?

«Oso goapoa!».

Listin lodi batekin jo du buruan. Fermin sillatik erori da. Lurrean gelditu da animali zauritu baten gisan, haizea edan ezinik tunel bateko irteera begi antsiatuekin bilatuz.

«Oso goapoa!».

Barrezka hasi dira bi poliziak. Atea zabaltzean barreak izoztu zaizkie eta isildu egin dira. Takoien kolpe lehorra entzun du *koadratu* direnean. Ferminek behetik gora begiratu dio etorri berriari. Atzean duen fluoreszenteak errainu egiten dio, baina orbain gorrikara bat ezpainaren ezker ertzetik kokotserantz nabaritzea iruditu zaio. Etorri berriak Fermin kokotsera begira daukala ohartzean eskua eraman du orbainera. *Descansen* esan ondoren txutxumutxuan aritu dira

etorri berria eta poliziak. «Ez dakigu ezer maletari buruz» ulertzea iruditu zaio Fermini. Urratsak entzun ditu, eta atea berriz ixten.

«Hori ere, joan den hori ere, oso goapoa da» esan du polizietako batek atea itxi eta berehala. Barrez lehertu dira berriz ere.

Ferminek begiak altxatu ditu poliziei zuzenzuzen so egiteko. Ostikoa etorri zaio.

Baina zer esan nahi du goapoarekin?, kontu hori gurutzatu zaio garunaren leku apartatuenean. Bazterrek esandakoaz akordatu da, desgrazien aurrean beste izateko, eta beraz desgrazia berari gertatu ez balitzaio bezala egiteko. Beste bat izanen da Bazter orain, dagoen ziegan dagoela? Saiatu da buruan eta ijara aldean duen minetik urruntzen, oinazeari paisaia bati bezala begi ematen, ziztada mingarriak besterenak balira bezalako axolagabeziaz sentitzen, baina hutsalean utzi dio ahalegina beste ostiko batek.

«Zu ere oso goapoa zara!» oihukatu diote algara artean.

«Non dago maleta, goapo?!».

Ferminek ez zuen ulertzen zergatik segitzen zuten hortik, zergatik ez zioten galdetzen ko-

mandoari buruz, edo egin nahi zituzten ekintzei buruz, edo ezagutzen zuten jendeari buruz.

Lehendabiziko poliziak pentsamendua irakurri izan balio bezala esan dio: «Esan beharreko guztia esan digu komando buruzagiak», eta azpimarratu ditu azken bi hitzak tonu ponposoan: «komando buruzagiak».

Barre egin dute biek:

«Galdeketa hau libertitzearren egiten ari gara».

«Estos de ETA si no tienen un par de hostias» zuzendu zaio beste poliziari.

Algaren artean ostiko bana bota diote Fermini sabelean. Kuzkurtu egin da eskuekin sabela babestuz. Izugarria da oinazea. Berriz ere paisaia bateko figura urruna bezala pasatu zaio oinazetik urruntzeko pentsamendua.

Aliziari kontatzean, arraroa dela baino ez dio esanen: «Arraroa, goapotasunarena, ez horren arraroa zuek erdipurdiko heroi gisa tratatzea».

«Konbentziturik nagoelako» erabakiko du Aliziak, poliziak bezain zehatz ahoskatuz euskaraz, «heroi guztiak direla erdipurdikoak, une batez baino ez direlako heroi, eta beraz, ez direla he-

roikeriek eragindako kalteak konpontzeko nahikoa heroi».

Ferminek, komisaldegitik iragan ondoko ahuleziatik sendatzeko Aliziaren besoetan babesturik, ez zuen izanen arrapostu egiteko kemenik, alde batetik. Gertatutakoa arrazoitu eta ordenatzeko beharrari erantzuten lagunduko ziolakoz Aliziaren hitz jario agintzaleak, eta bestetik, gogo eta gorputz sasildua osatzeko Aliziarengandik hurrupatuko zuen maitasun hasiberriaren morrontzetako bat pagatzen hasi beharra zuela susmatuko zuelako.

«Goapoa, hi ere oso goapoa haiz» esan zion gelditzen zen poliziak potroak igurtziz, argia itzali eta gelatik atera zenean.

Harakin

«Asko jo zaituzte?» itaundu zion Estik aurpegian laztan egiten saiatuz.

Harakinek laztanari ihes egiteko aurpegia atzeratu eta ezezkoa egin zion buruarekin.

Vuelta del Castilloko aulki batean eserita zeuden Harakin komisaldegitik atera ondoren. Bazter, Jexus Mari eta Fermin barnean zeuden orain-dik.

«Asko jo zaituzte gixajo nirea?».

Gora eta behera eragin zion buruari, nahiz eta ezezkoa, Estiren galderari edo beste zerbaiti, zeri egin zion argi ez egon.

«Nik zainduko zaitut, maitea».

Utzi egin zion Estiren eskuari aurpegitik pasatzen. Larru azalaren laztana, haizekirri fresko bat. Langarrari eman zion.

Gizon ezezagun bat eseri zen pareko aulkian. Hotzikarak zeharkatu zuen Harakinen gorputza.

«Aldatuko gara tokiz?».

Ezezkoa berriz ere. Erreka jota zegoen, mina egin zioten, gorputzeko minaz harantzagoko oinazea.

Aulkiko gizonari eta zeraman maletari begiratu zion, polizia ote zen igarri nahian. Esti berehala ohartu zen zer zerabilen buruan. Laztan egin zion berriz.

«Ez dauka itxurarik».

«Ez» esan zuen azkenean.

Gizonak, aulkian bakarrik, begirada izua eta itxura deslaia zeuzkan.

«Bazter ez dute jo» esan zuen urrutiko ahotsez. Ijaretako mina nabaritu zuen. Mahuka jaso eta besoetan zuen odolbildua laztandu zuen, gero langarretan uzteko. Ttantta ñimiñoek urdina zipriztindu zuten.

Gaztainondoei erreparatu zien. Berdeak griskara metalikoaren kera hartu zuen.

«Eta?».

«Ba hori, ez dutela jo».

«Ikusi duzu komisaldegian?».

Baiezkoa egin zuen. Elastikoaren bustidura nabaritu zuen bizkarrean behera.

«Maleta batengatik galdetzen ziguten. Nik ez dakit zer maleta, baina maleta gora maleta behera ibili dira barnean egon garen egunetan».

Estik ez zion ezer esan. Berdetasunean galdu zituzten begiak.

«Ez dakit nola harrapatu gaituzten!».

«Norbaitek kantatuko zuen».

Ezezkoan eragin zion buruari.

«Kontaktua oraindik libre dago».

Biek gizonarengan pausatu zuten soa. Langar ahula neurtu zuen esku ahurrez. Larruzko maleta beltza hartu eta estalkia jaso zuen. *Ferraje* urreztatuek, larru granatezko giderrak, larru beltzaren distira amiantozkoak begi-bistatik ezkutatu zien gizonaren aurpegia.

«Beno horrek ez du inporta orain. Aske zaudete».

«Ez dugu ezer egin».

«Zer esan nahi duzu?».

«Ez dugula ezer egin».

«Bai, hori entzun dizut, baina zer esan nahi du horrek» esan zion Estik egonarria galtzear.

Langar berdean emakume eta muttiko bat hurbildu ziren gizonarengana. Gizonak maleta

itxi zuen, baina ez zen altxatu ongi etorria egiteko. Aulkian eseri ziren muttikoa erdian zutela. Muttikoa atzeratua zen, eta gizonari begiratzen zion lehendabizi eta gero emakumeari. Gizon-emakumeak ez zioten elkarri hitzik egin.

«Asmo asko genituen».

Esti azalpen gehiagoren espera gelditu zen.

Isiltasuna ezarri zen bien artean. Koadrila Isila osatu zuten gizona, emakumea eta mutikoarekin. Denak Indi gaztainetan langarraren kolore griskaran deslai.

Bazekien Estik ez ziola horren inguruan galderarik eginen, eta hitzen bila ari zen.

«Ekintza asko egiteko asmoa genuen eta...» gelditu egin zen.

Gizonak maleta eman zion emakumeari mutikoaren gainetik. Ferraje urreztatuek errainu histua egin zuten.

«...borrokarako asmoak genituen; ez dugu ezer egin eta atxilotu egin gaituzte; erreta gaude ja».

Tonuagatik esaten ari zena baino gehiago esan nahi zuela igar zitekeela ohartu zen. Esan

nahi zuena baino gehiago esan nahi ote diat?, ausartu zen galdetzera bere baitan.

«Ez dakit nola harrapatu gaituzten!».

«Ez eman buelta gehiago horri», Estik. Besarkatu egin zuen. Harakin gorputz hila bezala utzi zen besarkatzen, ijaretan zeukan mina gorabehera.

«Zer moduz ikusi duzu Bazter?».

«Ez dute jo».

«Baina zer moduz zegoen?».

«Nahiko erorita».

«Ez dugu ezer egin eta erreta gaude. Ez dakit nola harrapatu gaituzten!».

Tonuaren bortitzak isilarazi zituen.

Emakumeak, altxatu, umeari bi musu eman eta alde egin zuen, gizonari agur keinu baldar bat eginez.

«Badaude borrokatzeko modu gehiago» esan zion Estik.

Ez zion erantzun. Lotsaturik zegoen, eta eman zizkioten kolpeak baino min gehiago egiten zion lotsak.

Gizonak muttikoa besotik heldu eta emakumea joan zen kontrako norabidea hartu zuen.

Mutikoak seinalatu zituen joan aurretik. Estiri irribarre ezdeus bat marraztu zitzaion aurpegian. Gero berriz besarkatu zuen Harakinen gorputz mortua.

«Goazen Komandantzia aldera».

Besotik heldu zion Estik. Ongi etorri zitzaion, izterrean emandako kolpearen ondorioz ezin baitzuen ongi ibili.

Musu bat pausatu zuen Estiren kopeta bustian.

Marck

Feliperen autoa plazara ailegatu baino lehen ikusi zuen Bazterrek jendeketa. Ukondoa ijaran sartu zion Fermini, eskuarekin plaza aldea seinalatuz. Ferminek autoaren leihotik kirika egin eta galdera keinua luzatu zion buruaz, Zein dituk horiek galdetuz bezala. Bazterrek ez zion erantzun, baina ikusi ahala jakin zuen ongietorrira hurbildutako jendea zela, pankartak eta ikurrinak airean. Bazterri masailak gorritu zitzaizkion. Ez zuen jenderik ikusi nahi, hautsirik zetorren, bazekien sekula ahantziko ez zuen zerbait gertatu zitzaiola lau horma haien artean poliziaz inguraturik; hartara, iruditzen zitzaion bere baitan haragi bizian nabari zuen zauria begi-bistan ageriko zitzaiola jendeari, eta salatu eginen zuela gertatzen ari zitzaion aldaketa, oraindik, konpreni gaitz hura. Ferminen laguntza bilatu zuen, baina Fermin bera bezain hautsia zegoela iruditu zitzaion; jada ez zuen beldurrik, lau egun lehenago sentitutako izu-laborria, usain gozo eta laztankor harekin batera begiak lausotu eta hankak

dar-dar jarri zizkion beldur hura; eta mina ere dagoeneko jabaltzen hasia zitzaion, komisaldegiko atea pasa zuen unetik; halaber, urruti, oso urruti ikusten zituen duela bost egun bizi izandako paranoia haiek; iragan guztia, haurtzaro osoa, nerabezaroko kezka politikoak, Euskal Herria askatzeko egindako bilerak, betaurreko jendeketa irribarretsu hura, azken boladako desirak jostailu hautsiak bailiren agertu zitzaizkion, zentzurik gabeko puskatan barreiaturik. Lokietatik behera zetorkion izerdi tanta xukatu zuen esku ahurrarekin. Auto barneko airea loditu egin zen.

«Bentzuturik zeundeten» esanen zion Marckek, legearekin inoiz arazorik izan gabeak; baina Bazterrek, egia beharrez, ezetza esanen zion, bentzuturik ez zela hitza, edo bentzuturik ere bazegoela une hartan, baina beste zerbait nabaritu zuela: «Ordura arteko euskaldun edo basko edo dena delakoa ginela izatea ez zen jada niretzat ofizio bat, apaizgo bat, edo nahi baduzu patu astun bat. Izatearekin nahikoa nuen, zena zela izatearekin, ezer gehiago behartu gabe».

Herriko plazara ailegatu ziren. Nahiz eta hortaz modu inkontzientez oharturik egon, lotsa zen

izatearen arintasun hartaz oharturik, izan ere, patu gabetze hark, gertatzear zegoen ekitaldi hura zentzugabeturik, heroi izan nahi ez zuten heroi behartu batzuei egindako ongietorri hura hutsala bihurtu zuen.

«Zertan ari dituk hor» galdetu zion Ferminek Feliperi.

«Zertan ariko dituk!, zuei espera» erantzun zion Felipek.

«Mekagoenlaputa» zizakatu zuen Bazterrek.

«Ez ibili txorradetan orain» esan zuen Felipek.

Estiren aitaren autoa ikusi zuen haien atzean aparkatzen. Autotik atera ahala jendea txaloka hasi zitzaien. Feliperen bizkar zabalari jarraiki jendeak egin korridorean barneratu zen. Luze egin zitzaion Bazterri udaletxeko ateraino ailegatzeko tartexka. Udaletxeko atarian jendeketaren parez pare gelditu zirenean isildu ziren denak. Harakinen ama eta Ferminen ama ikusi zituen semeei musuka.

Norbaitek hitz egin beharko dik, pentsatu zuen Bazterrek; baina ez nauk ni izanen.

Harakinengana bildu zituen begiak. Bazterri komisaldegian izandako txotxongilo sentsazio itogarria iltzatu zitzaion atzera berriz kolkoan. Benetako aurpegiak agertu zitzaizkion, antzerki lan baten ondoren aktoreek, maskarak eskuetan, aurpegiak erakutsiz lanaren fikzioa azpimarratzen dutenean bezala. Harakin entzun zuen hizketan, Esti eta Jexus Mariren ondoan, milaka kilometrotara bailegoen. Jendeketa haren erdian bakarrik zegoen, Beriainen itzal erraldoiaren erdian bakarrik, biziaren barkamena mendi ankerrari erregutzen, eta urruti, gizakiez harantzagoko mundu mineral batean. Udaletxeko harberaren hotza sentitu zuen bizkarraren kontra.

«...Euskadiren askapenaren aldeko borrokan aurrera jarraitu behar dugu. Gora Euskadi Askatuta!».

«Gora!».

«Gora Euskadi Sozialista!».

«Gora!».

«Gora ETA militarra!».

Ametsezkoa iruditzen ari zitzaion Bazterri. Ametsezkoa jendeketaren inguruan borrokara deitzen zuen garrasi hura entzutea, ametsezkoa

lau egun komisaldegian pasa izana, ametsezkoa polizia hura, ametsezkoak adiskideak, ametsezkoa herria bera.

Automata moduan utzi zion Feliperi jende guztiaren aurrera eraman eta ikurrina harrarazten. Harakin, Jexus Mari, Fermin eta berak ikurrina nola zeramaten ikusi zuen. Aurrera begira zihoala ohartu zen, inori begira gabean, sorbaldak kuzkur, noizbehinka eskua burutik pasatuz. Garrasika zetorren jendea atzetik.

Etxe ataritik pasako zirela ohartu zen Bazter, ama han egonen zela tabernan, lanean, ez zitzaiola Harakinen ama edo Ferminen ama bezala plazara besarkatzera joan, seguru aski gertatu zitzaiona merezi zuela pentsatuz; eta beharbada merezi duk, oldartu zitzaion Bazter Bazterri.

Etxeko atetik iragan zirenean ohartu zen taberna itxita zegoela. Ikurrina utzi eta amari agur egitera, «Ez besarkatzera, unerik latzenetan ere ez baikinen gure etxean horrelako maitasun erakustaldien zale, sartzera deliberatu nintzen» aitortuko zion Marcki; «Ikurrina ere laxatu nuen, baina atzetik zetorren jendearen bultzada xuabe

batek berzuzendu ninduten, jolaseko tren bat deskarrilatzen hasten denean kolpetxo batez karriletan sartzen den bezala». Berriz ikurrinari heltzearekin bat, atzera begiratu zuen etxea nola urruntzen zitzaion ikusteko, gero eta urrunago, gero eta lausoago, jendearen korronte epelak aurrera akuilaturik.

Herriari itzulia eman eta plazara ailegatu zen atzera manifestazioa. Eusko Gudariak kantatu zuten.

Norbaitek besotik heldu eta haien omenean antolaturik zeukaten afarirantz gidatu nahi izan zuen.

«Ama ikustera noak lehendabizi».

Kale nagusian behera hartu zuen. Tabernako atetik sartzekoa egin, baina itxirik zegoela ohartu zen. Ate nagusitik saiatu zen. Itxirik. Harritu egin zen, ama inoiz atea ixten ez zutenetakoa baitzen. Txirrinari sakatu zion. Bizitza osoan etxeko atarian irekitzeko espera zegoen lehendabiziko aldia izanen zela pentsatu zuen. Atariaren zura latza ukitzean gaua nahasi zetorrelako ustea barneratu zitzaion. Berniz jasoaren usaina usnatzean bost egun lehenago usain gozo, laz-

tankor eta likitsaren gabeziaz konturatu zen. Balkoi aldera begiratu zuen urduritzen hasirik. Juanita aldamena ikusi zuen kale nagusia zeharkatzen. Ez zeukan zertan haren ondotik iragan, hurbiltzekoak egin zituen hala ere.

«Zer, etorri zarete?» esan zion pasadan, gelditzeko batere keinurik gabean.

«Bai» eskapatu zitzaion Bazterri.

Etxean nola sartu zen begira gelditu zen, zerbait ongi ez zegoelako gogoeta buruan jirabira. «Bai, beti bezala zen hango legea» haserretuko zitzaion Marcki, «bai erantzun nion Iruñean erosketak egitetik etorriko banintz bezala, bai urtetan eta urtetan herri hartan elkar agurtzen dutenek bezala, bai itzultzea, herrira itzultzea garrantzia duen bakarra balitz bezala, bai kanpoan ikusi, bizi eta sufritutakoak batere inportantziarik ez balu bezala».

Halako batean etxeko ataria ireki zen. Ama ikusi zuen atari bokalean suspirioa ahoan eta malkoak begietan. Leku egin zion sar zedin. Bazter ezkaratz ilunean barneratu zen. Alkohol minduaren usainak mintzak ukitu zizkion. Haurtzaroa, gaztaroa, Iraultza, sexuaren indarra!

«Zer egin didazu, Carlos» entzun zuen bizkarrean.

Itzuli egin zen. Amak pañueloa atera zuen mahukatik eta sudurrak zintzatu zituen.

«Zer egin didazu?».

«Orduan ohartu nintzen» aitortuko zion Marcki, «min-haustura eta hondamendi haren ondoren, euskaldun patu gogorra, herri hura eta kate guztiak atzean utzi nitueneko ustea hausten ari zitzaidala portzelanazko ilusio bat bezala. Zuk ez dakizu nolakoak ziren gure amaren Zer egin didazu haiek».

Marckek erantzunen zion, ama guztiek egiten dutela xantaia emozionala, haren amaren hainbat etsenplutarako paratuz, baina Carlosek ezezkoa eginen zion, haren ama, nekoso desberdina zela, xantaia egiteagatik prest zegoela bere buruari depresio bat eragitera, edo erreala bihurtuko zuen min bat asmatzera, oinazerik arinena ere sakontzera, zulo beltzena eraikitzera bizitokitzat. Histerikoa, eginen zion arrapostu Marckek, hori egiten bazuen amak, gehienak bezala, histeriko bat baino ez. Ez, esanen zion Bazterrek,

edo bai, baina baita ere ni bezain preso herri hartan.

«Ez zen ba bertan jaioa eta bertan bizitakoa?!» botako zion Marckek.

«Zu beti Londresen bizi izan zara. Zuk ez duzu ulertzen zer den herri batean bizitzea» erabakiko zuen Bazterrek.

Suspirioka eraman zuen Bazterrek ama sukaldera bidean. Errezela jaso eta taberna hutsera begiratu zuen.

«Itxita izan duzu egun hauetan, ezta?».

Baiezkoa egin zion sillan esertzen zen bitartean. Bazterrek amaren buru makurtuko ileei erreparatu zien: grisak, aspaldi ile-apaindegitik iragan gabeak. Betidanikoa baldin bazen ere, jantzian behera jarraitu zuten begiek, elastiko beltz irekia, atorren bat, kolore zikin-estalia, gona tuboa, oinetako beltzak. Isilik zeuden. Ama ordu oroko kafesnea prestatzera jaso zen. Nahi zuen galdetu zion keinu nabarigaitz batez. Gogorik ez bazuen ere, baiezko herabe batez erantzun zion Bazterrek, haien artean soka bat botatzearren. Txapa gainean bol-bolean ari zen eltzetik kafea zerbitzatzen ikusi zuen ama, gero beste

eltze batetik bi basotara isuri zuen esnea. Azukrea seinalatuz jarri zion eskuan basoa. Epeltasunak bere baitara bilarazi zuen. Hura zuen etxea, txapa hura, betikoak ziruditen eltze haien bor-borra, lurrina, alkohol usaina tabernatik sukalderaino.

«Zure aitak jakin izan balu!».

Bazterrek buruan zerabilena uxatzen saiatuz eragin zion kutxarillari. Amak trago batez eztarriratu zuen kafe basoa. Gero berpizturik bezala altxatu eta sorbaldan ukitu zuen une batez.

«Asko jo zaituzte» galdetu zuen, antsia arrasto bat ahotsean.

Ezezkoa egin zion Bazterrek, begiak malkoz bustitzen zitzaizkiola. Bi tanta lodi jaitsi zitzaizkion masailetan behera.

«Esaten nizun politikan ez sartzeko», amak.

Bizkarra jaso zuen Bazterrek negarrez. Amak altxatu eta musu bat eman zion.

«Afalduko dugu?» galdetu zion.

Baiezkoa egin zion Bazterrek buruarekin.

Kanpoko atea nabaritu zuten. «Hi, Bazter, hator afaltzera! Hastear gaituk!» entzun zuten Ferminen ahotsa.

Bazter ezkaratzera atera zen. Ilun zegoen, eta hala ere ez zuen klixketa sakatu.

«Ez nauk joanen, hemen afalduko diat».

«Baina eroturik hago edo zer? Gure ongietorria duk!».

«Ez nauk joanen».

Bakarrik utzi zuen Fermin ezkaratzeko ilunpetan.

Bazekien zerbaiten akaberan zegoela.

Jexus Mari

Autotik jaitsi eta, plazako jendeketaren artean Miren han egon zitekeela pentsaturik, buztangorri bat bezala harrotu zen Jexus Mari. Bihotza are gehiago haizatu zitzaion jendeak osaturiko korridore oihularian zehar Udaletxeko atarirainoko bidea egitean. Jendearen aurrez aurre, Miren aurkitzen saiatu zen ikurrina eta garrasien gainetik. «Gora Euskadi Askatuta, Gora Euskadi Askatuta, Amnistia Osoa!». Zirrara batek iragan zion bizkarrezurra. Bularra atera zuen puzturik. Beterik, oparo, indarturik sentitzen zen, «Nolabait esateko: gizonago; hori da hitza: gizonago» aitatuko zion Mariari, elkar ezagutu zuten eguna hizpidera ekarri zuten batean. Jendearen garrasiak isiltzean begiratu zioten elkarri, nor mintzatuko zen erabakitzeko. Argi zegoela pentsatu zuen Jexus Marik: Harakin; haren buruzagitasuna horren argi aitortzea, hala ere, ziztada baten gisa iltzatu zitzaion harrotasun puztuan.

«Gora Euskadi Askatuta!» altxatu zuen Harakinek besoa.

«Gora!».

«Lehendabizi, eskerrik asko etortzeagatik. Ezin izanen dute gurekin», oihukatu zuen, «okupazio indar guztiek ezin izanen dute herri honen garrasia isilarazi, ze herri hau bizirik baitago, herri honek indarra baitauka, herri honen zainetatik odola baitabil; Espainiako komisaria guztiek ezin izanen dute herri honen askatasun egarria ito. Eta askatasun horren alde borroka egin duten gudari eta borrokalariak gogoratu nahi nituzke, bereziki Gabi, gure herriko presoa, kartzelan bost urte daramatzana. Aberriaren alde eman dute bizitza, eta gure egitekoa haiek askatzea da, gure askapenaren alde aritu dira borrokan eta horrengatik daude preso Espainiako Kartzeletan, eta horregatik egin behar dugu lan haiek askatzeko. Eta lan egiteko modurik hoberena antolatzea da, militatzea, nahi den tokian: Gestoretan, Herri Batasunan, beste erakunde batean; baina herri hau askatzeko denok antolatu beharra dugu, eta lan egin. Euskadiren askapenaren aldeko borrokan aurrera jarraitu behar dugu. Gora Euskadi Askatuta!».

«Gora!».

«Gora Euskadi Sozialista!».

«Gora!».

«Gora ETA militarra!».

Bere buruari aitortu behar izan zion Harakin ongi aritu zela, baina berak, esaterako, ez zuen oihukatuko, abiadura pausatuagoan mintzatuko zen, «Bestela mintzatuko nintzen» esanen zion Mireni, aitorpen intimoegia egin ahala lotsaturik.

Fermin, Harakin, Bazter eta laurak paratu zituzten manifestazio buru ikurrin bat eskuetan. Poz ametsetan bezala murgildu zen kale nagusian barna, Amnistia Osoa oihuka. Harakini begiratu zion. Badik honek zerbait. Etxe ataritik pasatzean gurasoak ikusi zituen atarian: ama irribarrez; aita serio baina, ez, hala zirudien, haserre. Gurasoak politikan ez sartzeko aholkatu bazioten ere, ulertzen zuten, nolabait, gazte izanik zerbait egin beharra zegoela gertatzen ari zenaren aurka, nahiz eta gertatzen zen horri aurre nola egin zehazten saiatu ziren aldiro, batez ere aitarekin, bat ez etorri. Eskua jaso zien diosal gisa.

Atzera plazara ailegatu zirenean, Eusko Gudariari ekin zioten besoak gora. Lehendabiziko

aldia zen ereserkiari zentzua hartzen ziola: «Eusko Gudariak gera Euskadi askatzeko, gerturik daukagu odola bere alde emateko; irrintzi bat entzun da mendi tontorrean, goazen gudari denok ikurrinan atzean».

«Gudari bat bezala sentitu ginen» esanen zion Mariari, hainbat urteren buruan berriz ere topo egin ondoren elkar ezagutu zuten eguna gogoratzean; «Ni behintzat bai».

Afari herrikoira abiatu ziren. Elkarte eta plaza ondoko aldamenek, atarietan zeuden denek, komisaldegian bost egun igaro ondoren irten, irten zutela frogatu nahi bailuten arretaz erreparatzen zieten; batzuek-batzuek harrera irribarrea, Ferminenez zuria, ezpainetan; besteek, aldiz, jakinmin gaizto batek bultzaturik, gero txutxumutxuan aritzeko.

Mahai buruan eserarazi zituzten hiru atxilotuak. Miren negu gorrian horma-txoria sukalde epelean sartu modura begiztatu zuenean, egoeraren sukarrak eraginik, bestela ez baitzuen horrelakorik inoiz eginen, bera oilagorra bezala baitzen, hegazti bakarti eta herabea, begiak garondoan kokaturik aurrera nola atzera atezuan ego-

teko gauza, besoarekin agur egin eta bere ondora esertzera etortzeko oihukatu zion, Fermin eta Esti eta Harakinen aurrean nabarmenduz, iruditu zitzaion. Mirenek, Esti eta Harakin ikusi eta, zalantza mugimendu kulunkari baten ondoren, mahai luzeetan leku bila ari zen jendearen artetik aurrera egin zuen haien ondoraino.

«Zer moduz!?» zabaldu zizkion besoak Harakini, alegrantzia ahotsean.

Gero Fermin besarkatu zuen eta azkenik, bera.

«Zer moduz zaudete?».

«Ongi» erantzun zion Harakinek.

Azken ikusitakoan, urtebete-edo bazen autoko zera hura jazo zenetik, baino ederrago zegoen. Bakaikuko bidea iragan zitzaion gogotik, autoko kristal lurrinduak, gona beltza, Miren gainean, eta gero etxeko atarian barna nola galdu zen urtebeterako. Ez zegoen seguru hartu nahi zuen jarreraz, baina Mirenek zikoinaren dotoreziaz fular morea kentzean aitzakiak aienarazi zizkion bere buruari.

«Eta Bazter?» galdetu zuen Mirenek.

Elkarri begiratu zioten, Bazter haien atzean ezkutatuko balitz bezala. Felipe eta Manolorekin batera Azkunde Herri Batasunakoa gerturatu zitzaien agur egitera. Azkundek «Askatu zaituzte orduan» esanez txapla egin zion bizkarrean, Felipe eta Manolok irribarre egiten zuten bitartean.

«Bazter?! Oraindik plaza inguruan egonen da», Harakinek.

«Ama agurtzera joan da. Joanen naiz bila», Ferminek, altxaturik.

«Etorriko duk, ezta?» galdetu zuen Felipek.

Harakinek baiezkoa egin zion. Mahaiaren beste muturretik norbaitek deitu eta harantz alde egin zuten hirurek. Mirenentzat hitz batzuen bila saiatu zen Jexus Mari. Alferrik.

«Ez dela heldu» eseri zen Fermin, asaldura aurpegian.

«Nola ez dela heldu?», Jexus Marik.

«Ba hori, ez dela heldu» ebaki zuen Ferminek, Harakini azalpenak eske.

«Baina nola ez duk etorriko?!».

Ez zitzaion bidezkoa iruditu, kartzelara joatear egon ziren eta askatasuna ospatu beharra zegoen. Aiduru gelditu zitzaion Harakini, larriune

hartan zer egin jakin beharko zuelakoan. Hutsa, Harakinen aurpegia. Uste izan zuen altxatu eta bila abiatuko zela, ekarrarazi eginen zuela, komando buruzagitasunak eman autoritatea erabiliko zuela, edo, makurrenen ere, azalpenen bat aterako zela haren ahotik; baina ez.

Egon zen jaiki eta haren bila joatekotan, baina berehala erreparatu zion ordura arte oharkabeko lege bati, zeinak afera hura pasatzen uzteko agintzen baitzion.

Gauean zehar, «Denek, nire oharkabean, Bazterren gaineko itunen bat sinatu dutela egin zaidanez, zalantza une baten ondoren, bere horretan uztea erabaki dut» argituko zion Mireni, ohiko hitz urriak berriketa geldiezin bihurturik.

Afaria bukatutakoan, Fermin, Harakin, Jexus Mari, Esti eta Miren tabernetan sartzen ziren aldietan jendearen arretaren itu ziren. Jexus Marik limurtasun laztankorrez jasotzen zituen erdiheroi, erdi desio erotiko, xede bihurtzen zuten begirada haiek; Miren inguruan izateak eta eskuan fariari tiratzen zizkion bufadek areagotu egiten zioten sentsazio hura gainera. Bere burua, haren guztiaren, askapen, borroka, mugi-

mendu, iraultzaren ardatz izan izanak marraztutako keinu alaitsua kamustu egin zion Harakinen bisaia zurbil eroriak.

«Zer pasatzen zaik?».

Harakinek sorbaldak jaso zituen. Musika ozenak bat egiten zuen giro alaiarekin, jendeak ataka gaitzetik jalgia zirudien. Estiri begiratu zion Harakinekiko laguntza bila edo. Estik ezer ez zekielako keinua egin zion.

«Gizona, libre gaudek! Gaizki pasatu diagu, jo egin gaitiztek! Zergatik hago horrela?».

«Hi laostia haiz!».

Jexus Marik Mirenengan eta Estirengan bilatu zuen laguntza. Taberna osoa begiztatu zuen. Jendea kantan eta dantzan. «E, txo, gehiegi itxoiten duk».

«Ez haiz ohartzen pott egin dugula?» oihu egin zuen Harakinek musikaren gainetik. «Zergatik harrapatu gaitiztek ezer egin aurretik?».

Esti beldurrez zegoela ohartu zen Jexus Mari, Harakinen galdera haize hotz bat bezala hedatzen zitzaiola.

«Ez diagu ezer egin, ez diagu ekintza bakarra ere egin, eta nik bazekiat gure kontaktua orain-

dik libre dagoela» murduskatu zion Harakinek ia belarriraino gerturaturik, larritasuna ahotsean. Gero Mireni begiratu zion esaten ari zenaz damuturik.

«Saiatu gaituk behintzat, bai. Baina zer esan nahi duk kontaktua libre dagoelako kontu horrekin? « egin zuen garrasi Jexus Marik, *Eh Txo* Hertzainak-en kanta bukatu zen une berean.

Ondoan zeuden Azkunde, Manolo eta Felipe itzuli egin ziren Jexus Mariren garrasietara. Luze egin zitzaien laurei hurrengo kanta hasi arteko tartea. «Bakean utzi arte, utzi arte».

Jexus Marik komunera alde egin zuen, nahiz eta ez izan horretarako gogorik. Bazekien galdua zuela pentsatzen zuena Harakini aitortzeko aukera. Zerbait lotsagarri egin bailuten elkarri ezin begiratuz, tabernako giro alaiari so gelditu ziren leloturik. Haien askatasuna ospatzera etorri eta noizean behin, zeharka, desioz zein jakin-minez begiratzen zieten elastiko moredun neska gazte eta alegera haien, algaraka ari ziren mutil txupa belzdun haien alaitasun giro zalapartatsuarekiko arrotz sentitu ziren.

Estik Harakin eta Fermin besotik heldu, eta agur esanez hartu zuen etxerako bidea. Jexus Marik, etsirik, Miren harrituari desenkusa keinua eskaini ondoren beste taberna batera joatea proposatu zion. Baiezkoa egin zion Mirenek, baina hura ere urruti nabaritu zuen Jexus Marik, zegoeneko, eskuak bularrean gurutzaturik, babesera-ko prest. Gauean bigarrenekoz, Mirenen irudia etorri zitzaion Bakaikuko etxean sartzen, autoaren argi-fokuetara, ipurdi aldea, gona beltza, izterrak, atea irekitzen, atea ixten, eta gero ezer ez; gaua eta autoko kristal lurrinduak. Irudi hartako Mirenen ihesa ekidin nahian, barra-barra hasi zen edandako zerbeza ugaria lagun: «Ongi aritu da Harakin ongietorrian, baina nik beste hitz batzuk erabiliko nituen, ez duzu uste?; komisaldegian kristorenak eta bi egin dizkigute; nik uste dut, genekien hoberen egin ditugula gauzak; asko akordatzen naiz etxera eman zintudan hartaz, ongi egon zen ezta?; nahi duzu beste zerbeza bat; bai, Bazterrek etorri egin behar zuen afarira, ama ikusiko zuen bihar, baina Bazter batzuetan oso arraroa da, nik batzuetan ezin dut berarekin; eta Harakin ere, laostia da».

Isildu zenean lotsatu egin zen. Ohartu zen, Mirenek betebeharrari eusten ari zaionaren arreta-bisaia nabarmenegia zuela. Berriz ere Mirenen etxe-atariko irudia etorri zitzaion.

«Berandu da, etxera joan behar dut».

Ez zen ezertan saiatu. Ez zion esan, esaterako: «Errepikatu nahi duzu duela urtebete egin genuena», edo: «Eramanen zaitut etxera».

Autoan nola igotzen zen begira egon zitzaion, zoriaren mirakuluren batek iritziz aldatzera behartzen ote zuen espera. Lehendabizi hanka bat, gero bestea, gorputza, agur egin zion besoaz azkenean.

Zikoinaren dotorezia, birigarroaren bihotza, aztorearen sena.

Autoaren atzeko argi gorriak gauean aienatzen...

Aurreko tabernara itzuli zen. Jendeak dantzan segitzen zuen.

«Kaixo».

Pertxenta zen, oso gaztea, hamabost urte inguruko, gorrixka ilea, gona morea, eta euskaldun berriaren azentua.

«Kaixo, Maria naiz».

Pipin-txoria, pentsatu zuen Jexus Marik, horren zen pollitta.

Marck

Iruñean hartutako autobusera ez zitzaion inor agurtzera joan, horrela nahi izan zuelakoz. Londresera bizitzera zihoala esan zionean, Harakinek Londresera zihoala baino ez zion ulertu nahi izan, Londresera oporretara-edo. «Bizitzera» argitu zion Bazterrek, eta Harakinek mutu so egin zion, isiltasunarekin zergatiak ulertzen zituela aditzera eman nahiko balu bezala. Afaria antolatu nahi izan zion gero, baina Bazterrek ezetz agindu zion. Estik ere ez zuen ulertu: «Zertara?» galdetu zion, «zertara Londresera?», baina aldamenean zeukan Harakinengan bilatu nahi izan zuen laguntza ez zitzaion ailegatu, Harakinek mutu irautea erabaki baitzuen, errespetu itxuren azpian joateko zergatien erantzunen beldur, beharbada. Jexus Marik ere ez zuen ulertu, baina Ferminek bai; batere azalpenik gabe erabakiaren berri eman zionean, Ferminek ulertzen zuela esan zion, hura ere handik gutxira Donostian geldituko zela bizitzen, «Hau irabazlearendako

lekua duk, eta gu galtzaileak gaituk; eta galtzaileek ez zeukatek tokirik hemen».

Bere burua galtzailetarako ez zeukala argituz, ez ziola aurka egin kontatuko zion Marcki, bera kanpo sentitzen zela guda gabeko soldadu baten gisa, zereginik gabean. «Ferminkeriak» pentsatu nuen orduan halako hoztasun batez, «izan ere, garai haietan ia ez nuen ezer sentitzen, zaildua bezala nengoen bihotzarekiko aferekin. Urteekin, hala ere, otu zitzaidan, ferminkeriak izendatzen genituen ateraldi bortxatu haiek, beharbada, ez zirela horren keria, Harakinek, neurri batean Jexus Marik, herriak eta neronek, zoritxarrez neronek ere bai, ezarri lege estuaren hesietatik ateratzen zen oro izendatzen genuen keria».

Urtebete zen ama hil zitzaionetik, eta atxilotu zituztenetik ia lau. Lekunberrin egonik, Bazterrek herritik kanpo bizitzen eman zituen lau urte haiek; buru-belarri sartu zen tabernako lanetan eta, nolabait esateko, izan ziren taldea, ‘koadrila’, hobeto esateko, nahiz eta gero eta gehiago gorrotatu hitz hori, ‘koadrila’ hautsi egin zen, bakoitzak zenbait alde eginez.

Esti eta militantziaren besoetan murgildu zen Harakin, jo eta su ia soldadu ezkondu baten bizimodua eginez; Ferminek Alizia ikaskidea hartu zuen andregaitarako, eta bizitza Donostian bideratzen hasi; Jexus Mari izan zen, bakoitza zenbait alde egite hark ustekabean harrapaturik, tabernetan-eta bakarrik ikusten zena, bakardadean bakarrago, Andia-Urbasako basozain lanpostuak hegaztiak behatzeko aztura hura gero eta errotuago.

«Ni barneari eta amari eman nintzaien; egia da zenbaitetan ateratzen nintzela, baina gure artean lehenago zegoena hautsia nabaritzen genuen denok, Jexus Marik izan ezik, noski».

Ama, aitaren heriotza goiztiarraren erru bila, lehendabizi aita berarengan, ondoren semearengan, azkenean herriarengan, laido hura ezin garbiturik bizitza osoa suspirioka, hitzerdika, marmarrean, mahukatiko pañueloari zintzaka, tristura hari guztiari jirabiraka bizi izan zitzaion emakume ia ezezagun hura. «Ez genuen inoiz elkar konprenitu, baina, noizbait ere, harmoniaren antzeko bat lortu bagenuen, atxilotu gintuztenetik hil zen arteko lau urte haietan lortu genuen; ez

lengoaia eta esperientzia konpartituaren elkar ulertzeak sor dezakeen harmonia, edo maitasun agerikoak ezberdintasun guztiak barkatu eta gainditu eman dezakeena, ez; baizik eta bizimodu berdinak, eskaileretan gurutzatzean bakoitzak zein aldetik joan behar duen jakiteak, esaterako, edo adostu gabean bakoitzaren zereginak zein diren jakin eta betetzeak bezalako gauzek sorturikoa. Egunerokoan sortu dantza harmoniatsua».

Bazter ez zen amaren suspirio aterrezin edo ordu oroko kafesne nekagarriarengatik jada ernegatzen; eta, aldiz, ama semea ere etxean bizi zela onartzera ailegatu zen. Orduak ematen zituzten, lehen bezala, tabernan zerbitzatzen edo telebistari begira, baina elkarrekin zeudelako oharmenarekin orain.

Gauez atera zen aldi bakarrenetako batetik bueltan, hilik aurkitu zuen sukaldean, irribarrea aurpegian. Ez zuen ezer sentitu, harritu baino ez zen egin tristura legetarako eta zimurdura oker hura ezpainetan bizitako emakume haren hil ondoko irribarreagatik.

«Neukan guda bakarra bukatua nuen» argituko zion Marcki gehiagoko espanturik gabean, «eta gudarik gehiago ez neukanez, ez nuen ez bizitzarik, ez bizirik. Horixe litzateke euskaldunen lema» gehituko zion punta atereaz.

«Etxea, zertarako salduko duk?» galdetu zion Harakinek. Sal zezala taberna, baina etxea ezetz, beharko zuela oporretan etortzeko-eta. Gero Harakinek batzuetan izaten zuen haur inozentzia moduko harekin eskua poltsikora bota eta ikurrin bat atera zion.

«To, eramantzak kuartoan paratzeko».

«Zertarako nahi diat?», ezezkoa egin zion Bazterrek.

«Kuartoan paratzeko. Atxilotu ondoko manifestazioan erabili genuena duk».

«Ez diat nahi» egin zion arrapostu.

Ez itzultzeko zihoan. Han ez zitzaion ezer gelditzen, sustraiak izan ezik; baina «Sustraiek ito egiten dute batzuetan» eginen zion kontra Marcki, leku txiki batean jaio izanak eransten duen lurrezkoa lako tinkotasunarekin liluraturik mintzatzen zitzaionean: «Sustraiak ez dira horren garrantzitsu, gehienetan igual da nongoa zaren,

batez ere jaioterritik kanpoan zarela. Zuri inportako litzaizuke Parisen bizi zarela Londreskoa izatea?».

Ez itzultzeko. Harritu zuen, amaren gelan, ustez inoiz inora bidaiatu bariko emakume haren gelan bi maleta aurkitzeak. Plastiko berdezkoak ziren: lonazko uhal beltz batzuk zituzten bueltan, gurpil txiki bina bakoitzak, eta ertzeko gidari bati helduz arrastaka eraman zitezkeen. Zabaldu zituen. Hutsik. Barna, kanpoko plastikoak iragartzen zuenaz bestela, belusa koadro berde-morezkoa zen, goxo, luxuzko. Eskua pasatu zuen belusaren laztana sentituz. Arretaz atondu zituen arropa urriak. Sartu-ez-sartu, so egon zitzaien Mikel Laboa eta Hertzainak eta Zaramaren diskoei eta *Etiopia* liburuari. Hasiera-hasieratik eta errotik egin behar zioat aurre herriminari. Ez zuen, Mikel Laboa lagun, exiliatu mixerablea, gixajo bat, inork maite ez zuen alderraia, bakardadearen errege apatrida, herriminaren besoetan kulunkatu nahi. Ez itzultzeko zihoan eta, Harakinek beste testuinguru baterako erabiliko lu-

keenaz baliatuz, «Borrokan aritu egin behar dik» marmaratu zuen bere artean.

Maletak itxi eta ohean eseri zen. Hemen zaukaat iragana, bi maleta hauetakoa baino ez nauk. Plastiko berdea, uhal beltzak. Ukitu egin zuen. Eskuko leuntasunak eragin bat-bateko gurari sukartsu bati amore emanik pentsatu zuen: Bazekiat damutuko zaidala. Maletak ireki eta arrapaladan sartu zituen diskoak eta liburua. Gero alde batera eta bestera eragin zion buruari, bakarrik egon arren, inork ikusi ez zuela baieztatzeko.

Frantziako zelaiak iluntasunagatik ikusezin bilakaturik, autobus barneari erreparatu zion lehendabiziko aldiz argiak izeki zituztenean. «Ordura arteko Londresko ilusioari gain hartu zion herria uztearen min goxoak, eta bertan aterpetu nintzen, *baserriko identitateari* men eginez» esanen zion Marcki, *baserriko identitatea* adierazpideak Marcken harridurak sortu plazera aurretik dastatuz.

«Baserriko identitatea?!».

«Lekunberrin, egoera zailenik zailena dela ere, ez dute handik alde egin nahi izaten, ez zaie

otu ere egiten, beharbada, eszenatoki berriak arazoak konpon ditzakeela, edo saihestu bederen; ez, bertan gelditzen dira, edo hobeto esanda, bertan diraute, haien patua lurraren patuari kateaturik. Hori da baserriko identitatea».

Frantziako zelaietan barna Londresera zeraman autobusaren burrunba eta epeltasunaren kulunkan bere buruari aitortu zion urtebetetik-edo bazekiena: ametsa ez ziotela itzuliko. Amestutako iraultza hark bere buruarengandiko askapena ekar zekioneko esperantza eta heterosexual bihurtu zedineko beharra ezinezko zitzaizkiola ohartzean, nahi eta ezinaren arteko sarean trabatu zen; bere bizitza ez zuela inoiz irudikatu erabaki behar izan zuen, ametsa kolektiboa baitzen, eta kolektiboan gauzatuko zen banakakoari zegokion afan, nahi eta desira oro. Ohartu zen Lekunberrin egin zuen bidea egitea zela errazena, xenda trazatuari jarraitu, alegia; bere kasuan, ordea, akats bat zegoen, eta akats horrek zeraman orain Londresera; akats horretan zetzan eskura uste izan zuteneko Euskal Herri aske hartako biztanle, aske, esan beharko luke, ez bi-

lakatzeko arrazoia. Baina beti izaten duk akats bat.

Londresen sartzen ari ziren. Marckek askotan galdetuko zion, zer pentsatu zuen Londres ikusi zuen lehendabiziko aldiz. Eta Bazterrek askotan erantzunen zion ez zuela ezer pentsatu, une garrantzitsuetan burua hustu egiten zaigula, edo ergelkeriez bete, edo ezdeuskerietan pausatu, baina nekez izaten garela gure bizitzako une garrantzitsuetan une garrantzitsuak bizitzen ari garenaz jakitun. Kristalaren beste aldean ageri zitzaizkion kale eta joan-etorri haiei xor, Lekunberri Aranazekiko kateamendua berritu zitzaion, eta atzean utzitakoaz oldozka damutu zitzaion lehendabizikoz eta azkenekoz ihes egin eta ezagutzen ez zuen kale zaratatsu haietara etorri izana.

Kolore eta zaratek zartako batez aterarazi zuten Victoria Stationen herrikerietatik. Autobusak sartu-atera zebiltzan etengabe, jende beltza nabar jantzirik, ulertezinak iruditu zitzaizkion aurpegi asiatikoak, emakume hinduak sari gorrikarekin, gazte zuriak kolore biziez jantzirik, 80ko hamarkadako gotikoz mozorroturako arrastoren

bat, nerabe batzuen kasete handitik zetorkion musika danba-danbako ezezaguna, eta gidariak autobus bakoitzaren geldialdiak oihuka: Ingalaterran barna gorantz egiten zuten toki haiek: Glasgow, Eskozia, edo mapan ezkerrerantz eginez gauean Irlandan barneratuko ziren autobusak, beharbada, bera bezalako iheslariez beteak.

Autobusetik jaitsi eta gidari makurtuaren ondoan gelditu zen bere maletei espera.

Berarekin Frantzian zehar bidaiaturiko jendeak, maletak eta hatuak hartu eta jendeketaren artean desagertu ziren. Halako batean gidaria maletero handiak ixten hasi zen. Aldeetara begiratu zuen, inguruan laguntza bila. Gorrimorez jantzitako emakume beltz bat igaro zen gidaria eta bere artetik. Gidariarengana hurbildu zen. «My, my» hasi zen totelka «my suitcase.. two suitcases» gehitu zuen bi atzamar jasoz. Gidariaren ez ulertu bisaia ikusi zuen aurrean, zuri eta gorri. Berriz ere esaldi osoa errepikatu zion: «My two suitcases there are not». Gidariarekin batera lurrera begiratu zuen maleten bila. Koipe orban ilun bat, marrubi zaporeko txikle pakete erdi bukatu bat. Maleten arrastorik ez. Autobusa-

ren bestaldera jo zuen gidariaren atzetik. Ezer ez bidaiari ugarien hanken artean.

«How were they like?».

«Green» esan zion Bazterrek.

Maletak handik edo hemendik agertu behar ziren. Autobus barnean egonen ziren oraindik. Bazterrek maletero itxiak seinalatu zizkion. Gidariak ezezkoa egin zion giderretik tiratzen zuen bitartean. Bazter gidariaren atzetik makurtu zen, kobazulo moduko maletero ilunetan arakatzeko. Hutsik.

Gidaria jiratu egin zen: «Green! Do you know the label, the safe, something more?».

«Green».

«Fucking green! Impossible suitcases!» haserretu zen gidaria.

Bazterrek ez zuela ulertu azaldu nahi zion, baina gidariak ez zion betarik eman. 20. leihatilara joan behar zuela billetearekin erreklamazioa egitera; barkatzeko, lasai egoteko, agertuko zirela-eta.

Ordura arteko herriminaren tokia ardailak hartu zion. Jendeketa guztiaren artean 20. leihatila bilatu zuen. Hartu zuen nexka beltzak erre-

klamazio-orri bat eman zion betetzeko; hantxe paratu zituen izena, jaioterria, helbidea: Kale nagusia, Nafarroa, idatzi zuen euskaraz, Spain.

Galdutakoaren deskribapena egiteko lerroetan zera idatzi zuen: Two suitcases, Green. Barruan zeukatena deskribatzeko lerroetan «Personal things» idatzi zuen hasieran, baina gero *thing*s ezabatu *belongings* idatzi zuen. Sinatu eta neska beltzari eman zion papera.

Neska beltzak bistadizo azkar batez orria irakurri ondoren galdetu zion, Londresen helbiderik ba ote zuen. Ezetz. Orduan noizean behin etorri beharko zuela maletak agertu ziren ikustera. Baietz etorriko zela.

Bazterrek Lekunberrin egotea desiratu zuen; ergelkeriak, Bazterkeriak, aitortu zion bere buruari, iruditu zitzaizkion haraino eraman zuten arrazoiak; balizko baino eskueran iritzi zion atzean utzi zuen iraultza hari. Beriain agertu zitzaion, hango bakea, eta inguruko muino berdeak, kale nagusia emakumeak poltsak eskuan erosketak egitera, hartaz mundu perfektua egin zitekeela; eta berriz ere Lekunberrin egotea desiratu zuen indar guztiz.

Ez zekien zer egin, eta pentsatzeko-edo auzo-autobus gorria hartu, bigarren solairuan eseri eta Londres ikusmiratzera abiatu zen, gogoa Lekunberrin.

Hankarte ondoan zeraman kartera ukitu zuen. «Dirua hemen zagok eta...».

Linea bukaeraraino ailegatu zen eta jaitsi egin zen autobusa geldituta koan. Atzean adreilu gorrizko etxeak, aurrean parke handi bat. «Berderantz jo nuen», argituko zion Marcki, «badakizu Oriko txoriak...». Barneratu zenean antigoaleko hilerri batean zegoela ohartu zen, mendeetako goroldioz estalirik, euri arrasto beltzaxkak zeharkaturik. Gorpuek ongarritutako belar berdeberdearen artean, zuhaitzen egonarriarekin hazitako harlauzen artean, gizon batzuk ageri ziren, hara-honaka, giroari kutsu surreal eta espioia erantsiz, paseatzeko itxurak eginez, desio sutua begietan. Harantzago, mugimendu modernoaren ezaugarriak zituen eraikina, kristala eta metala: Hackney Crematorium.

Ikaratu egin zen mutil gazte bat atzetik jarraika hasi zitzaionean. Saihesten saiatu zen, baina mutil gazteak berak egiten zituen siga-sagak

egiten zituen xenda guztietan. Desioa ttinttindu zitzaion; berehala ohartu zen, jada ez zela jaialdia antolatu zuten hartan Harakinekin, edo gero Takoneran, sentitu zuen desio oro bat eragile hura. Ez zuen erredura hura nabari, eta usain likits lodia ez zuen aditzen, baina utzi egin zion bere buruari atzekoak dantza irakats ziezaion. Ez duk berdin baina ez zegok gaizki.

Basoaren soilgune batera ailegatu ziren. Belardiaren erdian tenplu greko baten antzeko eraikina ageri zen, zuri eta pollit, Indi gaztainez inguraturik. Tenpluaren atariraino hurbildu zen Bazter, eta hantxe eseri. Zuzen-zuzenean zetorkion mutil gaztea. Ni bezain gaztea, pentsatu zuen Bazterrek. Altua zen, beltzarana, ilea motz, goraka bekainak.

Eskua luzatu zion.

«Hello. My name is Marck».

Jexus Mari

Areto erraldoia ez zen bete, baina hogeita hamar lagun inguru bilduak ziren Marck oholtza gainean zenerako. Bizi bat laburtzeko hogeita hamar lagun nahikoak ote ziren pentsatu zuen Jexus Marik. Bere hiletara, orain hil balitz, Miren etorriko ote zen iragan zitzaion erresumin gezi batekin. Izan ere, nola antolatuko zion Mariak hileta? Heriotzan ere bizitzan bezala ezin zuela aritu erabaki zuen, txantxangorria non pausatuko espera, eskubian pausaturik berri ona Mirenekin bat eginik, ezkerrekoan pausaturik Maria, berri txarra. Saiak eta belatxingak hurbilduko zirela pentsatu zuen, Harakin-eta, Bazterrekin bezala gorpua egitera. «Mariak ez ziek utziko ordea». Baina zer eginen zuen Mirenek? Kukua bezala bizi, seguru aski, bikote bakarra hartu gabe arrautzak besteek errun zitzaten utziz. Jendeari erreparatu zion: denak beltzez jantziak; Lekunberritarrak eta Ike: lekuz kanpo ageri ziren bakarrak... Paisaiez birlandatutako zuhaitz arrotzak, pentsatu zuen Jexus Marik.

«Hartuko huen Sarriren poema!, sustraiena» entzun zuen galdetu ziola Harakinek Fermini, azkeneko bi ordutan bigarren aldiz.

Eta bigarren aldiz azkeneko bi ordutan ikusi zuen Jexus Marik, Ferminek nola zuzentzen zuen burua beste norabait, galdera hura erantzuteak irainduko balu bezala. Hala susmatu zuen gertatzear zegoen liskarra, Aralar aldean begiztatu zituen mirotz urdinek lurraldeagatik liskarra izaten zuten bezala. Ez zen debaldetan aritu bi haiekin bizi osoa. Lepoa eginen nikek... baina hobe liskarraren espera gelditzea.

«Ekarri duk edo ez?» itaundu zion Fermini berriz ere Harakinek, hortz artean.

Ferminek erantzun gabe jarraitu zuen burua pixka bat goraturik, Marck esaten ari zenari arreta emanik.

«Zaila da heriotzari buruz mintzatzea arrunkerian edo dramatismoan erori gabe. Bakarrik esan nahi nizueke, asko sufritu zuela eta dotoreziaz eman ziola kara sufrimendu horri. Minbizia zuela jakin zuenetik borrokatu baino ez zuen egin bukaera arte, gehiago ezin izan zuen arte, eta orduan amore eman zuen erremediorik ez

zuelakoz. Beharbada hortxe ageri zitzaion euskalduna zela, nahiz eta nik gehiegi ez ezagutu euskaldunak nolakoak diren. Gezurra dirudi, esanen duzue, hamabi urtez bikotekide euskalduna izan eta horrelakoak esatea!».

Jendearen ezpainetan irribarrea marraztu zela ohartu zen Jexus Mari, Marcki zintzurra, hunkipenari bidea ezin eginez, gora eta behera zebilkion bitartean.

«Niri jada ez zait malkorik gelditzen denak isuri baititut gaixotasunean zehar. Ez dakit hau esan beharko nukeen, baina askapena izan da heriotza, batez ere Carlosendako. Askok ikusi izan duzue azken boladan, eta badakizue nola sufritzen ari zen. Horregatik eskatu nahi dizuet ez egoteko triste, ni triste ez nagoen bezala, lehen esan dudan bezala askapena izan delakoz Carlosendako... Eta orain Carlosek oso maite zuen poema bat irakurri nahiko nuke:

ETA BAT-BATEAN GAUTU EGITEN DU
Norbera bakarrik dago lurraren bihotzean
Eguzki izpi batez zeharkaturik:
Eta bat-batean gautu egiten du.

Poema bezain bat-batean jaitsi zen Marck oholtzatik hiletarrak eszenatokiaren hustasunarekin utziz. Ferminek paratutako lore sorta eta zerraldoa metalezko plataforma baten gainean zeuden, bakarregi, ilunegi, deslaiegi bidaia ezegoki baterako prest ez.

Marck lehendabiziko ilaran eseri zenean klik bat entzun zen. Zur argi eta ferraje zilarreztatuko zerraldoak milimetro batzuk korritu zituen plataforma metalizatuaren gainean. Argi-fokuen distirak balantza egin zuen une batez, zerraldoaren mugimenduarekin bat. Biolinen karranka entzun zen zartako baten moduan, gero melodia ilun bat, geldo-geldoa. Henryk Góreckiren *Already It is Dust* (Jada gautu du). Baso ospeletan barna dabil hontz handia harrapakin bila, hostoek zohardiaren errainu hilkorra islatzen dute. Karranka egin dute berriz biolinek. Hortxe da, atzean, hortxe, jauzi egitear. Musika isildu da une batez. Zerraldoak milimetroka-milimetroka aurrera dagi laberako bidaia luzean.

Harakinek Fermini eman zion ukondokadak atera zuen Jexus Mari zerraldoaren mugimenduak eragin zion bere baitaratzetik.

«Mekaguendios!» entzun zion Fermini hortz artean, «zer ostia nahi duk?».

Harakinen begi sutuak ikusi zituen Ferminenganantz. «Atera hadi orain poema irakurtzera!» agindu zion Harakinek, hark bakarrik agintzen zekien zakartasunez.

«Zer poema eta zer poema ondo! Ez diat poemarik ekarri».

Begiak bilatzen zizkiola ikusi zuen.

«Ez dik poema ekarri!» sumindu zen Harakin.

Jexus Marik sorbaldak jaso zituen, poemarena hutsalkeria iruditzen zitzaiola esanez bezala.

Ferminen laguntza eskeko begirada nabaritu zuen gainean. Gero, ordea, biolinen ardaila zaratatsuak eszenatokira bilarazi zituen. Melodia zerbaiten ihesean zebilen larritasunean. Ai ama, ai ama! Galdu naiz nire bizi guztirako, galdu naiz! Musikak ez zeukan pausurik, konorterik gabe zebilen arbola artean aztaparka, hego zalaparta, arrapaladan, uluka zerraldo geldoaren inguruan jira-bira, hiletarrengan ezinegona eraginez.

Melodia zertxobait naretu zenean lasai aldi bat nabaritzea uste izan zuen Jexus Marik.

Halako batean Ike trabestitua atera zen oholtza gainera. Inor ezagutzen ez bazuen ere jendearen deserosotasunaz ohartu zen. Marcken bizkarrari erreparatu zion, aurrean loturik zituen besoak laxatu zituen, eta apur batez sorbaldak makurtu zitzaizkion. Sydneyrekin begirada trukatu zuela ikustean, Ike ateratzea ezohikoa zela erabaki zuen Jexus Marik.

Biolontxelo batek melodia aizotsu bati ekin zion, *tranquillissimo*. Ike zerraldoaren laberako bideari so, soineko morea, eskularru moreak, ile gorrixka, oparoegi. Koda labur bat, kolpe bat, kolpe bi. Gauaren basoan harrapakin bat hilik eta hegaldi bat airera. Arbola ilunak, sustraien usain kerutsua, goroldio ainubea, errainua.

Aztikeriaz bezala gelditu zen zerraldoaren martxa geldoa, Ikek soa bota zionean. Miren, eta ez Maria, desiratu zuen ondoan, gertatzear uste zuena elkarrekin gozatzeko. Aldakatik helduko zuen lehendabizi, musu emanen zion gero, sorbaldan besoa pausaturik eginen zioten aurre ikuskizunari. Ikek, ilea espantuka orraztuz, mi-

krofonoa pop izar bat bailitzan hankatik laxatu eta ahora eraman zuen. Jexus Mariri Marckenganaino joan zitzaion arreta ustekabean. Atezuan zirudien, besoak tenkaturik, jauzi egiteko prest, Sydneyk eskutik heltzen ziola.

«Nik apustu bat egin nuen, eta irabazi egin dut. Orain esan beharko nuke, nahiago nuela apustua Carlosek irabazi izan balu, baina orduan ni egonen nintzateke hura dagoen tokian eta...». Jendearen gogoetan oihartzun egin zuen karkaila ozena bota zuen. Eszenatokiaren alde batera mugitu zen, jendearen arreta alde batera eramanez. «Apustuarengatik jantzi naiz jantzi naizen bezala, Carlosek eta biok apustu egin baikenuen nor hil lehenago bestea trabestiturik etorriko zela hiletara. Carlos... nik maite nuen». Marcken parean gelditu zela ohartu zen Jexus Mari, zurbil, eskotetik behera izerdi tanta bat zeriola. «Carlos nik maite nuen». Hara Bazter! Ike zian amorantetarako. Orduantxe ulertu zuen arreta eman zion Marcken atezuan egote hura. Ike zen bestea.

Joder Bazter, beti jakin izan zuen zer edo zer malmutz ezkutatzen zela losintxak jasotzeko

umiltasun haren atzean. Harakin bezalatsu, ezkontzatik kanpoko amorante bat. Dena nahi duen jendea, daukatenaz kanpo desiratzeagatik zoritxarreko egiten den jendea. Harakin, esaterako. «Edo ni neroni» gurutzatu zitzaion habaila batean, «Maria izan eta Mirenen irrikan»; Miren, ezer emanen ez zion emakumea, baina utzitako adikzio bat bezala hortxe izaten zuena. Adikzioa izan balitz sikiera! Behin baino ez zuen izan! Harakin putakume horrek ez bezala. Bizitza gezurrez beterik zegok, hori duk Iraultza nahi duen orok ikasi beharreko lehen egia. Gaztetan amestutako amnistia lako egiatasun orokor eta oso hura kristautasunetik estraperloan sartu zitzaien balorea zela aitortu behar izan zuen. Andiako mendikatean zuloa non zegoen ikustera eraman zituen aldia kiribildu zitzaion gogoan. Denak arroilan barneraturik zeudela, Bazter ez zetorrela eta bila joan zitzaionean errepideari leloturik begira harrapatutakoan zeukan zurbiltasuna. Iraultza! Ergelkeriak! Aldi hartan saiek hegaldatzean egindako hegal zalapartaz akordatu zen. Hura zen bizitzaren soinua, eta ez amestu zituzten errealitaterik gabeko hutsalkeria haiek! Ma-

riarekin ezkondu ondoren Miren amorante zueneko ideiak laztan zezan utzi zion gogoari. Magalean lozorrotu zitzaizkion balizko pasio gauak, losintxak etxera bueltan, Miren etxean utziko lukeen aldiak, eta Mariari, ordurako emazte fin, aurre egitean txolarre mainontzi bat bezala laztanduko lukeen sekretua.

Jendearen deserosotasuna agerikoa zen, eztulka ari ziren batzuk, besteak gorputzaren zama hanka batetik bestera pasatzen, eszenatokiaren alboetan bilatzen zuen laguntza beste hainbatek. Harakin eta Ferminek leloturik begiratzen zuten eszenatokira. Han zeukan balizko amorantea amorante erreal zuen kabroia.

«Hirea bezalako beste istorio bat, Harakin» bota zion hortzartean.

«Zer?».

«Ezer ez».

Eta Ikek jarraitu zuen: «Nik ere poema bat irakurri nahiko nuke. Hau, gainera, Carlosek ez zuen maite, ez baitzuen ezagutzen. Walter de la Mare-rena da. Beti iruditu zait hileta batean irakurtzeko egokia.

«DE PROFUNDIS»
Burdinaren zama metalikoa
Beiraren berniza
Zuraren sukoitasuna...

Ez zara hotz izanen han;
Ez duzu aurpegia ispiluan ikusi nahi izanen;
Ez da pisutasunik izanen han
Ez baitzara hatza jasotzeko gauza izanen.

Laguntza izanen duzu, ez dizute arretarik
eskainiko, ordea;
Izarrak bi urratsetara izanen dituzu
Baina ez dituzu bisitatuko.

Ez da elkar ezagutzerik izanen
Aurki dezakeen inork ez dizu esanen–
Ordu ugarietan zehar–

«Zer ba... elkar ikusi genuen azkenekoan, loreak eraman nizkizun-eta».

Ikek mikrofonoa hankan utzi eta Ortzadar Bandera bat atera zuen poltsa moretik. Zerraldoraino gerturatu eta gainean paratu zion. Malkotan besarkatu zuen zerraldoa. Lehendabiziko le-

rroko gizon trajedun bat igo eta behera jaitsi zuen Ike.

Miren. Gorroto itsu bat egin zitzaion Harakinen kontra. Zergatik jarraitu zioten egundoko liderra balitz bezala? Zergatik ez zizkioten lortu gabeko helburuen ardurak eskatu? El Sitio kafetegiko eszena berritu zitzaion: Miren eta Harakin bigarren solairuan, zigarro bana eskuetan, bi amoranteen arteko txutxumutxuak trukatzen. Iruzurraren zartakoak min egin zion bular aldean. Kakazaharra.

«Hirea bezalako beste istorio bat».

Harakinek keinu galdetzailea itzuli zion.

«Hirea bezalako istorio bat» errepikatu zionerako. Harakin zamarraren poltsikoan zerbaiten bila ari zela ohartu zen. Pixagura sartu zitzaion. Hiletaren erdian urruti iritzi zion Gentlemen zioen kartelari.

Harakin

Batere esperantza barik jaitsi zen Harakin hegazkinetik Heathrow aireportuan. Gehiegi izan ziren ibili zituzten medikuak, eta gutxiegi eman zizkieten esperantzak; horregatik, duela bi hilabete-edo, Bazterrek, duela hamabi urte inguru joan zenetik, lehendabiziko aldiz etxera hots egin zuenean, harritu egin zen telefonoa eskegi eta ahots urrun eta ezezaguna hariaren beste aldean entzutean.

Totelka nabaritu zuen lehendabiziko gizalegekerien ondoren: keriak; izan ere, Harakini kortesiazko formula orok errezeloa sortzen baitzion. Jakin zuela Fermin Londresen izan zela, bazekiela, damu zela... Harakinek azken bi urte eta erdian zerabilen bizimoduak, han eta hemen mila saltsatan sarturik, bestela erakuts bazezakeen ere, besterik buruan, berehala ulertu zuen zertaz ari zitzaion: Manexez, alegia, «Gure semeaz, poza beharrean atsekabea ekarri zien seme hartaz» esanen zion Bazterri. Arazoari, Estik semearena izendatzen zuen moduan esateko, bere bai-

tan nondik heldu ez jakinagatik, jendaurrean aritzean halako normaltasun tonu bat eransten zionez, bidea erraztu zion Bazterri: «Gure semearena jakin duk orduan!» bota zion, azken hitzean barrunbeak salatzen zizkion oilar batek ihes eginez.

Adiskide batzuk aitatutako Kaplan medikuaz mintzatu zitzaion Bazter: «Oso ona omen duk ume...». Ume ondoren zetorkeen izenondoaren bila aritu zen uneak eternoak egin zitzaizkion Bazterri.

«Ume atzeratuekin» ebaki zuen Harakinek, berriz ere barnea eta kanpoaren arteko urraduraren mina sufrituz.

«Horixe. Etorri, nahi baduzue!».

«Ez diat uste; mediku gehiegitan ibili gaituk, eta...». Bere horretan utzi zuen esaldia, esangabekoari tonu etsia erantsiz. «Dena dela, esanen zioat Estiri, eta hots eginen diat. Emadak hire telefonoa».

Estik umearekin joateari uko egin zion; baina etsipenari murruak jarri nahian-edo, informe klinikoarekin joan zitekeela iradoki zion, bolada hartan erabiltzen zuen ahots noragabearekin.

Sukaldean zeuden, eta Estik txiki-txikia eta basatua ematen zuen fluoreszentearen argitara. Bere buruari garbi aitortu nahi ez bazion ere, gogoeta ez egiteaz harrotzen zen, animaltasuna indartuz sufrimendua saihesten bazekielakoz.

«Esti, arazoari jira eta bira ibiliagatik, ni baino deseginago zegok».

Medikua bisitatu, Bazterren etxean ostatu hartu, eta hurrengo egunean itzuliko zen.

Harategitik Batasunako bilerara, eta bilerären ondoren Bazterretxe tabernako zerbezen ohiko prozesiotik bueltan eginik aurkitu zuen maleta Manexen gelan. Haurrari begiratu bat bota zion zerbezaren alkoholetan kulunkari. Zenbat ilusio galdurik. Esti irudikatu zuen koadrozko maleta txiki hura egiten. Armairu gainetik hartu, koadro arrekara haiei hautsak astindu, gider hedagarria eta gurpil beltzak oihal busti batekin garbituko zituen. Eta gero ohantze gaineko arropa lisatuak, egun baterako bazihoan ere atorra, galtzak, galtzerdiak, galtzontzilo pare bat, banan-banan maleta barnean atondu, Manexi noizean behin kukuxumuxu egiten zion bitartean.

Bidaiariak, gomazko errezeletatik atera ahala, maletak hartu eta atetik harantz desagertzen zihoazen. Argi-fokuak distira egiten zuen maleta garraiagailu gainean. Flight 963 Bilbao. Bakarrik gelditu zenean erreparatu zion goma beltzari, etengabe pasa eta pasa. Burua altxatu zuen, maletaren paraderoa keinu haren bidez argituko balitzaio bezala. Hutsik zegoen areto handia. Aldeetara so egin ondoren erabaki zuen areto nagusira ateratzea. Ate automatikoa irekitzearekin ikusi zuen Bazter, kezka aurpegian, hura ere aldeetara so. Fermin eta Jexus Mariz akordatu zen. Laurak egin zituen gogoan, gazteago zirenean bezala, edozein gauzagatik barrezka, edo mendian gora, edo poliziek etxetik atera eta komisaldegira eraman zituztenean. «Oraindik ere eginen genikek parranda ederra non ere den».

Besarkatu egin zuten elkar. Bazter deseroso nabaritzea iruditu zitzaion, besarkadatik ihes egin nahian.

«Maleta galdu diat» esan zion.

«Jode!».

Bazterrek begiak altxatu zituen, aretoan erreklamazio bulegoa non zegoen ikusteko.

«British, ezta?».

«Bai».

Aretoaren beste izkina seinalatu zion, eta harantz abiatu ziren.

«Beno, zer moduz hago? Zazpi urte ez dugula elkar ikusi! Zuen ezkontzan azkena».

«Ongi. Estik goraintziak eman zizkidak».

«Eskerrik asko».

Orri bat eman zieten erreklamazioa egiteko.

«Maleta nolakoa zen esan behar didak».

«Koadrozkoa, horixkak eta arreak; gider hedagarri horietako bat zian. Eta erruedak».

Bazterrek esandakoa idatzi eta orria eman zion bulegariari. Agertu ahala bidaliko zietela maleta etxera; ez zela biharko agertuko. Orduan, bidaltzeko Espainiako helbidera.

«Lasai, nire arropa ez zaik kabitzen, baina bazegok etxean hire tamainakoa».

«Ez dik inporta, ez diat arroparik behar; Estiren kontuak dituk».

Beste azalpen baten atezuan gelditu bazen ere, ez zitzaion etorri. Bazterren bizkarrari jarraitu zion kanpoko aterantz.

«Orain medikuarenera joanen gaituk» esan zion Bazterrek taxian sartu zirenean.

«Urruti duk?».

«Hirigunean».

Baiezkoa egin zuen, hirigunean egoteak zekarrena jakinen balu bezala.

Bazter ezinean nabaritu uste zuen, esateko zerbaiten bila.

«Beno...» esan zuen lagundu nahian.

«Zer... Beno» itzuli zion aurpegia bere hitzen irrikan.

Manex bien artean zegoela iruditu zitzaion, semearen jaiotzatik, bizitzako esparru orotara hedatu zitzaion arazo saihestezin hura bien arteko adiskidantzarainoko oztopo gaindiezina zen orduantxe.

Bor-bor zituen barrunbeak. Hala ere, borborra ez zuen analisi bihurtzen, ez zituen arrazoiak bilatzen, edo azalpenak, edo bere buruan kinka hartara eraman zuten sentimenduen azterketa egiten. Borborraren harrabotsa aditzen gelditzen

zen animalia izutu baten moduan, eta gero lehertu egiten zen ihesari emanez.

«Badakik etxe asko egiten ari direla Lekunberrin. Kristoren lan pila diagu udaletxean. Jendeak nolanahi eraiki nahi ditik etxeak. Gure eginbeharra duk herria dagoenean mantenaraztea, euskaldun. Euskal estiloko etxeak ez badira, ez diagu egiten uzten, eta horrek istiluren bat edo beste sortu dik. A, nire gurasoek goraintziak eman zizkidatek hiretako... Ez dakik zenbat aldatu den Lekunberri! Oso desberdina zegok. Kanpotar pila zegok, eta horrek gauza asko aldarazi ditik. Bahoa karrikatik eta bazegok herrian bizi eta ezagutzen ez duan jendea. Akordatzen haiz gure herria nola aldatuko genukeen amesten genuenean... ba aldatu, aldatu duk baina...».

Bazterren bisaia arretatsuari erreparatu zion. Aditze itxurak egiten ari zitzaiola iruditu zitzaionez, supituki isildu zen. Taxiaren kristalez bestaldeko paisaian bilatu zuten laguntza. Ageri zitzaizkion etxe eta kaleak ez zioten ezer iradoki Harakini.

«Baina...?» Bazterrek.

Denbora hartu zuen esan nahi zuena adierazteko, Bazterren arretaren benetakotasunagatik harriturik.

«Baina zoritxarrez ez duk guk amestu genuena. Jendea bere zortzikotan zebilek. Bost axola Euskal Herriaren askapena, bost axola presoak. Gero eta euskara gutxiago entzuten duk karrikan. Lan egin, kiroldegira joan, eta ongi pasa baino ez dik jendeak buruan».

Bazterren burua kanporantz jiratu zela ikusi zuen. Berak ere kanpoan bilatu zuen laguntza, ezer iradokitzen ez zioten etxe eta kale burrunbatsuetan; baina kale egin zioten. Taxilariaren irudia bilatu zuen.

«Normala duk» esan zion Bazterrek. «Mundua horrela zebilek». Gero, luze iritzi zion une baten ondoren, «horrela zebilek orain» gehitu zuen.

Isilik egin zuten Kaplan doktorearenerako bidea. Bazterrek sartu ahala eskaini zion txostena bon vivant itxurako medikuari. Mahai gainean utzi eta eserarazi zituen. Hitz eta pitz hasi zitzaien, eguraldiaz eta Spain gora Spain behera. Espainolak ez zirela esatekotan egon zen, baina

mahai gaineko maletatxoak erakarri zion arreta. Larru gorriaren ukipena kilikagarria egin zuen, eta horrek ezinegona eragin zion. Zer irtenbide emanen ote zion? Ba ote zeukan Manexek esperantzarik? Seme eta andrearekiko ordura artekoa aldatzera zihoala pentsatu zuen, gogoetari indar emateko ukabilak estutzen zituela. Dena desberdina izanen duk. Esti eta Manexen azantzak entzun zituen egun hotz batetik ihesi etxeko atetik sartzean. Zergatik tokatu zaigu guri? Barkatu batek baitaragabetu zuen Harakin bulegora. Medikuak, txostena mahai gainetik hartu, eserlekua jiraturik bizkarra eman, eta txostena leitzeari ekin zion. Bazterrek zeharka begiratu zion, medikuaren jokaera arraroaz ohartarazi nahian bezala; Harakin xor zegoen, larruzko eserleku biratzailearen bizkar distiratsuan galdurik. Txostenaren lehendabiziko orriaren atzealde zuria eserlekuaren bizkar beltzetik zintzilik ikustean zapuztu zitzaizkion Euskal Herritik zekartzan esperantza apurrak, ikasia baitzuen, horrenbeste mediku ibiltzearen ondorioz, lehen une hartan medikuak egiten zuen suspirio ia adiezinaren bidez, edo umearenganako lehen

bistadizoaren ondorengo hitz dudatien bidez, edo orduan bezala eskuak txostenaren orriak pasatzeko modu axolagabe haren bidez, ez zegoela erremediorik, Down sindromea ez zegoela sendatzerik, Estik hala uste bazuen ere, ez zegoela ondorioak leuntzerik.

Medikua jiratu zenean bazekiena eta ondorengo «erretolika guztia», berak esaten zuen bezala, nahiz eta Estiri adierazpidea, egia azalarazten zuelako beharbada, batere gustatu ez, ulertu zion Bazterren itzulpenaren batere beharrik gabean, «Institutuko ingelesaren aztarnak, alde batetik», pentsatu zuen, «erretolika, bestetik», alegia, ongi heziz gero asko aurreratzen dutela, gizartean integratu behar direla, irakurtzen ikasi duenik ere badela, eta abar eta abar eta abar.

Bukatu zuenean, galderarik ba ote zuten itaundu zien medikuak. Ezetz. Horrenbeste bidaia horren gutxirako.

Agur moduan medikuak eskua sorbaldan paratu zionean, gizon haren dolumina nabaritu uste izan zuen, «dolumina eta poza» pentsatu zuen Harakinek, seguru aski seme-alaba sano eta normalak izanen baitzituen Ingalaterrako

Down sindromeari buruzko mediku adituenak; Euskal Herriko harakin trixte bati aldiz... «Hau bizi puta!».

Igogailuan isilik egin zuten lehendabiziko solairurako bidea. Kanpora ateratakoan euri egoskor batek hartu zituen. Gautzen ari zuen.

«Zer egin nahi duk» galdetu zion Bazterrek.

Sorbaldak altxatu zituen.

«Benga, esan; zer egin nahi duk?».

«Lagun egidak» esan zion lehor.

Harakinen laguntza deiak harri eta zur utzi zuen Bazter.

«Afaltzera joanen gaituk?».

«Nahi duana, baina goazen hemendik».

Behin lurrean eseririk, aurrez aurre zeudela berritu zitzaien taxiko elkarrekiko urruntasun adakera. Harakin eroririk zegoen, txekor begiez egiten zion so Bazterri, zerbait esan zezala eskatuz. Sei urte inguru zeramatzaten elkar ikusi gabe, eta derrigorrez izan behar zuten elkarri esateko zerbait, derrigorrez, adiskideak zirelako.

Bazter hitzaren bila nabaritu uste izan zuen Harakinek, baina hitzik ez zitzaion sortu. Lagun-

garri, zerbitzaria hurbildu zitzaien, eskaera egiteko libreta eskuan.

«Neronek eskatuko diat».

«Bai».

Sushia hasteko, tenpurak, algak eta okonomiyakea; edateko, zerbeza.

«Gustatuko zaik» esan zion Bazterrek, ahotsean alegrantzia ukitu bat paratuz. «Duela sei hilabete-edo Fermin etorri zenean hona ekarri nian».

Winstona zamarratik atera eta Bazterri eskaini zion.

«Aspaldi utzi nioan».

«Baina gure ezkontzan erre huen, ez?».

«Ez, zortzi urte badituk utzi niola»; eta une batez bere baitara bildu ondoren gehitu zuen: «Ez zekiat zertarako, ordea».

«Nik hiru urtez edo utzi nioan, baina zera, enfin, haurrarena gertatu zenean hasi ninduan atzera berriz».

Konprenitzen zuelako keinua egiten ikusi zuen Bazter.

Baina hik ezin duk konprenitu zer den haur baten esperoan bederatzi hilabete egon ondoren

haur hori atzeratua, atzeratua, ez gutxitua, ez ezindua, ez mugatua, atzeratua irtetea; nola konprenituko duk hik?, oihukatzeko gogoa egin zitzaion, baina isildu egin zen, zigarroari tira eta tira.

«Emadak zigarro bat» eskatu zion Bazterrek, «gaur erre eginen diat».

«Garai zaharren alde».

Zigarroa izeki zuen eta zerbeza altxatu. Irribarre nakarra ezpainetan jarraitu zion Harakinek, elkarren artekoa aiseago zihoalakoz, lasaiago.

«Zer moduz zegok Lekunberri, Lekunberri Aranaz?».

«Ongi. Esan diat: etxe gehiegi egiten ari dituk».

«Oraindik segitzen duk militatzen, orduan».

«Gauzak ez zeudek berriketarako». Zalantza egin zuen une batez, baina gero gehitu zuen adar jotze tonua azpimarratuz: «Klaro, balio duzuen guztiek alde egiten duzue!, eta beharko gaizki egon gauzak».

«Nik ez nian lekurik han».

«Nola ez huela lekurik? Hura hire herria duk!».

«Izan ere... zuan; ez zekiat noizbait nirea izan zen».

Bekoz beko so egin zion Bazterri, zetorren ustekabea sumatu gabe.

«Badakik homosexuala naizela».

Ez zen gehiegi harritu, garunaren hondoan betidanik jakin izan zuena berritzea baino ez zela izan otu zitzaion.

«Ez nekian, nahiz eta Estik aitatuta-edo zerbait susmatu. Zer ikusteko zeukak horrekin?».

«Zer eginen nian nik zuek bikoteekin bizi zineten bitartean. Zer eginen nian han orain? Iraultza egin?».

Bazterrek bere burua bridatu zuela ohartzearekin batera mingostasuna eragin zion azken esaldian erabili zuen ironiak. Borrokarako prestatu zen, baina Bazter isilik gelditu zen.

«Iraultza? Hik ez huen Iraultza egin nahi? Ala orain ez duk Iraultza egiteko garaia?» sumindu zitzaion. «Beti duk garaia Iraultza egiteko».

Bazterrek keinu uxagarri bat egin zuen eskuarekin. Zerbeza zerbitzatu zuen Bazterrek eta irribarre egin zion tentsio unea faundu nahian.

«Ez gaitezen haserre. Zer moduz zegok Esti?».

«Ongi» ahoskatu zion lehor, oraindik aurreko eztabaidaren lorrean. Potroetaraino nagok iraultzaren garaiak iraganak direla diotenekin, pentsatu zuen, baina ez zen azaleratzen ausartu. Aldiz, ahotsaren bolumena jaitsiz eta barkamena eskatuz esan zion: «Ez gabiltzak oso ongi. Umearen arazoak eragin handia izan dik gugan».

Bazter azalpen gehiagoren atezuan gelditu zitzaion. Beste zigarro bat eskaini zion.

«Ferminek zer edo zer aitatu zidaan. Datorren hilabetean etorriko duk, psikologo biltzar batera edo».

«Fermin, hara zer pieza! Ez zian esan Gesto por la Pazen dabilela?», Harakinek suturik.

«Zer duk Gesto por la Paz?».

«Putakume koadrila bat! Bakea egin nahi ditek, Ezker Abertzaleak lortutakoa ukatuz, sufrimendua ahantziz. Dena bukatu, ezer gertatu ez balitz bezala egin».

«Baina bakea nahi ditek, ez? Hori ongi dagoela iruditzen zaidak».

«Bai, baina ez edozeren truke».

«Ez zekiat, oso urruti nagok Euskal Herritik».

Harakini samin eta mespretxuaren arteko keinua marraztu zitzaion ezpainen inguruan.

«Akordatzen haiz HBren aldeko jaialdi hura antolatu genuenean, zein ongi pasatu genuen» bota zuen nabarmenki atsegina izan nahia erakutsiz; «zer indar genuen gauzak aldatzeko!».

«Orain ere aldatu nahian zabiltzate», Bazterrek irribera.

Atsegina ozpintzera egin zitzaion lehendabizi, baina gero asmo onarekin oharturik barre antzeko batek ihes egin zion.

«Zein ongi pasatzen genuen...». Gaztaroan egindakoetan galdu zen: jaialdia, mendiko igoerak, zer barreak egiten zituzten, atxiloketak...

«Hi ez hinduten ostiatu komisaldegian».

Bazterren bisaiak apartetik egin zion so, oso apartetik. Plater zikinak, arrain puxkak, arroz apurrak, hautsontzi zikina.

Marck

«Cancer». Medikuak esandakotik hori baino ez zuen aditu. «Gero mahai gaineko krisantemoei begira gelditu nintzen» esanen zion Marcki, «ezer gertatu ez balitz bezala, zuri zikindutik hori nabarrera bitarteko kolore haiek guztiak mundu bat osatzen, giderren berdea eta beirazko lorontzia ur transparentez betea».

Medikuak hitz haren ondoren esandakoak Marckek azaldu zizkion: aukera aunitz zituela sendatzeko, gogor egin behar ziola, berehala hasiko zirela kimioterapiarekin; gibelekoa zela, pasadan bezala aitatu zion, minbizia.

Krisantemo zuriak. Etxerako bide osoan ez zion arretarik eman Marcken kalakari. Carlos etxe ondoko lore-dendan sartu zen, Marck aho bete hortz atean utzirik, eta dendariari, hitzik esan gabe, krisantemo zuriak seinalatu eta hamar atzamarrak erakutsi zizkion. Burumakur atera zen dendatik, loreak eskuan. Marckek besotik heldu zion, sendatuko zela xuxurlatzen zion bitartean. Etxean sartzearekin bat tea nahi zuen

galdetu zion. Ezezkoa egin eta loreak atontzen hasi zen; lorontzia bilatu, urez bete, aspirina bota eta loreak sartu zituen. Hotzikara eragin zion lorontzi hotzak. Usaindu egin zituen krisantemoak, usteltzen hasitakoaren usain lodi-gozoegia zuten; Bazterretxeko alkohol mikaztuaren usaina kiribildu zitzaion gogoan. Loreen koloreei eman zien arreta, zuri nabarretik azul ilunera bitarteko kolore haiei guztiei. Cancer.

Kalaka segitzen zuen Marckek, ura eta te poltsak esku artean. Aurrean paratu zion katilua eta, gero, besarkatu egin zuen. Izuturik zegoen.

«Medikuak esan du gibeleko minbizien %70 sendatu egiten dela, eta zu 70 horren barnean zaude, ez kezkatu; ikusiko duzu, bolada txarra daramagu, baina, ikusiko duzu, denak hobera eginen du, ikusiko duzu, aurrera segituko dugu, sendatuko zara, ikusiko duzu».

Carlosek eskua heldu eta begietara egin zion so. Marckek berehala ulertu zuen isiltzeko eskaera ahoskatu gabea, eta katiluko tearen sakontasunean galdu zen.

Atxiloturik egondako egunekin akordatu zen. Izu-laborria zeluletan oro suntsitzen, atzapar

lako zintzurreko herstura hura, hatsa hatsari emanik paratuz, dardara bizitza malkortzen ari zelako bertigoarekin batera, adrenalina karraskari bat bailitzan zainak erretzen. Baina ez zitzaizkion agertu, eta ments izan zituen, ez usain likitsa ez haren ondotik hartzen zuen Beriainekin, gauarekin, gorputzekin bat egitera bultzatzen zuen indar grinatsu hura.

Eskua heldu zion Marcki, eta negarrez hasi zen mara-mara.

«Ez nintzen horrela sentitu atxiloturik egon nintzenetik» esan zion Marcki.

«Ez nekien atxiloturik egon zinela».

Baiezkoa egin zion buruaz. Marck azalpenaren espera gelditu zen, baina ez zen berehala etorri. Tean murgildu zen berriro, krisantemo zurietan zirudien Carlosek. Sorbaldara bota zion Marckek besoa. Hormako erlojuaren tik-taka entzun zuten. Harraskako xukadera urruna, zartatzen hasitako katilu berdexkak zintzilik, arbel txikia boligrafoarekin, serbilleta kolorgetuak, errezel zuri-belztuak, leihoa, lorategiarekin atzean, berdetasun izugarriz.

«Gorpuak, gorpuak» etorri zitzaion gogora dardararekin batera.

Marckek besarkatu egin zuen.

«Zergatik?» galdetu zion Marckek.

«Zergatik egon zen atxiloturik», pentsatu zuen; «zergatik izan zen? Une honetan orduan sentitutako izu, beldur eta minak birbizitzeko, akaso».

Marckek berehala jakin zuen hura ez zela hartaz galdetzeko parada.

«Beldur bera», erabaki zuen Carlosek, sillatik altxatzen zen bitartean.

Marck harritu egin zen altxatu zenean, geldialdia betiko esperoko balu bezala.

«Afaltzera aterako gara».

Min haren guztiaren artean libertitzen hasia zen, Marcki ezusteko aktibitate-ateraldi hark sortzen zion harridurarekin.

«Eta gero parrandara, eta bihar jai hartuko dugu».

«Baina...».

«Ez dago bainarik, afaltzera aterako gara, eta gero parranda».

Baiezkoa egin zuen Marckek. Altxatu eta buruari eraginez eskaileretan desagertu zen.

Ikuslerik gabean berriz ere izu-laborriak hartu zion gorputz osoa. Gorpuak. Zeluletan barna nabaritu zuen minbizia karraska, odolean zainetan zehar bidaiatzen, erraiak goseki jaten, usteldura suma zezakeen, kerua usaindu. Ama etorri zitzaion gogora, sukaldean irribarrea ezpainetan, hilik. Halaxe hil nahiko luke. Beldurtu egin du pentsamendu horrek. Hozkailurainoko brausteko jauzi batez saiatu zaio ihes egiten. Kia, hortxe jarraitzen du: Halaxe hil nahiko luke. Buruari eragin dio. Gero makurtu eta zumo kaxa hartu eta harraskaraino hurbildu da. Katilu berdexkak, arbel txikia, xukadera beste mundu bateko objektuak iruditu zaizkio. Gorpuak. Zumo kaxa utzi eta lasterka abiatu da gora, Marck-Marck oihuka. Besarkatu egin du. Dar-dar dago. Marckek ohantzean sartu eta tapatu du. Ondoan etzan zitzaionean larrua jo zuten, Marck harritu zuen basatasunez. Ondoren elkarren ondoan etzanik egon ziren arratsalde osoan.

Iluntzen hasi zenean Carlos altxatu eta ateratzeko prestatzen hasi zen, Marcki ezer esan

gabe, gertatutakoak, beldurra erakutsiaren ahuldadeak, goizaldeko erabakian eraginik ez zuela frogatzekoak eginez edo.

«Ez dugu hobe etxean afaldu eta lasai-lasai gelditzea?».

Carlosen mugimenduak une batez gelditu ziren; galtzontzilotan zegoen, alkandora erdi jantziaren mahuka bat zintzilik. Gaztetako irudia etorri zitzaion lauhazka, aita hil berritan, Marcken rolean zegoen bera, ate bokalean amari zerbait eskatzen, ama eskaeraren gainean gogoetan, erabat jantzi gabe, geldirik eta xor. Gehiegizko intimitatea.

Gorroto olde bat igo zitzaion sabeletik zintzurreraino, Marck hura txikituko zuen, txikituko zuenez. Ai herrian gelditu izan banintz...! Eta une batez beste bizitza bat irudikatu zuen Lekunberri Aranazen, Bazterretxean, basoerdiak zerbitzatzen, mendira joaten, Londresera etorri zenetiko sexuarekiko nasaitasunaren ordez sugarra beti prest, baina, batez ere, gaixotasun izugarri hura barik. Bizimodu hobea. Beste gorroto olde bat hedatu zitzaion. Beldurtu zen bere baitakoaz. Itzuli barik zeharka begiratu zion Marcki, galtzak

izterretan gora igotzen zituen bitartean. Beste bizi bat, non sexua lurretik etorriko baitzen.

Komunera alde egin zuen, Marck gelan utzirik. Ispiluko islari erreparatu zion: oraindik gaztea zen, berrogeiak bete berriak, azalaren sakontasunean zimurren arrastoak nabaritzeko ongi begiratu behar zen, begi urdinetako niniak zabal-zabalik zeuden, zuria gorriturik. Aurpegia busti ondoren eseri zen komunean. Beste bizi bat, aitaren hiletako oroitzapen urruna etorri zitzaion. Amak eskutik hartu eta aita zetzan gelara sartu zuen. Aita maindire batez estalirik zegoela ikusteak inarrosi zuen gehien. Aurpegia ikus ziezaion amak maindirea kendu zionean, ez zion hainbeste erasan; lotan zegoela iruditu zitzaion, nahiz eta Bazterretxeko ganbara zelaitik zetozen arrosarioen zurrumurruek bestela aditzera eman. Amak eskua utzi eta aitaren aurpegia laztandu zuen, eta musu eman zion ondoren. Gero aterarazi eta beltzez jantzitako emakumez betetako sukaldean utzi zuten, erruki begirada haien pean.

Noizean behin txokolatea ematen zioten, eta berak, sutondoan eseririk, jan egiten zuen giro

hartatik ihes egiteko, txokolatearen zapore gozoan kontzentratuz. Ganbaratik ailegatzen zitzaizkion garrasi erdiragarriek eragiten zioten beldurra, jakin-minak gainditurik. Gora igo nahi izan zuenean ez zioten utzi. Harakin etorri zen amarekin, eta hari ere txokolatea emanda biak egon ziren sutondoan isil-isilik, harik eta Harakinek karrikara ateratzea proposatu zion arte. Baina karrikan ere ez zuten jolasteko gogorik, eta Txomineko paretan egon ziren eserita udazken arratsalde osoan.

Ama ez zuen hurrengo eguneko segiziora arte ikusi. Eskutik helduta eraman zuen Bazterretxetik elizarainoko bidean, *Bere anima zeruan sartu* kantaren ariora. Une hartatik jakin zuen hilzorian zegoen mundu bateko partaide zela, hatsa hatsari emanik bizi zen mundua, desioa eta higuinaren artean zebilkion mundua, gorrotoa eta maitasuna erkatzen zizkion mundua, bere mundua, baina aldi berean atzerritar sentiarazten zuena. «Euskaldunen mundua aldarrikatuko zuen Harakinek» esan zuen bere artean. Harakin?! Desioa eta higuinaren artean aritu zitzaion mundua.

Marck ate joka ari zitzaion.

Zeharka begiratu zion ispiluari atera aurretik. Beste bizi bat?!

Atarian zeukan Marck larritu keinuarekin: «Ongi zaude?!».

«Bai».

Marck zen oraina, beste bizi bat.

Atzetik etorri eta besarkatu egin zuen.

«Ez zaude ongi?».

Ez zuen ezer esan.

«Ez duzu hitz eginen?».

Itzuli eta ezetz esan zion buruarekin, irribarre herabe batez. Erlojua seinalatu zion, orratzen bi jira egin zituen erpuruarekin, eta ezpainetara eraman zuen isiltasunaren keinua eginez. Irribarre argiagoa marraztu zuen.

«Ez duzu bi ordutan hitzik eginen!?».

Buruari gora-behera eragin zion.

«Zergatik?».

Sorbaldak jaso zizkion.

«Oso ongi, neronek hitz eginen dut, neronek erabakiko dut. Prest?».

Indiar batera eraman zuen. Dilistak kurriarekin eskatu zituen Marckek, pikanteak gibelari

lana ematea zelako argudioari jaramon egin gabean. Ez zegoen ongiezik. Bake naro bat baino ez zeukan, minbizia zuela jakiteak azken aldiko ongiez guztiak baretu zizkion, bere baitan oreka malenkoniatsua, bai, baina oreka azken batean, sortuz. «Mundu terminal bateko eri terminala» pentsatu zuen. Marcki esaldia esango balio erriета eginen zion, inplizituki zuen ironiak zenbat laguntzen zion ohartu gabe. Salbaziorako iraultza behar zuen mundu bateko partaide terminala... izandakoa. «Bai, maitea» esanen zion, urteak terminal izaten zeramatzan Ikek, «baina denok gara terminalak hil behar dugun neurrian»; eta egia zela onartu beharko zion, baietz denok garela terminalak, mundu guztia ari dela etengabe hiltzen eta sortzen, sortzen eta hiltzen.

«Nire herriaz akordatzen naiz» esan zion Marcki.

«Hara, ordu eta erdi baizik ez da pasatu-eta! Joan egin beharko genuke, hegazkin bat hartzea baino ez da».

Ezezkoa.

«Berriz ere isiltasunera itzuli da gure mutikoa? Gogorarazi nahi dizut, zerorrek hautsi duzu-

la zerorren ituna» esan zion Marckek, adar jotze xamurrez.

«Ez, ez daukat ezer han».

«Zure lagunak».

«Nire lagun izandakoak». Eta izan ez naizen guztia, pentsatu zuen bere baitarako. Saldu nuen etxea, izan ez nuen amorantea, egin ez genuen iraultza, galdutako gure aiton-amonen mundua, borroka istorio ahanztekoa, aitortu gabeko nire aukera sexuala, zure berri ez jakitea, koadro gorri-berdeetatik sortzen zen besondo gihartsua, oro bat eginarazten zuen desio kadukatua... hitz batean: beste bizi bat bizitzeagatik bizigabeko bizitza. Absentziak baino ez.

«Beno, nora joanen gara orain?» galdetu zion Marcki.

«Etxera, ez?».

Erpurua jasoz egin zion ezezkoa.

«London Apprentice?».

Bai.

Taxi bat hartu zuten. Adreilu gorriko etxeak iragaten hasi ziren kristaletik. Asentuan etzan zen, Marckek eskua hartzen zion bitartean. Kale zabaletan aurrera egiten zuen pixkanaka-pixka-

naka taxiak. Semaforo batean gelditu ziren, zeharka erreparatu zion antigoaleko altzari-dendari. Marckek etxera sartutako antigoaleko mahaiarekin akordatu zen. Harantzagoko supermerkatu argitsua ikusi zuen. Herriko kale nagusia etorri zitzaion gogora: denda estua, apalak txupatxus, xaboi, lixiba, arroz, dilista, zaku eta laborantza tresneriaz beterik. Adreilu gorriz eraikitako eliza baten aurretik iragan ziren. Dotrinako irudia, Herriko elizan eguneroko meza eta gero «kristorenak kristorenak gera, kristorenak betiko izango *gera*» hura, gera gipuzkera eta guztiz, Don Juan Maria apaiza eta buruz ikasten zuten *Kristau Bidea* hura, jaialdia antolatu zutenean mundua aldatzeko zituzten ilusioak, Beriain, Harakinen ondoan gauarekin bat egin zueneko istant hura.

Beharrik hura dena atzean utzi nuen.

Karrika ilun batean barna sartu zen taxia. Ondoan nabari zuen Marcken arnasa pausatua. Beldurrak hartu zuen berriz ere, eta uxatzeko asentuko tapizeria laztandu zuen.

Ala ez. Beharbada bizimodu hobea lortuko zuen? Lurrez aldatutako landarea izatea zaila zela otu zitzaion, ez han ez hemen.

Igoal heroi moduan geratzea izan ahal zuen, ustez komandoko partaide izateak eman zezakeen pulpitu antzeko prestigio sozialaren gerizan. Gizon bat izanik, sustraiekin bat. Duda egin zuen. Ergelkeriak.

Asentuko tapizeria likatsua utzi eta Marcken eskua bilatzeko agindu zion eskuari. Irribarrea agertu zitzaion aurpegian Marcki ukimena nabaritzean.

«Londres Apprentice».

Mukuru zegoen taberna. Gehienak skinheadez jantzirik. Luzetsia iritzi zion Bazterrek moda hari. Hari ere ilea motz orraztea gustatzen bazitzaion ere, ez zen oso eroso sentitzen eskubiko talde erradikal batetik jalgirik ziruditen gizonen artean; Marck aldiz gustura ibiltzen zen, eta behin baino gehiagotan mozorrotzen zen skinhead eran, «Gorroto gaituztenen irudia nirea eginez» zehazten zuen.

Marck eskatzen utzita, komun aldera abiatu zen. Komunaren ezkerretako korridorean skin-

head bat eta exekutiboz jantzitako bat elkarri zirri eta muxu ari ziren galtzak erdi askaturik. Exekutiboaren maletina lurrean zegoen beltz, ferraje urreztatuak ñir-ñirka. Pixa egin ondoren korridore beltzari so gelditu zen. Gizon talde bat ikusi zuen zirri-mirrika galtzak belaunetan. Bazekien ez zuela hara egin behar, Marck espera izanen zuela goian, baina aspaldi sentitu gabeko irrika batek tira egiten zion. Adio Marck, adio amodio domestikoa. Hurbildu ahala egin zioten zirri, eta berehala jaitsi zizkioten galtzak. Gazte sentitu zen berriz, gorputz haien artean zakil bat, bular bat, buru bat, aurpegi bat laztanduz. Usain likits ezaguna usnatu zuen eta oro izan zen gauarekin bat, aspaldi ahantziriko Beriainekin, gorputz haiekin guztiekin, unibertsoarekin. Pixkanaka-pixkanaka gorputzak desberdintzen joan zen, altua eta sabel apalekoa, potolotxoagoa, mozkotea, lepo sendo eta kaskamotza. Halako batean sustraien moduko gorputza ukitu zuen. Zuhaitzaren azala lako larru hura ukitzean aspaldi ez bezalako sugarra igo zitzaion zakiletik gora. Enbor lepo hura atzamarkatu zuen. Aurpegia ukitu zionean, orbain bat nabaritu uste izan

zuen ezpainaren ezkerreko ertzetik kokotserantz.

Bazterri iraganeko fantasmak etorri zitzaizkion gainera. Eskua kendu gabe, arretaz ukitu zion orbaina, ezpainaren ezkerreko ertzetik kokotseraino. Gizon mozkoteak eskua heldu eta orbaina gora eta behera igurtzarazi zion. Bazterrek urtetan sentitu gabeko desioa nabaritu zuen, eta burua laztandu zion izuturik. Mozkoteak hartu eta taldetik aterarazi nahi izan zuen. Korridore sarrerako argi-fokuetara bultzatu zuen. Bazterrek atzera egin zuen, eta galtzak igotzen saiatu. Mozkoteak eskua heldu eta orbainera eramanarazi zion, sabelaldea igurzten zion bitartean. Bazterrek zafratu, galtzak jaso eta arrapaladan igo zituen lehengo solairuko eskailerak. Ihes egin, ihes egin.

«Zer gertatzen zaizu?» galdetu zion Marckek zurbiltasunarekin ikaraturik.

Hormara hurbildu eta botaka orro ozenak egitea izan zen Carlosen erantzun bakarra.

Barra aldean argi-ilunetik kukuka so ari zitzaien kaskamotz mozkote bati erreparatu zion

Marckek. Ezin zion aurpegia ikusi, baina kokots aldea laztantzen ari zela iruditu zitzaion.

Dilista okadez zikinik gelditu ziren mahai gaineko krisantemoak.

Jexus Mari

Nafarroako Gobernuak antolatu zien Basozaintza Ekologikoa ikastarotik atera zenerako Iruñeko ilunpetan zegoen. Carlos III.a etorbidea agertu zitzaion, hutsik; eskaparateetako argi itzaliak izekitzen ari ziren etxeetako leihoetan. Begiratu antsiatuz so egin zuen El Sitio kafetegi aldera. Argia ikustea iruditu zitzaion, baina ezin zuen horren urrundik bereizi. Ardailan egin zituen harainoko berrehun metroak. Hurbiltzen ari zela, bigarren solairuko mahai eta sillen hankak agertu zitzaizkion horma osoko kristalaren beste aldean; gorago, bi pertsonaren buruek duela hilabeteko eszena bera gogorarazi zioten, edo hobeto esateko, eta bere buruari hala aitortu nahi ez bazion ere, eszena hura gogoraraztera etorri zen azken lau asteazkenetan bezala.

Orduan ere ilundurik zegoen ikastarotik atera zenerako. Carlos III.ean behera egin zuen zalantzan, autoa hartu eta Lekunberrira joan edo azken boladan maiz egin bezala, gero eta gehiagotan bakarrik, Alde Zaharrera jo pote batzuk

hartzera. Lanparei erreparatu zien lehendabizi, gero bi pertsonaren hankak ikusi zituen. Emakumearenak ezagunak zitzaizkiola otu zitzaion. Aurpegiei erreparatu zien hurren: Harakin eta Miren. Musika klasikoa eta jendearen zurrumurru urrumagarria irudikatu zituen aitortzen lagun, zigarro bana eskuetan paseantearendako bi adiskide hutsen artekoa baino ez zitezkeen keinuetan murgildurik baziruditen ere, Jexus Mari berehala ohartu zen adiskidantza baino zerbait gehiago zegoela bi buruen elkar hurbiltze intimo hartan. Arnasa sakon hartu eta ahotiko lurrinarekin jolastu zuen kristala lausotuz.

Sumina hedatu zitzaion petxu aldean, eta pixagura itzela nabaritu zuen. Kalean topo egin eta kafe bat hartzera sartu ziren bi ezagun izan zitezen desiratu zuen. Berriz ere gora jaso zuen begirada. Harakin esaten ari zitzaion zerbaiti adi zegoen Miren. Barre arin bat egin zuen ondoren. Ederra zegoela pentsatu zuela akordatu zen, zaharrago baina aldi berean emakumeago. Mirenek eskua ukitu zion Harakini arrunta zitekeen keinu batez, baina Jexus Marirendako uste zuenaren konfirmazioa izan zen. Izterrak mugitu zi-

tuen zigarroari tira egiten zion bitartean. Harakinen aurpegi oparoa ikusi zuenean gorroto itsu batek hartu zuen. Putakumea! Beti besterena bere egiten. Mespretxuak hartu zuen gero, nola zitekeen haur atzeratu baten aitak emaztea bakarrik utzi eta kerida hartzea. Estirengan pentsatu zuen, etxean irudikatu zuen haurrarekin, bakarrik, ezagutzen zuen sukalde zuri hartan eserita, senarra non zegoen galdezka. Ez zituen ongi ulertzen Esti eta Harakinen arteko harremanak, ez ziren berak bikotea izatera izanen lituzkeenaren modukoak, ez horratik. Izan ere, elkarrekin zeramatzaten urte luzeetan liskarra eta zikinkeria baino ez baitzuten izan. Miren, beste baten hitzen xuxurlora irribarre egiten zuen Miren hura, lortu izan balu, askoz lotura estuagoa izanen lukeela pentsatu zuen, ez litzatekeela Esti orduan zegokeen bezala etxean senarraren esperoan izanen, etortzen ez zela ikusirik kalera aterako litzateke bila, Iruñera behar balitz ere.

Kale hutsetik auto bat iragan zen. Jexus Marik bere burua ikusi zuen bakarrik, karrika gorrian kafetegi bateko goiko solairu hutsari so, bere

baitan zuela lau asteko oroitzapen mingarrietan galdurik.

Nolakoa izanen zen bizitza Mirenek berarekin nahi izan balu?

Oraindik ere baditiat aukerak, gurutzatu zitzaion gogotik, udazkenean hegoalderantz zihoazen hegaberek ametsak eraman bezala.

Bakaikun larrua jo zutenekoaz akordatu zen, Miren hatsanka, Miren autotik ateratzen, Mirenen hankak autoaren fokupean etxean sartzen. Eta gero, bortxatua izan zeneko gelditu zitzaion sentsazio hura.

Beharbada horrek erakartzen naik. Berehala uxatu zuen, hala ere, ideia hura; onartzeak, are gehiago kontuan hartzeak berak ere, bere buruaz zeukan irudia aldatzera behartuko zuelakoz.

Kafetegia zeharkatuz komunera jo zuen zuzenean. Kafetegi hark pixagura sortzen zion. Atera zenean, barran eseri zen, zerbeza eskuan, telebistari so.

Non egonen ziren orain Harakin putakume hori eta Miren? Elkarrekin izanen ote ziren?

Bat-batean zalantza puntu bat egin zitzaion; izan ere, elkarrekin ikusi baino ez zituen egin, ez zuen jarrera salagarririk ikusi, interpretazio osoa keinu faun batzuetatik ondorioztatu zuen; beharbada oker zegoen, eta kalean topo egin eta kafe bat hartzera sartzea erabaki zuten, bi ezagun baino ez ziren une hartan.

Zerbeza hartu eta goiko solairura igo zen. Sabai baxuegiak, panel marroixkez forratutako paretak, formikazko mahai zuriak, musika klasikoaren ordez aditzen ziren biolin kirrinkariek, desinfektante usain lurrinduak itolarria sortu zioten. Oilo bustiaren begiradaz egin zuen aretoan barna. Inor ez.

Geroz, hemen gertatu zuan dena. Lekua ikusi eta usaintzeak zuzen zegoeneko ustea errotu zion. «Gertatu, gertatu zuan».

Astean behin elkartuko dira seguru aski Iruñean, edo Donostian beharbada; Aranazen ez, arriskutsuegi delakoz, eta badakielakoz Harakinek ez duela Esti utzi eta Mirenekin alde egiteko ez gogorik ez ausardiarik, eta hark ez badaki ere, badakielako Miren ez dela emazte izateko jaio, lehendabiziko larrualdi hartako portaera sutsue-

gitik edo gizonekin, edo hobeto esanda eta orokortu gabe, berarekin daukan superioritate jarrera sotiletik ondorioztatu du urteen buruan. Ezkutuan arituko dira pentsiotan larrua jotzen, Harakinek, duela bi asteko irribarreak gorabehera, ez baitu hotel batera eramateko hainbeste maitatuko.

Ferminek jakinen ote zuen? Seguru barrez lehertuko zela hasieran, gero Estiren sufrimenduagan pentsatuko bazuen ere.

Ate danbateko batek jalgiarazi zuen bere baitatik. Asaldaturik, danbateko aldera itzultzean emakume gazte bat agertu zitzaion, barkamen imintzioka. Behera jaitsi zen berriz ere, eta barrako aulkietan eseri. Telebistako irudiei erreparatu zien. Emakume bat eta gizon bat musuka ari dira pantailan lehendabiziko planoan. Halako batean gizonari begiak sutu zaizkio eta emakumea arbuiatu du keinu erdeinutsuekin. Emakumeak atzetik jarraitu dio barkamen eske. Hizketan hasi dira, baina Harakinek bozgorailuetatik zetozkion biolin karrankariak baino ezin zituen aditu. Berehala paratu zituen bere burua eta Mi-

renena pantailako gizona eta emakumearen lekuan.

«Kaixo».

Ustekabean danbatekoa jotako neska zen.

«Kaixo» erantzun zion, nonbaitetik ezagutzen zuela pentsatuz.

«Ez zara nitaz akordatzen?».

«Ez, barkatu».

«Maria naiz».

Jexus Mari garuna arakatzen hasi zen. Maria izenak zer edo zer esan beharra ziola bazekien, baina hala ere...

«Ez zara akordatzen orduan?» esan zuen berriz ere neskak, antsia ukitu bat ahotsean.

Bat-batean argitu egin zitzaion burua: autoa, izter batzuk, gona morea gerriraino igota, hatsankak, isurtzearen plazera egunetako beldurren lasaigarri.

«Maria!».

Akordatu ez izanaz lotsaturik, une batez isilisilik gelditu zen telebistari so. Hamahiru urte izanen zituen orduan, eta pin-pin txoriaren grazia zuela akordatu da: Zenbat izanen ditik orain, hogeita zortzi, hogeita hamar?

«Aspaldi ez dugula elkar ikusten».

«Bai, ordutik» esan zion, egoera zehatz-mehatz gogoan oraingoan. «Non sartu zara?» gehitu zuen lotsari ihes egiteagatik.

«Badakizu orduan familiarekin Aranazera Terueletik etorri berriak ginela. Gero Atarrabiara etorri ginen bizitzera, euskara ikasi nuen, ikasketak bukatu, eta azken bolada honetan Londresen izan naiz ingelesa ikasten. Unibertsitate publikoan ari naiz lanean, idazkari, eta Alde Zaharrean bizi naiz. Eta zu? Ezagutu genuen hartan baino itxura hobea duzu; orduan oso mehe zeunden».

«Betikoan. Betiko lanean, beti bezala. Bilera batetik».

«Sartu zara arazo gehiagotan?».

«Arazoak?».

«Bai, politika kontuetan-eta. Orduan ni liluraturik nengoen Euskal Mugimenduarekin».

Mariaren hitzetik hortzera mintzatze hartaz harritu zen Jexus Mari.

«Ez dut, zuk esaten duzun bezala, arazo gehiago izan, ez nabilelakoz militatzen; nahiz eta gauzak dauden bezala egonda, ez den beharrezkoa inon militatzea kartzelan bukatzeko».

Zerbitzaria, lau piru buruan, oihal batekin eskuak lehortzen, mika zaharra zirudien, lumak ezin garbituz. Mahai hutsetara isurtzen ziren argi horien itzal ahulek herrarazi egiten zuten eseritako jende bakana. Bi emakume dotore izkina batean, gizon bakarti bat, hiru gazte ogitarteko bat jaten, isil-isilik. Alde egiteko larritasuna pizturik, zangada batez zerbeza hustu eta Maria heldu zuen.

«Joango gara?».

Mariak baiezkoa egin eta aterantz abiatu zen. Pagatzen zuen bitartean erreparatu zion ipurdiari. Aldaka zabalegiak disimulatzeko zeramatzan galtza beltzek orduko gona gorri eta leotardo marradunak ekarri zizkioten gogora. Gau hartan bizi izandako desio galduaren mina igo zitzaion zintzurrean gora. Pin-pin txoria zozo astuna bilakatua zen. Mirenen ipurdia, zaharrago izanagatik ere, politagoa zela otu zitzaion, nahiz eta, ongi pentsatzen jarrita, urteak eman Mirenen ipurdia aztertu gabe.

«Nora joanen gara?» galdetu zion Mariari, etxerako aukerarik eman gabe.

Irribarre maltzur bat ikustea iruditu uste zitzaion Jexus Mariri neskaren aurpegian.

Alde zaharrerantz jo zuten Carlos III.a etorbidean behera. Nonbaitera zihoala susmatu zuen Jexus Marik bere baitan, eta uztearen goxotasuna hedatu zitzaion, ezeri kontra egin gabe.

«Esan dizut Londresen izan naizela urte pare bat ingelesa ikasten. Ezetz asmatu norekin egin nuen topo han?».

Jexus Marik ezezkoa egin zion.

«Hura nitaz akordatzen ez bazen ere, neronek ezagutzen nuen, zu ezagutu zintudan gau berean ezagutu bainuen hura ere, baina hura bistaz baino ez» esan zuen Mariak tonua eztiagotuz. «Bazter ikusi nuen, zuen laguna, bolada batean behintzat niretako laugarren heroia izan zena».

«Hara!» harritu zen Jexus Mari, Mariak Bazterrekin Londresen topo egiteagatik bainoago Maria noiz ari zitzaion serio eta noiz adar jotzen bereizten ez zekielakoz.

Bekoz beko egin zion so, baina Jexus Marik ez zuen ezer gehitu. Isilik egin zuten etorbidearen zati bat. Hala ere, Mariak ez zion erantzun nahi

izan Jexus Mariren jakin-minari, ez honek galdetu bitartean behintzat.

Jexus Marik «Eta?» huts batez gordetzen ari zena askatzeko esan zionean, susmatu zuen hortik aurrera zetozkeen Mariarekiko bataila guztiak galduak zituela. Atzera egiten saiatu zen, Mariaren ondotik zertxobait aldendurik, burua kaiola lako eskaparate ilunera jiratuz; baina bat-bateko pixagura hura sortzean, susmoa baieztapena bilakatu zion bere gogoaren alderik sekretuenean.

«Pub bateko arduraduna da, eta nik bertan egin nuen lan. Ez zitzaion zuen herri zorionezkoaz mintzatzea gustatzen; hala ere, Teruelgo nexka ezkertiar sutsu hari Aranazen erortzeak sortutako lilura aipatu nionean gehixeagotan hasi zitzaidan Sakanaz, euskal arazoaz eta abar mintzatzen. Badakizu grazia izugarria egiten ziola Euskal Herrian politikaren bidez integratu nintzela esaten nionean? Orduan esaten zidan: euskalduna zara militante zaren neurrian, eta barre egiten zuen. Uste dut ez zitzaiola gehiegi axola atzean utzitakoa, Euskal Herria eta abar. Badakizu homosexuala dela?».

Mariak zuzen begiratu zuen Jexus Mariren aurpegi ia asaldatura.

«Ez zenekien».

«Ez».

Jexus Mariri gogoa Bazterrengana joan zitzaion. Harriturik zegoen. Hori zen orduan, horregatik alde egin zuen, horregatik arrarokeria haiek guztiak. Bazter, marikoi bat. Baina nola ez zen kapaz aitortzeko? Zergatik egin zuen ihes? Koldar bat?

«Aizu, nahikoa dugu besteei buruz mintzatzeaz. Mintza gaitezen gutaz. Zuk nire etxean lo eginen duzu gaur?».

Jexus Marik baiezkoa egin zion irribarre batez.

Mariak besotik heldu zuen, eta Gaztelu Plazan barna Alde Zaharrean barneratu ziren.

«Gudariak bezala sentitu ginen».

«Zer?».

«Gudariak bezala sentitu ginela, askatu gintuztenean».

Estuago besarkatzea izan zen Mariaren erantzuna.

Etxeko portalean sartu zirenean, Miren eta Harakin elkarrekin ote zeuden galdetu zion bere buruari Jexus Marik.

Fermin

Ferminek psikologo biltzar batera Londresera zihoala hots egin zionean, Bazter hotz egon zela iruditu zitzaion, Aliziaren pozerako esan beharko zuen, Aliziak ez baitzuen gustuko Lekunberri Aranaztik zetorren ezer, nahiz eta ezer hori Bazter izan, bere lagunarte osoan Harakin eta Estiren ezteietan gustuko izan zuen bakarra; baina Ferminen aburuz, emaztea ongi ezagutzen zuela iruditzen zitzaion, Bazter zelakoz Herritik ihes egin zuena.

Ferminek, badaezpada ere, berehala argitu zion ez zuela ostatu hartzeko lekurik behar, biltzarrarekin batera zihoazela hotela eta otorduak; harekin egon baino ez zuela nahi, eta orduan laxatu zela iruditu zitzaion.

Aliziari harrigarria egiten zitzaion, «Horren adiskide handiak izanik», ahoskatzen zuen hain ongi erabiltzen zuen ironiaz baliatuz, «nola ez dakizuen non egiten duen lana, andrerik baduen, edo gutxienez, bikotekiderik, zer bizimodu daraman; alegia, salbu eta ez baldin badago zuek

susmatu baina jakin nahi ez eta hark ezkutatu nahi duen zer edo zer».

«Zer, esaterako?» oldartu zitzaion Fermin, gehienetan Aliziarekin ados baldin bazegoen ere, «Adosegi» Jexus Marirenez, aldi hartan maltzurki jokatzen ari zela iruditu baitzitzaion.

«Hara, hori zuek jakinen duzue. Ez zarete ba zuek elkarrekin hazi zaretenak!».

Fermini iruditu zitzaion Alizia, askotan legez, ernegatzen zuena, zuzenean beharrean, zeharka ari zitzaiola egozten.

Argi dago ez duela nahi biltzar horretara joan nadin, pentsatu zuen bere baitarako Ferminek; eta joanen zela argi bazeukan ere, biziki interesatzen baitzitzaion Depresio eta Kontsumo gizartea harremanetan jarriko zituen biltzar hura, onartzen zuen Aliziak bazituela arrazoiak minduta egoteko: bakarrik geldituko zen, astebeterako baino ez baldin bazen ere, Enekorekin eta Maialen jaioberriarekin.

Biltzarraren bigarren egunean hots egin zionean abegitsuago aurkitu zuen Bazter. Baietz, geldituko zirela, arratsalde hartan lan egin behar zuela eta gau aldera, zortzietan, joanen zitzaiola

bila. Baietz, biltzar tokira bertara. Biltzar tokiko areto nagusiaren ate ondoko telefonoa zintzilikatu zuenean ohartu zen, ez zekiela Bazterrek zertan egiten zuen lan, eta berehala etorri zitzaion Aliziaren ironia: «Horren adiskide handiak izanik!».

Adiskideak ote ziren?.

Areto nagusian sartu zen. Iraganaren berrantolaketa eta Depresioaren arteko lotura ezkutuez ari zen hizlaria: «Gure oraina iraganeko oroitzapenetan egiten dugun irakurketan oinarriturik dago; are gehiago, esan dezakegu, neurri handi batean irakurketa horren emaitza garela, eta, beraz, garrantzi handia daukala gure osasun mentalean oroimen horien antolaketak. Etxe baten eraikuntzaren similaz baliatuz, esan genezake, teilatua paratzen badugu oinarriak baino lehen, edo leihoak leku okerrean paratzen baditugu, etxe okerra geldituko zaigula; antolaketa hau, izan ere, ez dagokio denbora hurrenkerari, baizik eta gure bizitzan garrantzitsu izan diren alderdiei. Zera baino ez dut esan nahi, oinarrian guretzat garrantzikoak diren oroimenak paratu behar ditugula, eta hona nire hitzaldi honen

gakoa, errealitateari iruzur eginez». Hizlaria burua altxatzen ikusi zuen, azken esandakoak biltzarkideengan izan zezakeen eragina neurtzeko.

Adiskideak ote ziren?.

Haien adiskidantza oroitzapenaz baino ezin zen elikatu, baina, bestalde, «edade honetara heldurik edozein adiskidantza oroitzapenez elikatzen duk; izan ere, orainak ez ziok gure adiskidantzari aukera gehiegirik eskaintzen, ikusi ere oso gutxitan ikusi izan gaituk. Gure adiskidantza, hizlariak esan bezala, errealitateari iruzur eginez edo, argi esateko, errealitateari egindako iruzurrari esker bizi duk, oroimenak hoberako aldatzen duela».

Ez, zentzu estriktoan ez ziren adiskide; baina izan baziren, adiskidantza oroitzapen haien berrelaborazioari esaten zitzaiona bazen.

Hizlariari begiratu zion. Oraindik ere baieztapenaren eragina neurtzen ari zen, entzuleei begira.

Alizia etorri zitzaion gogora. Bere burua engainatzen ari zen. Ez ziren adiskideak, adiskidantza maitasunean baitago oinarriturik, eta maita-

suna oraina da; gainontzekoa, esanen zuen Harakinek nahi zuena, bizi izandako maitasunaren oroitzapena, sentimenduen arkeologia zen; gezurra, alegia; bizitzeko beharrezko gezurra, baina gezurra. Baina baita ere, pentsatu zuen, osasunaren izenetako bat, hizlariak ongi esan bezala.

Gaurkoak oroitzapenen kutxa berritzeko balioko zion.

Erdi lozorroan eman zituen arratsaldera arte gelditzen zitzaizkion orduak.

Lurra bustirik zegoen. Erabat ilundurik zen hiriaren gainean. Haize hotzaren labanak lozorrotik erauzarazi zuen. Errainu artean agertu zitzaizkion kale argiak, neoizko letrak, ñir-ñirrean, autoen argi-fokuak. Gabardinaren lepokoak jaso zituen. Eskailera zabaletan gora zetorren gizonari erreparatu zion. Zintzilik zeraman gorbata gorria, eskailerak igotzen zituen bitartean. Bat batean bere burua ikusi zuen ispilu batean bezala: trajez jantzita zegoen.

Mekaguen la puta, esan zuen bere artean, hoteleko atarian gelditu behar genian.

Hoteleraino hurbildu-ez hurbildu egon zen, baina erlojuak seiak eta hamar seinalatu zizkion; nahikoa gertu baldin bazegoen ere, ez zuen betarik joan-etorri egiteko.

Baziren sei urte inguru Bazter ez zuela ikusi. Haizearen labana areagotu zion galtzarbeetatik aurpegiraino hedatu zitzaion izerdi hotzak. Ez zihoan abagunerako egoki jantzirik. Gehiagotan ere gertatua zitzaion, eta bazekien gauean behin baino gehiagotan sentituko zela preso trajearen barnean, besteak berari buruz zer uste zuen etengabe galdezka.

Mekaguenlaputa hotelera joan behar nian. Trajez jantzirik ikusiko naik, eta ergela naizela pentsatuko dik.

Hitzak bere artean ahoskatu ahala errabia olde bat igo zitzaion zintzurrera. Alizia irudikatu zuen maltzurki barrezka: «Ez duzu sekula zure herri hori zerorren baitatik deserrotuko». Egia zela pentsatu zuen; urteak zeramatzan Bazterrekin luze egon barik, ez zekien zer pentsatzen zuen, ez zekien non lan egiten zuen, ez zekien,

hitz batean esateko, nor zen, eta Lekunberriko aurre-juzgu eta bizipenak etorri zitzaizkion, ez onerako, gainera, Aliziak esanen lukeen bezala, baizik eta lotsaturik sentitzeko, edo errudun, edo traidore, eta azkenik haserre eta sumindu.

Lekunberri puta horrek nerabe egin hau betiko!

Ezinegonik erlojua begiratu zuen. Eta hogei. Berriz ere barnera sartzea otu zitzaion, baina uxatu egin zuen gogoeta hura arestiko lozorroaz akordaturik.

Kale zabala gurutzatu zuen, Tamesis ibaiak asaldadura baretuko ziolakoan. Ilun zihoan ibaia, urik ez zeramala zirudien. Beste aldean eraikin dotoreak ageri ziren, botereak botere dela erakusteko behar dituen horietakoak, jauregi neogotiko handi bat, etxe-orratz erraldoi bat harantzago, Buckingham ezkerraldera. Lekunberri Aranazko elizaz akordatu zen. Nola erakusten zen han boterea? Eta ez zitzaizkion etorri egune-roko dotrinan apaizak emandako jipoiak, haren tirania erabatekoa, ez eta maistrak eskolan haur haien gainean zeukan aginte ankerra, ez; etorri zitzaiona, Harakinek eta Harakin bezalako ba-

tzuk, Bazter barne zenbaitetan, lege idatzibarikoen bidez, haien mesedetarako ezarri ohituren bidez, lerrotik ateratzen zenarekiko erdeinu bidez, artasuna eta iraultza nahia nahasten zituen jarrera haren bidez, baldarki erabilitako boterea izan zen; «Seguru aski», esanen lioke Aliziak gogoeta kontatuko balio, «horrek egin dizulako min gehien, eta hori duzulako oraindik haragi bizian». Eta konforme egon beharko luke Aliziarekin, gehienetan bezala, nahiz eta konforme egote hori gero eta makurrago eraman.

Atzera begira jarririk, ebatzi zuen Bazterrek ez zuela horrelako «jokoetan» parte hartzen; esaterako, Bazterrek ez zuen koadrilan ongi pasatzeko ergel bat behar; Harakinek, aldiz, bai, haren kontura barre egiteko; eta askotan, gehiegitan, Fermini berari egokitu zitzaion rol mingarri hori.

Koadrila hitza bera ere nazkagarria iruditu zitzaion, euskaldunen banakakotasun gabeziak sortutako talde ama zorrotz bezain irentzailea. Eta bere buruari aitortu beharra zion, azken bolada hartan, jada gazte ez zela, egunerokotasunaren pisutasunak gero eta makurtzenagotzen

zuela; aitortu beharra zion, batzuetan ments zuela komuntasunaren epeltasunari esker bizia erraz bihurtzen zuen jende talde hura, ama ments izaten den moduan.

Haize bolada bustiak bere baitatik atera zuen atzera berriz. Taxi bat gelditu zen Biltzar Jauregiaren aurrean. Bazter ikusi zuen jaisten. Esti eta Harakinen ezteietan baino askozaz argalagoa zegoen; orduan joera zena, errealitate bilakatua zen buru soilduan; kuzkurturik zirudien, «Hotzagatik, beharbada» pentsatu zuen. Zehatzago behatzearren, eskailerak igo zitzan utzi zion; eta ia goian zegoela, Ferminek lasterka gurutzatu zuen kale zabala, autoak saihestuz, «Bazter, Bazter» garrasika.

Eskailerak igotzen ari zela, trajez jantzita zihoala pentsatu zuen atzera. Jauregiko ate nagusitik sartzear zegoela sorbaldan ukitu zuen.

«Fermin!» zabaldu zizkion besoak.

Elkar besarkatu zuten barrezka.

«Zer moduz!».

«Ongi, ongi».

«Oso mehe hago».

«Badakik, zaindu egiten nauk. Hi, zer eginen diagu? Bukatu duk hemen?».

«Hik nahi duana».

«Afaltzera joatea pentsatu diat, eta gero zer edo zer har zezakeagu».

«Konforme».

Taxian igo ahala isiltasuna egin zen bien artean. Ferminek ibaiaren bestaldeko eraikin ofizialei erreparatu zien: Parlament House, Buckingham Palace. Ez zekien nondik hasi: non lan egiten zuen, non bizi zen... galdera bat-batekoegiak izateaz gain, haien arteko distantziaren nabarmengarri iruditu zitzaizkion –sei urte atzera, Esti eta Harakinen ezkontzara–, bizitza pertsonalez ezer kontatu ez zuen Bazter hari egiteko. Eguraldiaz zerbait esateari, halaber, ergelkeria bainoago iritzi zion, azken zortzi urtetan behin baino ikusi ez zuen adiskide bati egiteko.

«Zer moduz kongresua?» salbatu zuen Bazterrek.

Maitasuna oraina da, etorri zitzaion gogora.

«Konduktistegia, badakik; nahiz eta gaur arratsaldekoa saio interesgarria izan». Profano batendako interesik gabeko azalpen luzeegi ba-

tean trabatu zen gero, harik eta Bazter gizalegez entzuten ari zela ohartu arte. «Badakik, psikollolloak» ebatzi zuen nahasketatik ateratzeko, duela hamar urteko adar jotzea berrituz. Aliziak dantza egin zion gogoan, «Zarena zara» kanta ergel baten leloa bailitzan abesten.

«Zer moduz hire andrea? Beste haur bat izan duzue, ezta?».

«Nola dakik?».

«La Policía no es tonta». Barre egin zuten.

Fermin berehala ohartu zen Bazter bera bezain noragabeturik zegoela berarekiko, eta nahiago zuela eremu arrunt eta komunak zapaltzea, iragana eta inguruak, alegia.

«Harakinek aipatu zidaan».

«Orduan badakik...».

«Bai, bazekiat haien ume atzeratuarena; Kaplan doktorearengana etorri zuan, Down sindromean aditua duk, baina ez zioan esperantzarik eman».

«Bai, mediku pila ibili ditek. Esti oso kezkaturik zegok».

«Harakin ere bai. Gogorra izan behar dik, hire amets guztiak zapuzten direla esatea. Dena dela, beti bezain tinko segitzen dik».

«Bai, tinkoegi» ausartu zen Fermin.

Gelditzeko agindu zion Bazterrek taxi gidariari, Fermin harritu zuen ingeles azentuarekin.

«Oso ongi mintzatzen haiz ingeleraz» esan zion, jaitsi zirenean.

«Nahi likek» erantzun zion. «Gustuko dituk jatetxe japoniarrak?».

Ez zitzaion erantzunaren espera gelditu, eta letra japoniarrez apainduriko atetik barneratu zen.

Lurrean eserarazi zituzten. Areto erdi hutsari erreparatu zion Ferminek, paper eta egurrezko tabikeak, mahai baxuak, horma hutsak, lanpara ongi kokatuak. Zerbezak ailegatu ahala heldu zituzten isiltasunari ihes egiteko.

Nola biziko ote zen? Egia ote zen Aliziak zioena, alegia, homosexuala dela eta homosexualitate hori bizitzeko alde egin zuela herritik? Izan ere, alde egin beharra zuen lasai ibiltzeko? Seguru aski bai. Nola bizi desberdina izanik Lekunberrin? Herria bertako legearen arabera irabazle

izendaturikoentzako tokia zen, azpimarratu zion bere buruari, Donostiara bizitzera joatearen erabakiaren arrazoiak berrituz.

«Beno, eta kontaidak: zertan habil?» galdetu zion Ferminek, gehiegi galdetzen ari zelako susmoak harturik.

«Lanean esan nahi duk?».

«Bai».

«Han eta hemen. Baina azken aldi honetan pub bat hartu diat. Badakik, hemen gobernuarenak izaten dituk pubak, enkantean ateratzen dituk, eta bat hartu diat. Ongi».

Azalpenak jakin-mina ase ote zion desafioz so egin ziola iruditu zitzaion Fermini.

«Ez nekian» poztu zen Fermin, begiradari ez ikusiarena eginez; erabakirik zegoen Bazterren bizitzari buruz zerbait jakitera, ez Aliziagatik, beragatik baizik.

«Bai, duela gutxi» jarraitu zuen Bazterrek, gorputzaren teinkada laxatuz. «Kostatu zaidak, baina azkenean lortu diat. Ez duk han hire taberna izatea bezala, baina negozio ona duk».

Fermin beste aitorpen baten espera gelditu zen, baina etorri ez zenez, isiltasuna ezarri zen

haien artean. Janaria ekarri zuten halako batean. Sushia. Ferminek ezin izan zuen nazka keinua bisaiatik ekidin.

«Proba ezak, motel» esan zion Bazterrek, irribarrea ezpainetan. «Ona duk, ikusiko duk».

Ferminek baiezkoa egin zion.

«Zer moduz zegok Esti?».

«Badakik, ez duk oso bolada ona pasatzen ari».

Une batez, Bazterren hersturagatik ezinean zihoan elkarrizketa hari ez laguntzea erabakirik, bere horretan utzi nahi izan zuen aipatutakoa, baina kontatu nahiak bultzaturik zera gehitu zuen: «Ez zabiltzak oso ongi Esti eta Harakin. Nolabait esateko, eta hauek Estiren hitzak dituk, Harakinek ez dik onartu nahi Down sindromedun semea duela, eta ihes egiten omen dik. Berriz ere jo eta su hasi omen duk militatzen, eta gero eta lan gehiago egiten omen dik harategian ere. Hitz batean, gaizki; eta Estik ez zekik zer egin».

Komentarioarekin deseroso ikusi zuen Bazter. Isiltasuna ezarri zen bien artean. Bazterren isiltasuna komentario harekin afaria izorratu izanagatik zela iruditu zitzaionez, erru olde batek

hartu zuen Fermin. Atzera eta atzera egin zuen. Aliziarengana hurbildu zen une batean, eta pentsatu zuen zertarako hots egin ote zion Bazterri, zergatik arakatu behar izaten zuen oroitzapenetan, zer zela-eta zegoen herri nazkagarri hari estekaturik.

«Ez zegok eskubiderik gure ametsekin egiten ari direna egitera».

Bazterren ez-ulertu bisaia agertu zitzaion, putzu huts baten modura.

«Jendea hiltzen ditek gure izenean, eta jada nik ez zekiat zeren alde nagoen. Hiltzearen aurka nagoela zekiat bakarrik. Komando hura osatu nahi izandu genuenean munstro bat elikatu genian, eta horretan errua diagu. Hura gelditu beharra zegok, geure buruen, euskaldunen kontra ari gaituk. Ez duk jakinen, baina Alizia, nire emaztea, aspalditik zebilek talde bakezale batean, Gesto por la Pazen. Gelditu beharra zegok, ez ditek eskubiderik gure ametsen izenean egiten ari direna egitera. Gure Ametsak! Izan ere, ez duk horren inportantea independente izatea, ez?».

«Ez duk hain inportantea euskaldun izatea» bota zuen Bazterrek sorbaldak jasoz.

Isiltasuna zerbeza tragoxka bat bezala kokatu zitzaien.

«Eta Jexus Mari?» galdetu zion Bazterrek, ezaxola iruditu zitzaion tonuan; baina Fermin ongi asko ohartu zen Bazterrek ez zuela ildo hartatik jarraitu nahi

«Ongi».

Basoetako zerbezatik zehar begiratu zioten elkarri.

Harakin

Zalantzak aienatu zitzaizkion, Ike Ortzadarraren Bandera zerraldo gainean paratzen ikusi zuenean. «Zeren bandera ote duk Ortzadarrarena?». Ikurrina paratzera atera zedin eskatuz aditu uste izan zuen Jexus Mari. Bazekien Ferminek ez zuela gustuko izanen, eta horrek, ez duela zenbait urte baina bai orduan, atzera eginarazi zion. «Zer esanen dik ba Ferminek, Gestokoa duk-eta» erabakiz, ezkerreko hanka mugitu zuen aulki korritutik ateratzeko asmoz. Bazterrek merezi zuen ikurrina gainean eramatea, euskaldun orok merezi zuen; zalantza egin zitzaion, ordea, Bazterren lagunek nola hartuko zuten. Ongi seguru aski, Ikeren bandera, ordezkatzen zuena ordezkatzen zuela, paratzea ongi hartu zuten bezala. Soldadu baten modura planeatu zuen Ferminen eta Jexus Mariren artetik ateratzea eta oholtzaraino ailegatzea. Jende gutxiago zeukan Ferminen aldetik, nahiago zuen, hala ere, Ferminekin ez zen inoiz jakiten, Jexus Mariren aldetik erdiko korridorera atera eta au-

rrera egitea. Jexus Mariren laguntza bilatu zuen, bere baitan galdurik zirudien, ordea, Fermini begiratu zion gero, kasurik ere ez. «Ergela! Zergatik ez zuen ekarriko Sarriren sustraien poema hura. Jakin izan balu berak ekarriko zuen».

Jexus Mari pixka bat bazterreratu ondoren atera zen korridorera. Aurrera egin ahala lepagainean iltzaturik nabaritu zuen Ferminen begirada, «herratsua», erabaki zuen. Fermin koldar bat duk, beti izan duk koldar bat. Egiten ari zenaz Estik zer pentsatuko ote zuen itaundu zion bere buruari. Ergelkeria zela seguru aski, baina Estik azken boladan, haurraz aparte, denari irizten zion ergelkeria. Esti eta izan behar zituzten haur guztiak, Esti eta zeramaten bizimodua, Esti eta seme atzeratua. Eta haurrari zer irudituko zitzaion? «Izanen ote du gure haurrak iritzirik horrelako egite bati buruz?». Bazterrekin Kaplan doktorearengana joan zeneko hartaz akordatu zen. Ba ote zekien orduan Bazterrek minbiziak jota zegoela; eta baldin bazekien, zergatik ez ote zion esan, benetan adiskide minak baldin baziren; izan ere, Ferminek zioena egia zen beharbada, adiskideak ondoan dituzunak direla.

«Nora ostia hoa?» entzun zuen atzetik.

Ergela, pentsatu zuen. Hala ere, inarrosi egin zuten Ferminen oihu zezelduek, hanketan dardara sentitzeraino. Poltsikora sartu zuen eskua, ikurrina ukitzeak segurtasuna eman ziezaion.

Labanak bezala bildu zituen hiletarren soak. Lehendabiziko ilarara ailegatu zenean Marcken eztula aditzea iruditu zitzaion. Zeharka begiratu zion; han zegoen traje beltzez jantzirik, zutik eta atezuan; beste aldean zeukaten Ike, aulki korrituan eroririk, negarrez.

Oholtzara igo eta itzultzean desegoki jantzirik sentitu zuen bere burua. Gizonak traje beltzez, emakumeak soinekoz eta sonbreiruekin batzuk. Ike, Jexus Mari eta Fermin ziren koloredun azpil bakarrak. Ferminen aurpegi erdi izutu, erdi eskandalizatuari erreparatu zion, ondoan Jexus Marirena: burlatsua iruditu zitzaion, ikurrina paratzeak jendearengan sor lezakeen erantzun desegokiaren esperatzeak libertituko bailuen.

Eskua poltsikora bota eta ikurrina atera zuen tolesturik. Bazterren Londresko lagunek, orain-txe aurrean dituen lagunek, ez dute zertan jakin, baina Ferminek eta Jexus Marik jakin beharko lu-

kete, Bazterrek, bizirik balitz jakinen zuen moduan, ikurrina, oraintxe bertan Bazterren zerraldoari paratzera doan ikurrina ez dela edozein ikurrina, eskuan duen ikurrina komisaldegitik atera ondorengo manifestazioan erabili zuten ikurrina bera baita, Bazterri etorri zenean eman nahi eta hark hartu nahi izan ez zion bera, nahiz eta oraindik ere Harakinek bere buruari galdetu zergatik arraio ez zuen hartu nahi izan.

Harakinek ikurrina zabaldu eta, Ortzadarraren Bandera ez ezkutatzeko tentuz, ikurrina paratu zuen zerraldo gainean.

Burua jaso eta jendeari so gelditu zen. Istant batez Esti jendartean zegoela iruditu zitzaion, haurra besoetan, irribarrez. Dena hobe izan zitekeen.

Halako batean hiletako jendea txaloka hasi zen. Oholtza gainean gelditu zen, txaloak jasotzen, Fermini, Ferminen koldarkeriari erronkan; baina Fermin burumakur zegoen, gertatzen ari zenari ihesi egin nahian. Jexus Mari bilatu zuen; keinu burlosoak egoneza eragin zion, ez baitzekien zertara zetorren. Uler zezakeen neurri batean Ferminen lotsa, edo izua, baina Jexus Mari-

ren keinu hark ukatu egiten zion egindakoaren egokiera eta, hitzari gehiegizko iritzi baldin bazion ere, balentria.

Zirt-zart batean egin zituen zerraldoak laberako falta zitzaizkion metro eskasak. Hormako zuloa estaltzen zegoen gomazko errezel beltza ireki eta han desagertu ziren Ortzadar bandera eta ikurrina. Errezel beltzak, berera itzuliz, zuloa estali zuenean gomaren distira txarolatuari leloturik gelditu ziren denak. Oholtza gainean bakarrik zegoela konturatutakoan jaitsi zen Harakin. Zain eta deseroso nabaritu zuen jendea, hitzik gabean bukatu ote zen galdezka. Marckek itzuli behar izan zuen, eskuekin bukatu zelako keinua eginez. Eztul batzuk entzun ziren lehendabizi, gero marmar murduskatu bat, gero ahots ozenagoak, barreren bat ere bai. Marck desenkusa keinuz desagertu zen ate batetik harantz, errautsen bila-edo, pentsatu zuen Harakinek.

Fermin zetorkion oldarrean, begiak sutan, arrazoiak fifaka. «Hi, hi, hi...» lortu zuen esatea Ferminek haserrearen artetik.

Harakin so gelditu zitzaion, burua zertxobait goraturik, berezko zuen keinua marraztuz.

«Zertarako paratu diok ikurrina. Bazter ez zuan gudari bat».

«Eta zer?».

«Ikurrina paratzean herorrenera baino ez duk eraman Bazter, eta Bazter ez zegoan hi hagoen tokian. Aspaldi, aditzen duk, aspaldi utzi zioan euskaldun izateari».

«Euskaldun jaiotzen denak euskaldun izaten jarraitzen dik beti».

«Hara! Mekaguendios!».

Harakinek Jexus Mariren bisaia bilatu zuen laguntza eske, aurreko keinu burlatiarekin egin zuen topo, ordea.

«Bazter ez zuan hangoa jada, Bazter hemengoa zuan; ez haiz ohartzen, bera izateko, homosexuala izateko ere handik ihes egin behar izandu zuela. Zer uste duk, bazeukala lekurik han?».

«Zer ikusteko zeukak homosexuala izateak edo ez izateak. Denok zoriontsuak garen neurrian izanen zuan Bazter zoriontsu Lekunberrin, ni eta hi bezal-bezalaxe. Ez zitian ba hogeita bost urte bertan eman. Bazter zintzoa zuan, hi ez bezala; zergatik alde egin huen hik, Gesto por la Pazekoa egiteko?, horretarako alde egin huen?».

«Hara! Horregatik orduan! Gauza bat esanen diat...».

Fermin ia garrasika aritzeak kanporantz zihoan jendearen arreta bereganatu zuen. Baxuago aritzeko keinua egin zion eskuekin.

«Ez esateko niri isiltzeko! Hi...».

«Zer iruditu zaizue ospakizuna?» hurbildu zitzaien Sydney, ilaje gorria harroturik eta begiak beterik.

Harakinek Ferminen gorrotoa atzera egiten ikusi zuen, atzerantz doan olatu baten gisa, harik eta kartolak itxirik gorrotoa hesiturik gelditu zen arte. Hurrengo arte, pentsatu zuen Harakinek Ferminen gorabeherei jaramon handiagoa egin balie.

«Gure Ike honek beti haizatu behar ditu bere erreginakeriak. Ez zeukan igotzerik baina... Beno, ez da gaizki egon. Niri ez zait gehiegi gustatu musika, baina azken boladan Carlosek gehien maite zuen musiketako bat zen. Niretzat sobera goibel, baina Carlosek hala utzi zuen idatzita».

«Jende asko etorri da» bota zuen Harakinek, izpil beltza zuhaitz berdeen artean sakabanatzen ikusten zuela.

«Bai, badakizu, lankideak, ezagunen bat edo beste, eta deus gutxi gehiago. Londresen oso erraza da jendeak ezagutzea, oso zaila lagunak mantentzea, ordea, eta azkenean oso jende gutxirekin izaten duzu harremana. Zuek ere berdintsu ez? Oso herri txikian bizi zaretenez».

«Bai», Harakinek.

«Nik ez naiz herrian bizi jada» entzun zuen Fermin zizaka esaten, «Donostian bizi naiz».

Harakin *ñoñostiarraren* adar jotzea egitekotan izan zen, baina eutsi egin zion, bazterrak berriketarako ez zeudela erabakirik.

«Gutxiegirekin», Ferminek.

«Nola?».

«Jende gutxiegirekin dugula harremana, alegia».

«Oi, bai; gu hemen gaudenak baino ez ginen, familia antzeko bat: Marck, Carlos, Ike, Sean eta bostok. Baina orain Carlos hil zaigu eta umezurtz gelditu gara. Badakizu».

Harakinek Fermin, burua makurtuz, bazekielakoa egiten ikusi zuen. Ze jakinen dik horrek Londresko bizimoduaz. Enterao bat zela erabaki zuen, Fermin izateaz aparte.

Ike hurbiltzen ikusi zuen; susperturik zetorren, soineko morea binbilin-banbalan mugituz.

«Gustatu zaizue poema, my dear?» galdetu zion Sydneyri.

«Bai, asko. Norena da?».

«Walter de la Mare-rena. Eta zuei?».

Harakinek aditu zuen Fermin poema erabat ulertu ez zuela aitortzen.

«Afaltzera ere joan beharko dugu. Non dabil emakume hau?».

«Zein emakume?» ausartu zen Harakin.

«Nor izanen da ba, *espainol maitagarria*, Marck!».

Harakini mespretxua hedatu zitzaion barrunbeetan. Emakumea? Espainola? Tipo hau jota zegok, eta ez bada isiltzen bereak adituko ditik».

«Goazen begiratzera, my dear» heldu zion Ikek Sydneyri.

Oholtza gainean zegoen atetik desagertzen ikusi zituzten biak, besotik heldurik.

«Tipo hau jota zegok. Horrelako beste bat egiten badit kristorenak esanen zizkioat».

«Bai, zera esanen diok hik» oldartu zitzaion Fermin, aurreko eztabaida lehertu gabea gogoan, seguru aski, pentsatu zuen Harakinek. «Hire ingelesa moldatzeko baino ez duk ailegatzen, nirea bezala, bestalde, eta horrek primeran egiten dik ingelesez».

«Igoal duk, euskaraz esanen zizkioat!».

«Kaka esanen diok hik!».

Harakin sutu egin zen. Honen ergelkeria Ike horrena bezainbestekoa duk.

«Nik esanen zioat nahi dudana, eta hi ez hadi sartu. Oraindik ez dituk denak entzun eta. Ergela!» esatearekin batera jakin izan zuen Harakinek, gaua ez zela bakean joanen; baina Ferminen begietan ikusi zuen garretatik ustekabean salbu sentitu zen, ordukoan Marck baitzetorren, eta Sydney eta Ike segizioan bezala, bi poto urdin eskuetan.

Hurbildu zitzaienean Harakini luzatu zion portzelanazko potoetako bat. Harakinek Marcki so egin zion, gero Jexus Mariri, gero Fermini. Metalezko zaporea hedatu zitzaion zintzurrean behe-

ra. Marckek potoari eragin zion, hartzeko keinua eginez. Ferminek hartzekoa egin zuen, baina Harakinek eskuak luzatu eta berak hartu zuen potoa.

«Errautsen erdiak Basque Countryn haiza ditzazuen».

Harakinek bularrera ondoratu zuen potoa. Marcken antezko zapatei erreparatu zien; gero burua goratu zuen, bere betiko keinuan.

«Thank you» aurreratu zitzaion Fermin.

Marck

Lekuz kanpoko txoriak bezala gelditu zirela pentsatu zuen Marckek, jendeak alde egin ondoren areto hutsean Fermin, Jexus Mari eta Harakin ikusi zituenean. Deslai ukitu bat nabari zitzaien, eta bakarrik ez uzteko eskatzen ari ziren, bakoitza zenbait aldetara begiratze harekin. Noizbait izan zezaketen adiskidantza ahiturik zutela bururatu zitzaion Marcki, ez zutela elkarrekin egon nahi, eta horregatik zeudela Sydneyrengana jiraturik, deserosotasun hartatik libratuko zituen kakoa hark ekarriko espera. Ike ikusi zuen haiengana hurbiltzen, aldakak mugituz, Barbara Cartland nortasuna berrezkuraturik. Ike. Zer ikusiko ote zuen Bazterrek harengan? Gaztetasuna? Alegrantzia? Amodio domestikotik ihesi falta zitzaion sugarra? Edo besterik gabe Iraultza nahi neurri batean ergel batek akuilaturik beste bikote mota bat, beste bizimodu bat saia zezaketela frogatzeko falta zitzaion puska? Ikek berak sinetsitako zerbait, bestalde. Ikerekin zebilela esan zion zorioneko egun hartaz akordatu zen. Carlo-

sek eta biek oso bolada ona zeramatelako-edo, esaten den moduan, gehiago mindu zen. Ordura arte biek izan zituzten gau bateko larru jotzeak, baina inork ez zuen ezarri, ahoskatu gabeko itun bati jarraiki, bikoteaz kanpoko harreman iraunkorrik; horregatik iruditu zitzaion Marcki, Carlosek traizionatu egin zuela Ikerekin harreman paralelo bat hasi zuenean. Carlosen aitzakia zurigarriak gorabehera, Marckek ez zuen ulertzen Carlosi adinak aurrera egin ahala «stop egiteak», halaxe izendatzen zuela akordatu da Marck, hitzaren esanahi hutsa zein Carlosekiko oroitzeak barrunbea irauli diola, «stop egiteak» sortzen zion ardaila. Ero baten moduan paratu zitzaion, oraindik akordatzen da zenbat gau eman zituen lorik hartu gabean, Carlosekin zer egin erabaki ezinean; baina gero lasaitu zen eta nolabait, onartu zuen Carlosek planteatu ziona, berarekin bizitzen jarraituko zuela, eta behin edo beste baino ez zela Ikerekin oheratuko. Hori bai, Ikeren adiskidea izaten jarraitzeko erregutu zion Carlosek, denen artean familia baten antzeko zerbait osatzeko. Ameto egitea baino ez zitzaion gelditu Marcki; eta hala ere, Ike *puta* erabaki zuen Marc-

kek, Carlosen *puta* adjektiboaren azpian ezkutatzen zen homosexualitatearekiko autogorroto salaketari ez adituarena eginez. Puta gizajo bat, Marck baino babesgabeago, deslaiago gelditu baitzen Carlosen heriotzaren aurrean, antzezten zituen pertsonaiek bestela iradokitzen bazuten ere.

Beiradura nagusitik sartzen ziren berunezko eguzki printzek animaliatxo izutuen gisa agerrazirik, arretatsuago erreparatu zien Marckek: Fermin bizkarra lehen baino zuzenago, bularra paparturik zerbaiti aurre egin nahian bezala; Jexus Mari maltzur ukitua aurpegian, gorputz sendo mozkotea hanka bakarrean zamaturik; Harakin poto urdina besoetan, seguru, sendo, munduari goitik behera begira. Animaliatxoak ez, piztiak baizik.

Gaixotasunarena jakin eta egun gutxira, zera esan zion Carlosek, ezaxolatuarena eginez: «Nire herriko adiskidearekin egon naiz gaur».

«A bai! Eta zer moduz?».

«...».

«Zer moduz?».

«Iraganari aurre egitea zaila da; batez ere, iragana errestaurante japoniar batean zure aurrean eserita duzunean».

Marck zer edo zer zehatzagoren zain gelditu zen.

«Barnean zer duen jakinik ere, ireki nahi ez duzun maleta bat bezalakoa da iragana».

«Eta...».

«Jada ez naiz euskalduna» erabaki zuen Bazterrek.

Marckek ez ulertua adierazi zion eskuen imintzioz.

«Ala bai?» bildu zuen Bazterrek.

Gero, akordatu zen Marck, sofa gorrian etzan eta barrez lehertu zen.

Sydney ematen zuen bere erroetan zegoen bakarra, trankil eta soraio. Emakumeak beste gauza bat dira: gotorrago, prestatuago, sentimenduak kudeatzeko iaioago.

Ia salbatzaile baten moduan hartu zuten, ailegatzearekin bat inguratu baitzuten, eta haren aho txulora begira jarri.

«The Lovely Ladera joanen gara, afaldu eta gaua pasatzera. Sean eta Carlosen puba izandakora» argitu zien lekunberritarrei.

Baiezkoa egin zioten, bakoitzak bere aldetik, elkarri begiratu gabe.

Tanatoriotik atera eta parkea zeharkatzen ari zirela, paretik zetorren gazte batek Harakini begirada gosea bota ziola ohartu zen Marck. Heriotzara kondenaturiko Carlos hura beti zegoen prest larrua jotzeko, bizitzara kondenaturikoak baino gehiago pentsatu zuen Marckek iraupen luzeko bikoteen sexu gabezia gogoan. Beharbada haragiaren larritasunak ziztatzen zuen. Ikerekin ere berdin ote zen galdetzea bururatu zitzaion, baina uxatu egin zuen ideia. Makurrena, hala ere, larrua jo ondoren gertatzen zitzaion, gizajoari; orduan larru ondoko nekearekin batera minbiziaren kontzientzia berpizten zitzaion, eta tristura sakon batek hartzen zuen. Zurrun etzanik gelditzen zen, Marckek beregandik milia eta miliatara nabaritzen zuen, eta ekarrarazteko saio guztiak hutsalak suertatzen ziren. Zertan pentsatzen zuen galdetzen zion, orduan; eta Carlosek, sorbaldak altxatu edo ohean itzulia

eginez, sabaira begiratu baino ez zuela egiten, erantzuten zion: Sabaian tristuraren mapak marraztu, behin esan zion moduan.

«Badakizue Carlosek eta biok hemen ezagutu genuela elkar?» bota zuen Marckek, Carlosen bikotea izan zelako aitormena egiteko aurreko erreparoak bat-batean ahantzirik.

«Ez genekien» erantzun zuen Ferminek.

Parkea gurutzatu eta, kale ilun batzuk iragan ondoren, pub baten aurrean gelditu ziren.

«Hau da gure haurra» esan zuen Seanek ahots sendoz.

Ferminek eta Jexus Marik ez ulertuarena egin zutela ohartu zen Marck.

«Sean eta Carlosena zen pub hau».

«Ordu asko sartu ditugu hemen» gehitu zuen, bere baitara bildurik bezala.

«Bai, asko», Seanek. «Zuek zerbezak edaten, eta Carlos eta biok lan eta lan».

«Horregatik zara zaren bezalakoa, my daddy» trufatu zitzaion Ike.

«Ongi pasatu dugu hemen», Seanek. «Gaizki dago esatea, baina ongi pasatzen segituko dugu».

«Ez, maitea, ezer ez da berdina izanen», Marckek.

«Hara alarguna!», Ikek.

Marcki iruditu zitzaion Ike mindu egin zitzaiola. Ike betikoa, hiletan berebiziko espantuak egin eta orain alarguntasuna harendako bakarrik eskuratu nahian. Pikutara.

«Ergela alaen ergela» erabaki zuen, Seanen atzetik pubean barneratzen zela.

Ez zezakeen Carlosek beste bat aukera, Ike izan behar; ez sortzeagatik, ez zion ezta morborik txikiena ere sortzen. Ikerengatik bolada txar hartan liskarra izan zuten batean aurpegiratu zion Carlosi morboarena, eta morboa berari sortu behar ziola Ikek erantzun zion hitzetik hortzera. Marckek isildu baino ez zuela eduki, akordatu da orain erresumin punttu batekin, bestelako familia bat osatzeko Carlosen asmo haiek gogoan: bere inguruko familia bat.

Sydneyk eta Seanek lanak eginak zeuzkatela ikusi zuen. Mahaiak jakiz eta edariz beterik zeuden. Potoa komunaren ondoko apalategian utzi eta barraren atzeko aldera sartu zen pinta batzuk zerbitzatzeko.

«Hurbildu mutilak. Zer nahi duzue?».

Pub erdian zeuden noraezean. Harakinek piura berezia zeukala pentsatu zuen Marckek: kankailu-kankailua, poto urdina besarkaturik, victoriar estiloko puba miratuz. Marcki, hasieran Carlosenetik bezala, eskapatu egiten zitzaion buru haietatik iragan zitekeena. Atzerritar batek atzerritar izaten jarraitzen du, bertakotzeko nortasunaren alde bat atzean utzi eta beste batez ordezkatzen duen arte. Seguru aski besterendako agerien dagoen nortasun arlo hori, sentimenduak, gogoetak azaltzeko manerari dagokiona. Eta Carlos horrela agertu zitzaion hasieran, arrotz, berniz euskaldun hartaz estalia; hasieran euskaldunak bazirenik ere ez zekienez espainiarra egin zuen, jantzi ingeles edo behintzat londrestar bat hartu zuen arte. Horregatik ezagutu zituen, ikusi ahala, Carlos hura ekarri ziotelako gogora, beste lur edo kultura bateko kutsua.

Pintak atera zizkien erantzuna esperatu gabe. Keinu batez galdetu ondoren, keinu batez paratu zien Ikeri eta Sydneyri pinta bana.

Basoa jaso eta Carlosengatik egin zuen topa.

«Carlosengatik!» erantzun zuten.

«Bazterrengatik!» zehaztu zuen Harakinek, Ferminen arbuio begiradapean iruditu zitzaion Marcki: Hauek ere ez dira elkarrekin ongi etortzen den familia. Carlosek herriarekiko zituen harremanez pentsatu zuen Marckek berriz ere. Jakin-minak ziztaturik, maltzurra izateko gogoa egin zitzaion.

«Baina zuek bazenekiten Carlos homosexuala zela, ezta?».

«Bai».

«Ez».

Harakini begiratu zion Marckek lehendabizi, gero Fermini.

«Igoal» bota zuen Jexus Marik atzetik, tonu burlatsuan.

«Noiztik dakik hik Bazter homosexuala zela?» erronka egin zion Ferminek Harakini.

Marckek libertitua zirudien, jakin-mina asetzeko atezuan.

«Aspalditik!» egin zion arrapostu Harakinek.

«Aspalditik?! Ezetz bi urte!» haserretu zen Fermin.

«Pixa egitera noa» bota zuen Jexus Marik.

Libertimenduak gutxi iraun zion, Ike sartu baitzen, sarkasmoaren erregina bakar; hori uste zuen behintzat. «Ez zenekiten Carlos homosexuala zela?!» oihukatu zuen espantuka. «Nola liteke?».

Harakin eta Ferminek ageri zuten noraezak halako erruki bat sortu bazion ere, Marck sakonean konforme zegoen Ikek espantuka baina zuzen erakutsitako harridurarekin. Zer klaseko lagunak ziren! Baina berehala otu zitzaion errua Carlosena zela. Carlosek, ezagutu zutenetik Euskal Herriarekikoak ezkutatu zizkien bezala, ezkutatu eginen zizkien herriko lagunei Londresko bizimoduarekikoak. Ikek jakinen ote zuen berak ez zekien zerbait? Esaterako, Ikek jakinen ote zuen Jexus Mari delako horrek zertan lan egiten duen, zein harreman mota izan zuen Carlosekin, edota Ferminek. Carlosek Harakin baino ez zion aitatu, eta gutxitan, erakargarria zela esateko baino ez, nahiz eta gero Carlos amodioa, nazionalismoa eta desioa nahasten zituen azalpen totel batean murgildu.

Ordurako eseriak ziren, bigarren pintak erdi husturik.

Sydney eta Jexus Mari falta zirela ohartu zen Marck.

«Orduan ez dakizue Marck izan zuela bikotekide» oldartu zitzaien Ike.

Aurpegi hustuek ezezkoa adierazi zioten.

«Eta ni haren amorantea».

Ezin utzi esan gabe, pentsatu zuen Marckek. Baina zer ikusi zuen Carlosek harengan; zer ikusi zuen Marckek, adiskidetarako horrelako erregina bat hartzeko.

«Eta denok familia bat osatzen dugu» bota zuen Marckek, Ikek ironia ez zuela harrapatu ohartuz.

«Barkatu, Carlosek ez zigun ezer esan» aitortu zuen Ferminek desenkusa.

«Carlos Londresera ailegatu zen lehendabiziko gauean maletak galdu zituen, eta lehen erakutsi dizuedan parke horretara etorri zen, eta elkar ezagutu eta bikote egin ginen» ebatzi zuen Marckek, bizimodu bat lau esalditan laburtuz. Deseroso sentitu zituen, egiak biluztu balitu bezala. «Oso galdurik zirudien, eta nabari zen Londresera ailegatu berria zela. Zuek daukazuen aire bera zeukan, deslaia» jarraitu zuen Marc-

kek, deserosotasuna umotze aldera. Haiek aipatzean nola lasaitu ziren ohartu zen Marck. Jada ez zuen haiekin jolas egiteko gogorik, etsipen eta tristura bilakatu zitzaion. «Barkatu, ni...», eta altxatu egin zen komunerantz.

Hurbiltzen ari zela, Jexus Mari ikusi zuen Carlosen errautsen potoetako bat eskuan. Gora eta behera eragin zion, barnekoa aditu nahi balu bezala. Alde bietara arreta eman ondoren, Jexus Marik potoa zabaltzen zuen ikusi zuen Marckek. Usnaka sudurra errauts zurietara hurbiltzeak erabat harritu zuen. Apalategian utzi zuen berriz ere, beste potoaren ondoan. Berdin berdinak zirenetz edo arretaz alderatzen ari zela ohartu zen Marck. Poltsikotik paper bat atera eta poto baten ipurdian itsatsi zuen. Marcki suminaren antzeko orratz batek kosk egin zion une batez, baina gero Jexus Mari ere Carlosen adiskidea zela erabakirik jakin- minak ziztatu zuen. Zer itsatsi ote zion horren ezkutuan?

Carlosi buruzko den-dena jakitea desiratu zuen.

Komunean sartzen ari zela bazterreratu egin zen, komun barnetik Sydney zetorrela ikustean.

Jexus Marirekin gurutzatu behar izan zuen Sydneyk. Elkarri nola so egin zioten ohartu zen Marck. Sydneyk jira egin eta komunean sartu zen, Jexus Mari atzetik zuela. Atearen kisketaren ondoren zuraje iluna gelditu zitzaion aurrean. Ez zizkion bere buruari entzuten utzi bururatu zitzaizkionak. Hantxe egon zen ezkerretara begira, poto urdinetan berriz erreparatu zuen arte. Bat hartu zuen, eta ezer ez zeukala ikusi zuen. Bestea jaso zuen, Jexus Marik itsatsitako pegatinaduna: «Bertako haragia. Euskal Labela».

Ez zuen ulertu. Zer esan nahi zuten hitz horiek. Eta batez ere, zergatik paratu zituen. Une batez zer edo zer ezkutatzen zutela pentsatu zuen, eta Carlosi buruz dena jakin ez izana damu izan zuen erresumin erdiragarri batez. Horrelakoetan zuen ments. Norbait galtzea hori baino ez zela iritzi zion bere buruak; alegia, normal bizi eta halako une batean ziztada bortitz batek jorik, ezinegonean trapu zahar bat bezala abaildurik, unaturik eta gauza ez zarela gelditzea. Carlos gaixo izan zen bitartean Marckek hil ondorenerako ariketak egin zituen, buruz baldin bazen ere. Askotan irudikatu zuen nola portatuko zen, nola

eginen zion aurre Carlosen gabeziari; baina une horretan sentitutako ziztadak, ziztada bakar horrek, Carlosi buruz dena inoiz ez zuela jakinen jakiteak, irudikatu guztiak baino min handiagoa eragin zion. Apalategian bermatu zen zetorkion zorabioari eusteko. Potoa utzi zuen bestearen ondoan. Sakon hartu zuen arnasa.

Ike, Sean eta Harakinengana hurbildu zen. Ikek, ahuldurik zegoela oharturik, eskua eskaini zion. «Ongi zaude?».

«Ez».

Ikek Seani larriturik so egin ziola ohartu zen.

Ura ekarri zion Seanek.

Ez zuen adorerik ezer azaltzeko.

Indar pixka bat bildu zuen.

«Zer esan nahi du Berta... bertako ha... haragia. Euskal Label?» ahoskatu zuen nekez.

Label ingelesez bezala zela erantzun zion Harakinek, eta gero zer esan nahi zuen adierazi.

Marckek zalantza egin zuen. Carlos eta Jexus Mariren arteko mezu ezkuturen bat ote zen, adar jotze bat...

Komuneko kisketa entzun zuen urrutitik. Sydney ikusi zuen ileak lisatzen haiengana hurbiltzen.

«Zer moduz dago basque label?».

Fermin

Marckek galdera egin ondoren, eszena hormaturik bezala gelditu zitzaion Fermini, koadro batean bezala. Sydney lehen planoan, ile gorriak eta aldaka zabalak; atzean mahai batzuk eta aulkiak, eta atzerago komunetako sarrera, argituirik; apalategia, potoak eta barnerago gizonen komunaren atea, zuraje ilunekoa, itxirik. Sydneyk bi pauso eman eta Marckek bizkarra ukitzean, denbora mugitu egin zen eta errealitateak berezko abiadura hartu. Klisk entzun zuten eta komunetara itzuli zituzten buruak, orain Sydneyk ere bai. Jexus Marik ate bokaletik so egin zien, lehendabizi galdetzaile, eta azalpen baten eske uste izan zituenean erronkari iruditu zitzaion Fermini. Argi gelditu zitzaion Fermini, zertan aritu zen Sydney komunean: euskal labela dastatzen.

«The label» bota zuen Marckek, Jexus Mari seinalatuz.

«Euskal labela» trufatu zen Harakin, gertatutakoa ulerturik.

«Non ikasi dituzu lehen euskaraz esan dituzun hitz horiek?» esan zion Ferminek Marcki, «Carlosek erakutsi zizkizun? Euskara ikasteko metodo baten lehen ikasgaia baldin badira, ez daude gaizki».

«Carlosen potoan irakurri dut».

Harridura adierazi zioten denek. Potoa seinalatu zuen Marckek. Harakinek, hartan ere buru egin behar pentsatu zuen Ferminek, komun sarreretako apalategirantz egin zuen; potoetako bat hartu, goitik behera begiratu, Marcki ezer ez zeukalako keinua egin, utzi eta bestea hartu zuen. Ipurdia begiraturik ekin zion irakurtzeari.

Jiratu ahala, Ferminek Jexus Mari entzun zuen ezkerretik: «Neronek paratu zioat».

Begirada bilatu zion Jexus Mariri, gertatzen ari zenaz azalpenen baten bila. Baina Jexus Marik ihes egin zion.

Fifaka hurbiltzen ikusi zuen Harakin: «Hi jota hago. Zergatik jarri diok hori!».

«Ergelkeria bat duk. Poltsikoan nian pegatina. Barregarria iruditu zaidak. Bazterri igual gustatuko zitzaioan».

Ferminek desiratu zuen –Lekunberri putarekiko horrenbeste morrontzaren ondoren oraindik ere desiratu, salatuko ziokeen Aliziak–, Harakinek argituko ziola pegatinan zer paratzen zuen, baina alferrik itxaron zuen luzeegi egin zitzaion isiltasunean.

«Esanen duzue behingoan zer jartzen duen pegatina puta horretan!».

«Bertako haragia. Euskal labela».

Fermin hutsean gelditu zen une batez. Marcken silueta lausoa Sydneyri loturik, haren erreakzioari adi. Aliziaren nagusikeria irribarrean, gogotsu bilatu zuen Marcken aurpegian gertatutakoari buruzko iritziren bat; «Zure erreakzioarendako eredua» arbuiatuko zion Aliziak; baina Marcken aurpegiak atezuan egotea baino ez zion eskaini.

«Bertako haragia. Euskal labela» errepikatu zuen denbora bila. «Ez zegok gaizki. Barregarria duk. Nola bururatu zaik?».

Zenbait gaixorengan lasaitasun hitzek izaten zuten jabaltze berdintsua susmatu zuen hiru londrestarren artean, sorbalden laxatzea, arnasaren pausatzea, eta errainu bat begietan.

«Barregarria. Zuek jota zaudete!», Harakinek.

Sutzen zeneko tenkadura nabaritu uste izan zion Ferminek Harakini, eta, tenkaduragatik edo Aliziagatik, aurre egin zion: «Bai, txorakeria bat baino ez duk. Eta hari gustatuko zitzaioan».

«Zer gustatu eta gustatu ondo! Hik zer dakik! Hori burla egitea duk Euskal Herriari eta Bazterri!».

Harakinek di-da egin zuen potoetara. Pegatina kendu zion.

«Hik paratu diok ba ikurrina!».

«Nola konpara ditzakek ikurrina eta pegatina...» aditzondoaren bila sumatu zuen Ferminek Harakin, «pegatina puta hori. Bazterri irain egin diok. Ikurrina paratzea Euskal Herrikoa zela aldarrikatzea izan duk. Gudari bat». Eta gero Marcki esan zion: «Gure herri inguruan bada mendi eder bat, Beriain izenekoa; Bazterri asko gustatzen zitzaion hara igotzea, eta han haizatuko ditugu errautsak. Omenaldi txiki bat antolatuko diogu Lekunberrin; herri guztia joanen da, ikusiko duzue».

Kamara geldoan egin zuen Ferminen buruak Harakinengana, harri eta zur. «Baina...» hasi bazen ere Fermin, berehala isildu zen Harakinen desafio soaren zemaipean.

«Oso mendi ederra da. Han hegan eginen dute errautsek. Jende asko igoko da, ikusiko duzue» mintzatu zitzaien denei, ideia ona zela konbentzitu nahian. «Seguru asko mintzatuko zitzaizun Beriainez, ezta?».

Marckek baiezko epel bat egin zuen buruaz. Zerbezari zurrupa egin zion.

Aliziaren aholkuari jarraiki, «Haien arteko liskarra da, ez sartu, hainbeste Euskal Herria eta hainbeste txerrikeria», atzera egin zuen Ferminek Jexus Marirengana jiraturik, heldu ez zitzaion adostasunen baten bila-edo.

«Ze esan nahi du gudari?» galdetu zuen Ikek, hari ez zegokion dzangada bakar batez pinta bukatu ondoren.

«ETAkoak izan ginen».

«Nortzuk, zuek? Carlos ere bai?».

Hantxe bertan txikitzeko gogoak bor-bor egin zion Fermini.

«ETAkoak!» garrasi egin zuen Ikek, espantuka altxatu eta Marck besarkatzen zuela. «Terrorista batekin bizi izan gara. Ze morboa!».

«Ike, une batez bada ere, utziko diozu beste bat izateari?» aurpegiratu zion Marckek.

«Beste bat? Ni beti naiz ni».

«Foucault gehiegi gauza onerako». Begirada pubean zehar hedatu zuen Marckek, aurrean zeukanari ihesi egin nahian.

«Foucault!?» jarraitu zuen, histrionismoa alde batera utzirik iruditu zitzaion Fermini. «Aizu!, akordatzen ez bazara ere, nik ere amorantea galdu dut. Eta horrek ez dit eskubiderik ematen, amestutakoa amestutakoagatik, errudun sentitzeari uzteko, zu ez bezala. Marck, 80etan beste bizimodu batekin amestu genuen, eta ni behintzat, orain arte, eta Carlos ere bai, gure Carlos, zure Carlos, nire Carlos, aurrera eramaten saiatu naiz. Eta uste izan dut, halaxe esaten zidan Carlosek, zu ere horretan ari zinela, nahiz eta orain ohartu beharbada gogoz kontra aritu zarela. Zuk ere amestu zenituen bikote modu berriak, sexu modu berriak, bizimodu berriak, gayak bai gayak, saiatzeko nahia. Galdetu

Seani edo Sydneyri. Ez dute bizi nahi heterosexual arruntak bizi diren moduan. Ez dute bikote bakarra nahi, ez dute familia arrunt bat egin nahi. Gu gara familia. Foucault gehiegi, esatea ere!».

Marckek komunera alde egin zuen ezer esateko ezgauza nonbait.

Isiltasuna ezarri zitzaien. Seanek barraren atzean pinta gehiago ateratzeari ekin zion. Sydneyk Jexus Mariren eskua bilatu zuen. Aurkitu egin zuela ohartu zen Fermin. Harakinek hainbatgarren basoari heldu zion.

«Gainera, hauena baino iraultza ederragoa izan zen gurea» murduskatu zuen Ikek, Harakin seinalatuz.

Fermin Harakinen erasoaren zain gelditu zen, baina erantzunik ez zetorrela ikustean, ez ziola aditu erabaki zuen.

«Eta orain emanaldi txiki bat eginen dizuet. Sean, The Crazy Pennis-en *I got a problem*».

Aldakak mugituz oholtzara hurbiltzen ari zela, Marck atera zen komunetik.

«Ike, orain ez mesedez!».

Ikek zalantza egin zuela ikusi zuen Ferminek, baina gero ameto emanik mahaira hurbildu zen.

Ferminek balantzak nabaritu zituen pinten ugaria zela-eta. Pintxo bati heldu zion.

«Orduan ETAkoak!» tentatu zuen Ikek.

Bera behintzat ez zihoan erronka hartzera. Ez zen beharturik sentitzen.

«Eta omenaldia eginen diozue zuen mendi horretan!».

Mozkorraren uholdeak Aliziaren balazta gainditurik, kizki-kazka sartu zen Fermin, nahiz eta jakin Ike aho bila ari zitzaiela.

«Eginen dio. Harakinek hala erabaki badu. Ni ez nago konforme, ez berarekin ez berdin pentsatzen dutenekin. Lekunberrin Bazterrek ez zuen homosexual bezala bizitzerik izanen. Jipoitu eginen zuten, edo auskalo!».

«Ai, homosexualak jipoitzen dituzten leku bat. Ze morboa!» trufatu zen Ike.

«Jabetu hadi: kidekoa ez den inork ez zeukak lekurik. Ezaguna ez denak ez zeukak lekurik, ahaidea ez denak ez zeukak lekurik: ideologia bertsukoa ez denak, zer esanik ez. Jende desberdinik ez, eta lerrotik ateratzen denari ergelaren

edo eroaren edo bereziaren rola! Infernu bat Bazterrendako».

«Ez egin kasurik, ez da horrela. Gezurra zirudik Lekunberrin jaio eta bizitakoa haizela. Zital ari haiz Lekunberriz iritzi hori baldin baduk; ederki asko dakik gauzak ez direla horrela. Ez diat esanen itxia ez denik, eta are gehiago, esanen nikek itxia zela. Gauzak asko aldatu dituk. Baina hik herra daukak, eta irudi osoa nahasten dik horrek: Herrak... eta azken honetan darabiltzaan lagunek».

«Hi baino hobeak, lagun horiek».

«Hala izanen dituk, sustraiak ahaztera eraman baldin bahaute».

Harakin zalantzan ari zela iruditu zitzaion Fermini.

«Gesto por la Pazeko horiek!» jarraitu zuen azkenean, mespretxu ukitua ahotsean.

«Hara! Hori duk orduan! Gauza bat esanen diat: ni ez nauk Gestokoa, baina martxa honetan listo eginen nauk. Ez duzue ikusten zer egiten ari zareten gure ametsekin? Jendea hiltzen ari zarete, Euskal Herria hondamendira eramaten ari zarete. Zuek euskaldunon ametsak traizionatu di-

tuzue, hik ikurrina paratzean Bazter traizionatu duan bezala».

«Guk ez diagu ezer traizionatu. Betiko ametsa gauzatzeko ari gaituk borrokan. Hik traizionatu duk hire ametsa, hirea eta denona zen ametsa, baina hirea ere bazena. Hori hik traizionatu duk, eta ez hori bakarrik, kartzelan dauden presoak ere hik traizionatu dituk. Ez dik errurik sortzen haiek atzean utzi eta orain bestela pentsatzeak?».

«Ez dik hiri errurik sortzen hire izenean jendea erailtzeak? Niri errua sortzen zidatek presoek, honekin guztiarekin bukatu nahi duten neurrian, bai. Baina erailtzen duten jendea, zer? Euskal Herriaren jabe egin zarete. Zuena dela uste duzue».

«Ezker Abertzalerik ez balego, beharbada ez huke Euskal Herririk izanen. Gutxienez borroka dagoen bitartean izan bagaituk. Hik egin duan ibilbidea eginda ez zegok arazorik, baina kito Euskal Herria!».

«Ze matraka... the basque country, the basque country» entzun zion Ikek Fermini, Aliziaren ahotsaz ia. «Dena izorratzen ari zarete, Harakin.

Denona zen herri bat zuena bihurtzen. Heriotzaren aurrean jendea isiltasunera kondenatu duzue, erdizka mintzatzera. Genituen ametsak zuen mesedetan, hire mesedetan erabili dituk, besteen aurrean hire burua ederresteko. Beti egin duk, beti egin duzue hori, Harakin; beti, ezagutzen haudanetik. Hi edertzeko besteak erdeinatu. Eta orain ere horretan ari haiz».

Harakin garaiturik agertzeak indarberritu zuen Fermin, gupida gabeko erasoari ekiteko. «Putakumea».

«Bai, Harakin, bai» jarraitu zuen Ferminek, lasaiago: «Hik beti izan duk hire burua munduaren zilborretarako; eta jende guztia hala dabilela iruditzen zaik, jende guztia hi bezain jatorra dela, jende guztia hi bezain abertzalea dela, jende guztiak hik pentsatzen duana pentsatzen duela. Eta ezetz, kopon, ezetz».

Garrasika aritu izanak areago ezarri zuen ondokoen isiltasuna. Aliziak bere horretan uzteko esanen zion, baina bazekien ezin izanen ziola isiltasunari aurre egin; eta aurrera egin zuen amildegian behera bezala gurutzatu zitzaion alkoholaren artetik. «Beti izan haiz mundua hire

neurrira egina dagoela uste duten horietakoa, putakume bat alegia; beti behar izan dituk mendekoak herori izateko, ez bada politikan, etxean edo tabernan, beti morroi baten beharrean. Bazterrek alde egin zian hi bezalako jendearekin ezin zuelakoz bizi. Enteratu hadi, jode! Hik bestela uste baldin baduk ere, mundua ja ez zegok hire neurrira eginik. Begira ezak bestela hire etxean ger...».

Fermin isildu egin zen bat-batean.

«Hik zerbait oker daukak buruan» murduskatu zuen Harakinek.

Zigarroa ateratzen ikusi zuen, Jexus Mariren zapata lustratuei begira. Ferminek pentsatu zuen, Harakinek esanen liokeela Donostiara joatean uko egin ziela printzipioei; esanen liokeela Geston ez dela ari zerbaiten alde, zerbaiten kontra baizik, jatorriaren kontra, auskalo zergatik daukan konplexuren bat gainditzeagatik. Hi jota hago, besterik ez zuen aditu Ferminek. Sumina zizaka.

Leihotik kirika egin zuen sesioari ihesi. Argitzen ari zuela agertu zitzaion zerbezaren lainoen artetik. Dena dela, lasai zituen barrunbeak, as-

paldi esperatutakoaren erauntsi ondoko barealdian bezala. Lastima, Lekunberri eta abertzalekeriak jada inporta ez zitzaizkionean gertatu izana. Aliziaren ahots leuna irudikatu zuen, zirika: «Nola ez zaizula inporta, maitea». Harakini aurpegiratu zizkion azken hitzengatik kontzientziaren kargu hartzeari izorra dadila batekin erantzun, eta eszena urrun baten modura irudikatu zuen Harakin, pubaren erdian, potoa ezker besoan, Estik atonduko zion maleta koadroduna bestean; eta Jexus Mari poltsa granateari eta Sydneyri loturik; eta Marck beste potoarekin; eta Ike soineko morearekin, komuneko sarreran ileak lisatzen.

Xor jarraitu zion Harakinen txamarra urdinari atarirantz. Parkera zihoazen errautsak haizatzera, Marck buru zutela. Errautsen potoa besoz aldatu zuen Harakinek. Eguzki printza batzuk berdetasuna zeharkatu eta Ikeren soineko morean anabasitu ziren. Indi gaztainei erreparatu zien: erraldoi, jori, oparo, lurrean barreiaturiko fruituak, alferrikaldutako bizitza arrastoak. Harlauza

zaharrak bereizi zituen arbolen artean: gris, goroldioz gainezka, letra erdi ezabatuak euri arrastoz zikindurik. Hilerria duk, parke hau hilerria duk. Segizioak eguzki printza haiek zeharkatu eta berdetasunarekin bat eginik harlauzen gainetik hegaka beste mundu baterantz desagertuko zela otu zitzaion istant batez. Harakinen besoetako poto urdinaren gainean errainu egin zuen eguzkiak, segizio osoa azulkaraz zipriztinduz.

Gaztainondo baten atzetik kukuka, gizon bat sortu zen. Zerbaiten esperoan zirudien. Soilgune batera ailegatu zirenean, tenplu greko baten antzeko eraikin txiki zuria agertu zitzaion begi-bistan. Gizon gehiago ageri zen, paseoan bakarka edo arbolen kontra bermaturik, segizioarenganako jakin-minik gabe, iruditu zitzaion Fermini, arreta beste zerbaitetan bailuten. Arraroa egin zitzaion egunsentian figura haien bakarka ibiltze hark eragiten zuen giro ezkutu eta ia klandestinoa, segizioak garraiatzen zuen isiltasunak areagotua. Soilguneko lehen lerroko zuhaitzez harantz, gizon haietako bat, galtza bakeroak eta zamarra gorria, besteek ez bezala arreta emanik, haien bidea egiten ari zela iruditu zitzaion.

Ferminek, begiak zorroztuz, eskua paratu zuen bisera moduan, gizonaren aurpegia bereizteko ahaleginetan. Kukuka ari zen harlauza eta zuhaitzen artean.

Tenplu greziarreraino ailegatu ziren. Antzinako harlauza haien guztien artean lurrak arnas egiten zuela iruditu zitzaion, hildako guztiengatik, andeatutako sufrimendu guztiarengatik, hondatutako bizitzarengatik.

Borobil bat egin zuten.

Marckek, batere hitzik esan gabe, potea hartu eta borobilaren erdian kokaturik gora bota zituen errautsak. Haize pirpira bat izan balitz hegan eginen zuen Bazterrek, eta beharbada gaztainondoen hostoetan pausatu, edo Londresen barna bidaiatu hauts fits bilakaturik; baina ez, ez zebilen haizerik, eta Marckek botatako toki berean erori ziren errautsak, haizatu barik belar berdean arrasto zuri-griskara bat utziz.

Marckek, asaldaturik, atzerako jauzi txiki bat egin zuen, garrasi ito batekin batera. Txamarra gorridun gizona agertu zitzaion, soilgunea bukatzen zen arbola batean kukuka. Betazalak keinatu zituen urrutirago so egin nahian. Ez zekien

zergatik, baina komisarian esposaturik zeukatela agertu zen polizia, kokotsean orbain gorrikara bat zuena, etorri zitzaion burura Fermini. Gizona gaztainondoaren atzeko aldean ezkutatu zen, Ferminen segimendu begiluzeari ihesi. Marck alde batean, erdian gaztainondoa, eta beste aldean gizonak utzitako gabezia, horiek baino ez zitzaizkion gelditu irudian osaturik.

Desagertutako gizonak aire ezaguna zuela pentsatu zuen.

Beste gizon bat sartu zitzaion ikus-eremuan, ezkerretik eskuinera. Lasai zihoan, txamarra gorridunari jarraiki. Hura ere ezaguna egin zitzaion Fermini. Larru beltzak distira egin zuen goizaldearen oparotasunean. Sean zen sasi batzuen atzetik desagertzen. Sean, hara zer festa!

Zerbaiti eusteko beharrak eskuak poltsikora sarrarazi zizkion zigarro bila.

Panfletoa ukitu zuen: «Tanatopraxist on streak».

Gestokoek pegatina bat egiteko proposatuko zioten Aliziari: Bertako haragia - Euskal Labela - Tanatopraxist on streak.

Edo Ezker Abertzaleari.

Harakin

Hautsak Marcken gainean erori zirenean, braust batean aienatu zitzaizkion Harakini alkohol guztiak, ordura arteko benda kendu baliote bezala. Ez, jada ez zeukaten ezer egitekorik han. Marck burumakur. Sydney Jexus Mariren besoetan ezkutaturik. Ike soinekoan deseroso. Bazterren zati bat besoetako potoan. Eta Fermin oilo bustia. Non zegoen Sean? Bilatu zuen baina ez zen agertu.

Norbaitek zer edo zer esatea desiratu zuen, edonork, baita Fermin bazen ere!

Erlojua begiztaturik, hegazkina hartzeko hiru ordu zituztela egiaztatu zuen, maleta lurrean utzirik potoa besoz aldatzen zuela. Arima erratu bat bezala irudikatu zuen Esti umearen gela inguruan, lo ezinaren ordu luzeak ezin betez.

Duda egin zuen une batez omenaldiarena eta errautsak Beriainen haizatzearena egokia ote zen. Ferminen bisaia hitsa garunetik iragaitean eragin zion gorrotoak ziztaturik, erabaki zuen baietz, egokia baino egokiagoa zela, eta egun

ederra pasako zutela Beriain goian Bazterren oroimena ondratzen.

Denek bestela uste bazuten ere, Bazter zena baino ez zela pentsatu zuen, alegia, euskaldun jator eta naturala, urtetan elkar ikusi gabe egonagatik adiskidea, berak ezagututako Bazter huraxe bera.

«Guk mugitu egin beharko genikek» esan zion Jexus Mariri erlojua seinalatuz. «Hiru ordu baino ez ditiagu aireportura ailegatu eta hegazkina hartzeko».

«Ni ere etxeratu egin beharko nintzateke» esan zuen Marckek.

«Orain agurrak. Agur zuretako, agur niretako, agur guretako» trufa egin zuen Ikek. «Eta zuek horrela banatuko zarete, pasio gau baten ondoren».

Jexus Marik Sydney pixka bat aldenarazi zuela ohartu zen Harakin, ordura arte heldurik eduki zuela orduantxe konturatu balitz bezala.

«Ez dut agurrendako balio» bota zuen Marckek.

«Seanek ere ez du balio» zirikatu zuen Ikek, «horregatik alde eginen zuen...». Zintzilik utzi

zuen esaldia, zer edo zer gehitzekotan, baina atzera egin zuela iruditu zitzaion Harakini. Garai ederrean!, pentsatu zuen, gau osoa kristorenak esan ondoren.

«Beno, ongi bizi. Eta omenaldi polita egin Carlosi» musu eman zion Ikek Harakini, azenturik gabeko gaztelera perfektuan gehituz: «Mi querido ex-etarra».

Harakinek ez zuen harritzeko betarik ere izan, Marck etorri baitzitzaion eskua ematera, eta gero Sydney, Jexus Marirengandik laxaturik.

«Hortxe aurkituko duzue taxi geltokia. Ongi bizi».

Arbolen artean desagertu ziren arte itxaron zuten zutik. Hirurak sorbaldatik heldurik. Gaztetxo batzuk bezala, pentsatu zuen Harakinek. Txinbilin-txanbalan goizaldearen eguzkitan desagertu ziren.

Lurrean zeuzkaten poltsa-maletak hartu eta taxi bat gelditu zuten kalearen erdian. Taxiaren atzealdean eseri ziren. Harakin potoa eskuan. Ferminek eta Jexus Marik potoari begiratzen ziotela ohartu zen. Han zihoan Bazter.

«Zuek eraman nahi duzue?» galdetu zien Harakinek potoa eskainiz.

Ezezkoa egin zuten. Harakin asentuaren bizkarraren kontra etzanagotu zen besteen ezetzak harroturik. Bazekien ez zutela hartuko, beti igual izan baitzen, une erabakigarrietan bera uzten baitzuten buruzagi, Fermin ergel horrek esaten duena gorabehera.

Leihotik begiratu eta gero poto urdinean pausatu zituen begiak. Bazter. Omenaldi bat eginen zioten. Beste biei begiak potora nola joaten zitzaizkien ohartu zen. Sudurrak zintzatzeko beharra sentitu zuen, eta potoa asentuan utzirik saiatu zen mukizapia ateratzen. Orduan taxiak balazta egin eta potoak aurrera-atzera balantza egin zuen. Hirurek egin zuten potoa heltzera, eror ez zedin. Harakinek harrapatu zuen asentutik behera erori aurretik. Tapa jarri, eta asentuaren gainean barreiatu ziren errauts pixkei begira gelditu zen. Gero Jexus Mariri eta Fermini begiratu zien: hantxe zeuden biak asentuko errauts arrasto haietan begiak josirik. Zuriak ziren, uste baino zuriago, eta nabari-nabari ageri ziren asentuaren tapizeria berdearen gainean, Hauts

xeheen artean harri ttintten gisako aleak tartean. Harakinek begiak jaso zituen errautsetatik eta besteengan paratu; bazirudien ikuskizun bati so zeudela. Duda une baten ondoren, eskuarekin kolpe batzuk jo eta hautsak harrotu zituen. Ferminek eta Jexus Marik leloturik altxatu zituzten begiak.

«Sar ezak nire poltsan, badiat lekurik» gomendatu zion Ferminek.

«Ez, hautsa atera eginen huke. Maleta egoki bat erosiko diagu. Fermin, esaiok taxi gidariari! Argi zegok gauzak esateko ni baino hobe moldatzen haizela ingelesez zein euskaraz» bota zuen, erdi ziri erdi gorroto.

Ferminek txanda pasa egin zuen.

Maleta-denda behar zutela adierazi zion gidariari. Kale batzuk ibili eta maleta-denda erraldoi baten atarian gelditu zen taxia. Sartu dira Jexus Mari eta Harakin, potoa besoetan, Fermin taxian espera gelditu bitartean. Ezker-eskuin begiratu du Harakinek, maletak, poltsak, motxilak, zakutoak, karterak...

«Hori erosiko zioagu» seinalatu zion Jexus Marik, tamainak ematen zuena bandera ingeles bat marrazturik zuen poltsa txikia seinalatuz.

«Hi haiz hi euskal labela, haragi ingelesa!», Harakinek.

«Zergatik ez?! Ez nabilek txantxetan».

Azken boladan honi ere ez zebilkiok ongi ganbara, pentsatu zuen Harakinek, Jexus Mariren keinu burlosoa begi-bistatik apartatu nahian.

«Badakik Ike horrek gaztelera perfektua egiten duela? Lepoa eginen nikek espainola dela!».

«Espainola?, bai zera».

«Ex-etarra hots egin zidak. Bokalak borobil-borobil ahoskatuz».

«Hara! Ez dik gezurrik esan behintzat; ex bahaiz, etarra ez zekiat».

«Eta hi eroa!» laburtu zuen Harakinek.

Eskuinetara jo zuen lurrean tamainako hurrenkeran kokaturik zeuden maleta berde batzuk aztertzera. Plastiko gogorrekoak ziren, sendoak ziruditen. Txikiena hartu zuen eta potoa sartzen zen frogatu. Bai.

«Hauxe» erakutsi zion Jexus Mariri.

Jexus Marik sorbaldak altxatu zizkion.

Dendariarengana hurbildu, potoa eta maleta mostradore gainean utzi eta kartera atera zuen. Ez zitzaion eskapatu dendariak potoari bota zion begiratu intrigatua.

«Samsonite, a good choice» esan zion dendari beltzaranak kobratzen zion bitartean.

«What?» galdetu zuen Harakinek, esan ahala sorry esan behar zuela gogoraturik.

«It is a very good suitcase».

Baiezkoa egin, kartera gorde, eta potoa esku batean eta maleta bestean atera zen dendatik. Taxian sartu bezain fite barnean kokatu zuen potoa kontu handiz, etzanik. Itxi eta asentu gainean utzi zuen.

«Omenaldirako prest!».

Ez zion kasurik egin Ferminen ironiari.

Jexus Mari

Heathrowko fakturazio mostradorean billeteak entregatu zituzten. Maleta-garraiagailuaren gainean utzi zituzten zekartzaten poltsa-maletak. Azafatak pedalari eragin eta pareraino ailegatu zitzaizkion hatuak. BIO xingola paratu zien eta billeteak entregatu.

«Hori ez duzue fakturatuko?» galdetu zuen, Harakinek zeraman maleta txikia seinalatuz.

Hirurek elkarri so egin zioten, bata besteari itaunka. Harakinek garraiagailuan paratu zuen maleta eta xingola itsatsi zion azafatak. Mostradore atzeko garraiagailuaren goma beltzaren gainean balantzaka zihoan maleta berdeari erreparatu zioten. Bat egin zuen beste maleta batzuekin, eta gero goma beltzezko errezelaz estaliriko zulo batetik galdu zen. Jexus Mariri, zergatik jakin gabe, Andiako arroila erraldoi bat etorri zitzaion gogora, berde iluna adar arreetatik hedatuz eta karraka, eta saia, eta eskinosoa, eta okila, eta gabiraia, eta mirua, eta Maria, eta Miren.

«Goazen kafetegira zer edo zer hartzera, beta badiagu» entzun zion Harakini.

Harakin madarikatua, Harakin ergela.

«Hire aginduetara» koadratu zitzaion Fermin.

Harakinen eta Ferminen arteko liskarra amaitu ez zelakoz poztu zen.

Heathrowko areto nagusian kasko soiltzen hasiei jarraitu zien. «El puto Fermin» bere adakerekin, eta batez ere «el puto Harakin».

Kafetegiko barrara ailegatzean Miren gogora ekarri zion emakume bati erreparatu zion. Zertan ariko zen Miren orain? Jakinen ote zuen Harakin Londresen zegoela? Beharbada Estirekin egonen zen goiz pasa. Emakumearengandik begiak aldendu eta Harakinen kaskoan pausatu zituenenean gorroto itsu batek erre zizkion barrunbeak.

«Zer hartuko duk?» galdetu zion Harakini erronkari.

Bazirudien ez zitzaiola ezer inporta, bazirudien hutsean erori zirela Ferminek esandakoak, bazirudien ez zuela inoiz ikasiko; izan ere, beti bezain harro zegoen, bete, oparo, «beti bezain Harakin» Mariak esanen lukeen moduan. Eta

Maria, zertan ariko zen Maria? Haien ezkontza prestatzen akaso? Lekunberrin izanen ote zen bere gurasoekin? Maite zuen Maria, noraino zen ezkontza hura hegaztiak behatzen eta tabernaz taberna aurre egiten zion bakardadea uxatzeko aitzakia?

Egia esateko bera ez zegoen oso konbentziturik egin behar zutenaz, baina zaila zen Mariari kaskoan zerbait sartzen zitzaionean burutik kentzea, eta Mariari ezkondu behar zutela sartu zitzaion buruan, eta umeak izan gero, eta gauza horiek guztiak. Ama ikaragarri poztu zitzaion ezkontzera zihoala esan zionean, ez zion galdetu ezta norekin ere, baiezkoa baino ez zion egin, eta neska etxera ekartzeko agindu. Eraman zuenean pozik hartu zuen, egoki iruditu zitzaion: «Behin edo beste kalean ikusi zuen Miren hura baino askozaz egokiago» esan zion.

Harakin kafea eskuan jartzearekin batera mintzatzen hasi zitzaion, Ferminek ere aditzeko moduan.

«Bazkari popularra prestatuko diagu Beriain gainean, eta arratsalde partera haizatuko ditiagu errautsak. Gutako bat zuan, eta merezi dik».

Hiruko taldea hautsiz Fermin haiengandik atzeratu zela ohartu zen.

«Behingoz irakurriko zioagu Sarriren poema hori, Sustraiena, aurkituko diagu».

Harakinen ergelkeria gehiago aditu nahi ez duela erabaki du, eta hitza ahoan utzirik abiatu da komunera, Harakinen baina nora hoa oihuak gibelean dituela. Pikutara! Isilduko duk, isilduko denez, publikorik gabean.

Komunean sartu zenean bekoz beko so egin zion eskuak sikatzen ari zen gizon errubioak. Ez zion jaramonik egin eta erreserbatura abiatu zen. Atea ixten ari zenean gizona begira ari zitzaiola ohartu zen. Hankartera eraman zuen eskua gizonak.

Hau ere behar genian; marikoi bakarra ezagutzetik munduko marikoi guztiak nire atzetik izatera pasatu nauk egun baten buruan.

Beti egin ohi zuen moduan brageta laxatu eta atera zuen zakila. Jakina, ez du txizagurarik. Horrela egon da une batean, gogoa Miren eta Harakin Iruñean ikusi zitueneko gau hartara. Zer ikusi ote du Mirenek Harakinengan? Izan ere, berarengan ikusi ez zuena, baina beharbada eskura

egon balitz ikustea bazeukana. Miren gaztetan Bazterren atzetik ibili zela akordatu da. Bazter. Marikoi bat. Herrian marikoia izateko nahikoa potro ez eta Londresera abiatu behar izan zuena. Estuegi eta prestuegi irizten ziola akordatu da, harremanen zuzentasunekiko milikeria haiekin guztiekin. Oker dabil Miren, lehendabizi marikoi batekin ibili nahi eta gero ezkondu batekin bukatu, nahiz eta adimenak esan ez dutela elkarrekin bukatuko; Harakinendako behintzat, ongi ezagutzen du Harakin, Miren tartetxo bateko emakumea baino ez baita. Esan egin beharko lioke Harakini; komun-zulo honetatik atera, mutur aurrean jarri, eta bazekiat Mirenekin habilela bota, hotz-hotzean. Seguru koldartu eginen litzaiokeela; ukatu eginen luke lehendabizi, eta gero, beti egin ohi duen moduan, aurrera egin eta lepoa eginen luke; eta «hi nor ostia haiz nire bizitzan sartzeko» batekin erabakiko luke. Orduan berak amorru bizian eskubiderik ez duela esanen lioke, ez duela eskubiderik alde batetik Esti engainatzeko eta bestetik Miren engainatzeko; Miren engainatzen ari dela seguru baitago; urrea eskainiko zion, eta Mirenek sinetsi. Eta orduan bai, es-

kubideen kontua aipatzean, eskubideak baitira Harakinen gaia, min hartuko lukeela eta atzera eginen lukeela, eta isildu ezer gehiago erantsi gabe, eta bera, Jexus Mari geldituko litzakeela garaile behin eta betiko.

Bilatutakoa zeukak bakoitzak, aitortu zion bere buruari Harakinen umeaz akordaturik. Lotsatu egin zen pentsatutakoaz, eta Mariak Esti ekarri zion gogora: «Zuk inoiz izan ez duzuna daukate» esanez. Esti eta Harakin, Harakin eta Esti, berak inoiz ez izandakoa, Miren guztiak gorabehera.

Nola izanen zen bere bizitza Mirenekin? Nola izanen zen Bakaikura eraman zuen gau hartatik zerbait atera izan balitz? Ez zen Mariarekin bezala izanen. Mariarekin ehizaturik sentitzen da, Miren berak ehizatu zuen. Desberdina izanen zen seguru, seguru ez zuela bizitza kareletik bota izanen, Mirenekin seguru bere haurrak sano aterako zitzaizkiola.

Harakin putakumea!

Zakila galtzetan sartu du eta bonbari tiratuz atera da komunetik. Aspaldiko amets bat bezain

lauso kiribildu zaio gogoan Sydneyren gorputz potokoa.

Oilanda bat, erabaki du.

Fermin

Isilik egin zuten bidaia, bakoitza berean, ezezagun batzuen gisa. Loiuko aireportura ailegatu eta, geziei jarraiki, maleta garraiagailuaren tokira hurbildu ziren. British Airways 063 hegaldia. Zain gelditu ziren, batak bestearekin ezer jakin nahi gabean.

«Ederki gaudek harmonian errautsak haizatzera joateko».

Kamioia nola ailegatu zen ikusi zuen Ferminek, eta danbateko batez entzun zuen nola paratzen zuten lehendabiziko maleta garraiagailuan. Gero beste maleta batzuk agertu ziren, motxilak, poltsak. Gizon potoloak, enpresaria seguru aski, bi poltsa nabar hartu eta alde egin du. Emakume errubioak koadrodun maletari heldu, trolian jarri eta atetik harantz desagertu da.

Oso berria da dena Loiuko aireportuan. Bilbao, Euskal Herria, Spain txartela ikusi zuen buru gainean Ferminek, ezkerretara beste bat hiru hizkuntzatan: Ez hartu besteren maletarik, No coja la maleta de otro, Take your own baggage.

Nork hartuko luke nahita besteren maleta? Zertarako? Zer eginen zenuke, demagun, emakume baten soinekoekin? Ike bezala jantzi? Ez legoke gaizki, dena den, bakoitzaren irudipen, zikinkeria, mania, iragana, hitz batean, maleta batean sartu eta beste bati hartzen utzi; eta ondoren txulo batetik begiratu, zer egiten duen zure iraganarekin, nola kudeatzen dituen zure maniak, zure irudipenak, zure zikinkeriak.

«Horixe da, hain zuzen, gaixoek nigana etortzean egin nahi izaten dutena, baina egitea lortzen ez dutena: nigan utzi haien iragana; baina uste ustel bat baino ez da. Iragana bakoitzak eraman behar duen zama bainoago patua da, ekidin ezina; begira bestela Bazter, haren bizitza erdia baino gehiago atzerrian bizi izan ondoren hil eta hona nola dakarren Harakin paranoiko horrek, edo dakargun esan beharko nuke, erdia behintzat Euskal Herrira, kasualitatez gainera, edo gaizki ulertu batez, hobeto esateko, ezen Marckek ez balu oker uste izan euskal herritar-edo delakoei guztiei hiltzean ikurrina paratzen zaiela, seguru aski ez zigun Bazterren errautsen erdia emanen, eta ez genuen Bazterren erdia

ekarriko, nora eta hona, jaio zen lurraldera, edo naziora, edo dena delakoa dela leku honetara; eta ez zuketen haren errautsekin omenaldi merke bat eginen. Baina... zer eginen zaio, Aliziak esaten duen bezala, euskalduna izatea batzuendako, edo batzuetan, izaera bainoago patua da; eta izorra hadi, patuak egiten dik nahi duena, hik nahi ala nahi ez».

Bigarren kamioi bat etorri zen, eta deskargatu ondoren gomazko uhalen artetik ikusi zuen bere poltsa urdina sartzen. Harakinen maleta ikustea ere iruditu zitzaion. Parera heltzean bereari heldu zion, eta gero Harakini eman zion harena. Jexus Marirena ez zen ageri. Jendeak bereak hartu eta alde egiten zuen. Azkenean Jexus Mariren poltsa agertu zen goma beltzezko errezel artetik, eta itxoin gabe hartu zuen. Bost lagun baino ez ziren gelditzen. Amona xahar bat, mutil gazte motodun bat eta beraiek. Amonak hirurak poltsekin ikustean zeren zain zeuden bezala egin zien; ez zituzten hiru poltsak?, bada, alde egin zezatela. Mutil gazteari berehala nabaritu zitzaion zein zen bere hatua; egoki zihoakion la-

rruzko maleta iledun bat agertu zenean poztu zitzaion aurpegia.

Ferminek garraiagailuaren goma beltzetik jaso zituen begiak. Jexus Mariren eta Harakinen begiak atezuan zeuden errezel beltzei begira.

Motxila more bete bat sartu zen errezela banaraziz. Ferminek amonari begiratu zion, gero motxilari: ez zetozen bat; eta esperatu zuen, ez zekien zergatik, okerren bat izatea, espero zuen motxila amonaren parera ailegatzean hartu gabe uztea, eta gero bere paretik pasatuz, Jexus Marirengana egitea, eta gero Harakinengana, eta gero garraiagailuan bira osoa eginez gomazko errezelez estalitako zuloan barna desagertzea; baina ez, motxila amonaren parera ailegatu zenean amonak, gorpuzkerari erreparaturik, ezusteko indarrez motxila bizkarrera jaso eta alde egin zuen, zeharkako begiratua botaz.

Goma beltzari so gelditu ziren hirurak, maleta berdea noiz azalduko zain.

Ferminek daki zenbat denbora egon ziren esperoan, gomazko errezelez estalitako zulotik goma beltzera eta handik erdiko aluminio disti-

rantezko piezara, gertatu zena ezin aitorturik nork bere buruari.

Fermin izan zen egoera deskribatzen ausartu zena: «Maleta ez duk ageri».

Isilik gelditu ziren beste biak. Makina garbitzaile azkar bat iragan zen.

«Mekagoenlaputa! Bazter galdu diagu!» oihukatu zuen Harakinek asaldaturik.

«Errautsak galdu ditiztek», Jexus Marik.

Fermini so egin zioten biek, irtenbideren baten bila, pentsatu zuen Ferminek.

«Goazen erreklamatzera. Nonbait egonen da».

Heroi ederrak eginak zaudete, xuxurlatu zion Aliziak karkarkar, heroi ederrak eginak zaudetenez; lagunaren errautsak zaintzeko ere ez zarete-eta, nola salbatuko zenuten zuek Euskal Herria?!

Aireportuan galdurik ibili ondoren aurkitu zuten Britishen mostradorea. Neska pinpirin batek bestaldetik: «Bai, esan».

«Arratsalde on» esan zuen Ferminek. «Maleta bat galdu dugu; beno, galdu diguzue. Zain egon gara eta ez da agertu».

Pinpirintasuna keria bilakatu zitzaion.

«Suen billeteak, mesedes» ahoskatu zuen.

Ferminek billeteak eman, eta formulario bat harturik neskak galdetu zuen: «Nor isenean segoen?».

«Pedro Mari Arruabarrena Flores» bota zuen Harakinek atzetik.

«Non satoste?».

Hirurek elkarri begiratu zioten, ezin ulerturik.

«Nondik satoste» esan zuen, errepikaturik.

«Londrestik».

Londres apuntatu zuen, eta hegaldiaren zenbakia gehitu.

«Nola sen maleta?». Irribarre arrasto antzeko bat agertu zitzaion ezpainetan.

«Txikia». Eskuekin erakutsi zion Ferminek tamaina. «Berdea, plastikozkoa».

«Se marka?».

«Auskalo» esan zuen Harakinek atzetik.

«Auskalo» apuntatu zuen neskak formularioan. «Esinesko maletak!» gehitu zuen gero.

«Nola?!».

«Maletak esinesko dira. Beti galdu egiten dira!».

Ferminek Jexus Mariri begiratu zion, gero Harakini, neskak zioena ulertzen ote zuten galdezka. Ulertzen ez zutelakoa eman zioten aditzera. Aliziarekin akordatu zen, etxean egonen zen umeekin. Kristalaren bestaldean galdu zuen begirada. Garraiagailuaren goma beltzaren kontra koadrozko maleta bat ikusi zuen. Istant batean sortu esperantza zapuztu zitzaion haien maleta ez zela ohartzean. Hantxe ari zen, jira eta bira, jira eta bira aluminio distirant eta goma beltzaren kontra. Nork galdu ote zuen maleta hura? Desesperaturik izanen zen, auskalo zein aireportutan iragana galdu zuela-eta pozik izan beharrean. Gustura galduko luke berak iragana, dena atzean utzi eta berriz hasi, beste herri batean, beste jende batzuekin, beste bizi bat, egin duena egiteko beharbada, baina, hala ere, gauzek berritan izaten duten distira hori berriz ere bizitzeko. Zer eraman zuen Bazterrek Londresera joan zenean?

Komisaldegian kokotseko orbain batekin ikusi zuen polizia hartaz akordatu zen egun berean bigarren aldiz.

Zergatik jaio behar izan zuen Euskal Herrian? Aliziaren ahots eztia aditu zuen belarrian xuxurloan: Maitea, horrek ez du garrantzirik; orainak du garrantzia, zu eta nire artekoak, gure semealabek.

Jira eta bira segitzen zuen maletak garraiagailuan, fluoreszente argien errainu hotza metal eta goma beltzean distiraka. Maleta galdu zuen hark ere ametsak izan ote zituen? Lokamuts bilakatu ote zitzaizkion? Nola ikasi zuen bizitzak eskainitako apurrekin moldatzen?

«Ser eramaten senuten maleta barruan?».

Elkarri so egin zioten.